goiena
Zu hemen zaude.
2018-05-25 EGUBAKOITZA / 773. ZENBAKIA / 18. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Jerardo Elortza, etxeko lanlekuan, liburu artean

XABIER URZELAI

HERRIAREN ALDE EGINDAKO LANAGATIK ESKERTZA

Jerardo Elortza idazle oñatiarra omenduko dute, herriaz ikertutakoa herrira zabaltzearren / 34

Ibarreko hamar ordezkari izango dira Biurtekoan

Makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak ilusioz eta berrikuntzaz beteta doaz Barakaldora, BECera; astelehenetik egubakoitzera izango da / 2

Leganesko lorpenei esker, Asier Garitano bergararra etxera bueltan da, eta Reala entrenatuko du / 38

Aretxabaleta dantzaren gune bihurtuko da, astebetez, Jaiki elkarteari esker / 40

Pentsio "duin eta publikoen" aldeko aldarria eroango dute erretiratuek zapatuan Donostiara / 4

SINADURAK

ANE ZUAZUBISKAR / 10

ARITZ ARRIETA KABIKETA / 8

JOSE LUIS MADINAGOITIA / 36

Osasungintzan komunikazioa hobetu nahian

Sorginen mitoaz Amaia Nausia historialariarekin

IRTEERA TALDEAN
ARRASATEtik / BERGARAtik
ARGENTINA & BRASIL
2018ko azaroaren 7tik 23ra

Ibilbidea: Sao Paulo – Iguazu – Salta – Bariloche
Calafate – Puerto Madryn – Buenos Aires
Pentsio erdia eta laguntzailea irteeratik bertatik

Argentinar batek egindako aurkezpena:
KAJOI TABERNAn (Herriko Plaza, Arrasate),
ekainaren 13an, 18:30ean
(Etortzekoa bazara, abisatu mesedez : 943 79 29 88 – eduklera mugatua)

Halcon bidaiak
Informazio gehiago:
Olarte kalea 14, behea
943 79 29 88
Halconq99@halcon-viajes.es
* Kontsultatu Debagoieneko beste irteera batzuk

Neurketa sistemari pieza erakusten dion robota, CIN ADVANCED SYSTEM

Prest dira biurtekorako

Hastear da Makina-erremintaren Nazioarteko Biurtekoa. Eta prestakuntza lanetan murgildurik dira sektoreko enpresak. Tartean izango dira Debagoieneko zenbait enpresa. Askotariko eskaintzak eroango dituzte bertara

Iker Oñate DEBAGOIENA

Makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak prest dira BECen egingo den nazioarteko biurtekorako. Ohi bezala, nork berea erakusteko aukera izango du azokan; horien artean, etorkizuneko beharrei –eta erronkei– erantzuna emateko bitartekoak dira nagusi. Esan beharrekoa da sona handiko azoka dela Barakaldokoa: 21 herrialdetako 1.700 enpresak esku hartuko dute horretan. Eta, oro har, 3.000 produktu inguru izango dira ikusgai; berrikuntza ugari, tartean. Finean, sektoreko azken joeren eta eskaintza berritzaileen erakusleiho da BECeko Makina-erremintaren Nazioarteko Biurtekoa. Hala, antolatzaileek bisitari ugari espero dituzte maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitarterako.

Eta izango da Debagoieneko ordezkaririk ere: Biurtekoan egongo dira Oerlikon Balzers, Sisteco, Num Cnc Highend Applications, Tecnosystem, Fagor Arrasate, Pick to Light Systems, IK4-Ikerlan, Cin Advanced Systems, Goizper Group eta Danobat Group enpresak. "Guretzat, erakusleiho garrantzitsu dira azokak; enpresaren irudia zabaltzeaz aparte, lagungarri zaigu gainerakoekin harremana izateko. Azken finean, geroago eta digitalago garen mundu honetan, aurrez aurreko harremanak garrantzi handia du salerosketetan", azaldu dute enpresetako ordezkariek.

Eskaintza zabala

Hain zuzen, eskaintza zabala prestatu du Danobat Group bergararrak. Makinentzako zenbait bitarteko digital eskainiko dituzte, tartean. Jada frogatua dute horien errendimendua, eta ez doakie gaizki: "Esperientziak erakutsi digu makinen produktibitatea areagotzeko, mantentzelanak murrizteko, horien erabilgarritasuna hobetzeko eta fabrikazio zelula osoak kudeatzeko baliagarri direla bitartekook". Data System monitorizazio sistema dute tartean.

Eta, horretan geratu barik, teknologia aurreratua barneratua duten hiru makina izango dituzte ikusgai Barakaldon; Soraluce TA-M, Danobat-Overbeck IRD-400 eta LB Danobat dira horiek. "Berrikuntzaren eta aurrerapen teknologikoaren" alorrean leudeke horiek guztiak. Gauzak horrela, berretsi dute "etorkizuneko erronkei" aurre egiteko prest direla.

Bilakaera digitalaren bidean

Era berean, industria enpresak murgilduta dauden bilakaera digitalerako bitartekoak eskainiko ditu Fagor Arrasatek. Besteak beste, horiek "mesedegarri" lirateke makinen errendimendu orokorrerako. Eta, tartean, Digital Twin sistema erabiliko dute euren eskaintza irudikatzeko –3Dko simulazioa eskainiko dute, egoera errealera hurbiltzen laguntzeko–.

Eskaintzari dagokionez, Smart Connect sistema garatu du Fagor Arrasatek; makinen zenbait elementuri buruzko informazioa kudeatzeaz aparte, sistema gai litzateke horien jardun modua aztertzeko. Eta, bestetik, FA link MAP zerbitzua ere eskainiko dute. Instalazio guztiak monitorizatuko lituzke horrek; eta Fagor Arrasatekoen unean uneko aholkuak jasotzeko aukera eskainiko luke, gainera.

Dagoenera egokitzen

Bestetik, berezko helburuekin doa Arrasateko IK4-Ikerlan Barakaldora: "Enpresen eskakizunetara egokitzeko asmoarekin dihardugu. Haien premietara egokitu behar du teknologiak, eta, ez, alderantziz". Eta Ikerlan Konnekt izenekoa eskainiko dute azokan. Hain zuzen ere, enpresei digitalizazio egitasmoei heltzea ahalbidetuko dien "ezagutza" eta "esperientzia" multzo bezala aurkeztu dute hori.

Eta, "pozik" dira orain arteko esperientziarekin. "Arrakastaz abiarazi dugu sektore ezberdinetako aplikazio industrialetan", diote. Esan dutenez, "eskakizun maila handikoak" ziren horiek; hor daude ondasunen, garraioaren eta energiaren sektoreak. Zehatz esanda, esperientzia horiek ikusgai izango dira bere

standean –Fagor Arrasatekoa, Oronakoa eta Ikusikoa daude tartean–.

Aurtengoa, estreinakoa

Bestalde, Oñatiko Pick to Light Systems enpresakoek ere badute zer eskaini; azokan esku hartzen duten lehen aldia da eurena. Hain zuzen, Proyection Picking System (PPS) izenekoarekin doaz Barakaldora. "Muntaiako zein *picking*-eko prozesuak modu intuitiboan egitera bideratzen duen sistema berritzailea da. Irudien, testuen eta bideoen bidezko laguntza eskaintzen du horretarako", argitu dute enpresako kideek. Alemaniako LOGIMAT azokan aurkeztu zuten produktua.

Eta, era berean, esan beharrekoa da euren eskaintzak jasoa duela aitorpenik: 2017an *Grand Prize of the Tokyo Venture Technology Award* saria eskuratu zuten Tokion (Japonia) egin ohi den industria alorreko nazioarteko azokan. Besteak beste, "kalitatea" eta "berritasuna" lituzkete indargune.

Zenbakizko kontrola

Horrez aparte, Num Cnc Highend Applications enpresa oñatiarrak ere prest du bere eskaintza. Euren egunerokoa eroango dute Makina-erremintaren Nazioarteko Biurtekora: Num zenbakizko kontrola. Sistema bera saltzea eta osteko zerbitzua –laguntza teknikoa, adibidez– dituzte zeregin. Hain zuzen ere, makina-erreminten automatizaziorako "bitarteko eraginkorrak" eskaintzeko lanean dabil enpresa.

Orain arteko bidean

Oro har, orain artekoari helduta segituko du Bergarako Tecnosystem enpresak. Eta arreta berezia jarria du Biurtekoaren azken edizioan aurkezturiko makinan: CNC zuloak egiteko Hankook makina –Korean ekoitzitakoa da hori–. "Enpresek gustuko dute makina. Pozik gaude izandako harrerarekin. Beraz, berdinean dihardugu", azaldu dute. Euren standean jarriko dute ikusgai.

Esan beharrekoa da nazioarteko zenbait fabrikatzaileren banatzaile dela Tecnosystem –Europako zenbait enpresa garrantzitsurekin dihardute elkarlanean–. Eta, beraz, berrikuntzarik ere eskainiko dute azokan. "Olio eta elektrohigadurarako hari berriak ditugu, esaterako", diote.

Balizko akatsei aurre egiten

Esan moduan, nork berearekin dihardu. Eta produkzio pieza konplexuen neurketarako zein balizko akatsen detekziorako sistema "eraginkorrak" eskaintzea da Arrasateko Cin Advanced Systems enpresaren xedea. "Bezeroaren prozesuan, makina-erremintan edo lineatik kanpoko lanean txerta daiteke sistema", argitu dute. Esan beharrekoa da sona handiko enpresak dituztela bezero –Mercedes, Fagor Ederlan eta Copreci, adibidez–.

Gainera, 3Dko neurketa eskaintzen duen makina sorta aurkeztuko dute Biurtekoan. "Neurketa zehatzagoa eskaintzen digu horrek. Esaterako, gai da beste zenbait teknologiak neur ezin ditzaketen geometria eta barrunbeak neurtzeko", diote. Teknologien hiru erakusle izango dituzte Barakaldon.

DEBAGOIENEKO ORDEZKARITZA ZABALA IZANGO DA MAKINA-ERREMINTEN BIURTEKOAN

Data System monitorizazio sistema. DANOBAT GROUP

Bertsio berriak

Bestetik, Antzuolako Goizper Groupek ere zenbait produktu aurkezteko aprobetxatuko du azoka. Hainbaten artean, bere biraketa unitatearen bertsio berria eroango du Barakaldora, ZPGI bataiaturikoa. Batez ere, soldaduraren sektorera bideraturiko produktua dute –automozioaren alorrean–. "Trinkoagoa da; eta, prestakuntza aldetik, lehiakorragoa", argitu dute.

Bestetik, akorduan dute 4.0 industria. Hala, Smart-G produktua eroango dute azokara. Horri esker, euren produktuak –erreduktore bereziak zein balantza enbrageak– sentsorizatu eta monitorizatu ditzakete. "Arrakastaz" dihardute sistema horrekin.

Meheak, baina gogorrak

Aurrekoez aparte, Antzuolako Oerlikon enpresa ere izango da Biurtekoan, askotariko estaldurak ezagutarazteko –ebaketako erremintentzat egokiak direnak, estanpazioko trokel handien beharretara zuzendurikoak...–. "Oso meheak izan arren, altzairua baino gogorragoak dira. Higaduraren kontrako ezaugarri nabarmenak dituzte, gainera", azaldu dute.

Eta, tartean, berrikuntzarik ere eroango dute azokara: karbono oinarrizko Balint estaldura. "Horiek oso egokiak dira higadura arazo handiak dituzten alorretarako; eta, era berean, irristatze abiadura handia den kasuetarako", argitu dute.

Hainbat standetan

Eta gainerakoen bide berean dihardu Sisteco elgetarrak. Eskaintza zabala eroango du Barakaldora, era askotako bezeroei baliagarri izan dakiokeena –hainbat standetan egongo da–. Batetik, metalak eta aluminioak mozteko makinak eroango dituzte. "Gogortasun handiko materialak eta aeronautika arlokoak dira nagusi", diote. Eta, bestetik, automatizaziorako sistemak eskainiko dituzte: tornuentzako kargadoreak, diskoz mozteko makina...

4.0 industria, erdigunean

Aurtengo edizioak inoiz ez bezalako garrantzia eman dio 4.0 industriari; horren bueltan ibiliko dira mundu osoko enpresen eskaintzak. Hori horrela, berrikuntzarako, ekoizpen adimentsurako, sistema integraziorako eta nazioartekotzarako bitartekoak aurkeztea izango dute helburu BECeko sei pabiloi hartuko dituzten parte hartzaileek.

Hala, iazko bisitari-langa gainditzea aurreikusten dute egitasmoaren bultzatzaileek –40.000 lagun erakarri zituen aurreko edizioak–. Eta, hori, Barakaldoko hitzorduak nazioartean duen sonarekin lotzen dute antolatzaileek. "Europa mailan, makina-erreminten sektoreko hirugarren azoka garrantzitsuena da gurea", argitu du Cesar Garbalenak, AFMko presidenteak.

Donostiara, "pentsio duin eta publikoen" alde

Bihar, zapatua, Pentsiodunen Plataformak eta Mugimenduen Asanbladak deituta, manifestazioak egingo dira Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Donostiara joateko dei egin dute Debagoieneko elkarteek ere: Agijupens Debagoienak eta Duintasunak

Asteleheneko manifestazioan, Agijupenseko eta Duintasunako kideak. KIKO MARTINEZ

Miren Arregi ARRASATE

Aldarrikapen eta mobilizazioetan murgildurik daramatzate azken hilabeteak Euskal Herriko pentsiodunek, eta bide beretik jarraituko dutela iragarri dute. Eguaztenean Espainiako Kongresuan EAJren babesarekin aurrekontuak onartu izanak ez du aldaketarik eragingo erretiratuen eta pentsiodunen jokatzeko moduan. Izan ere, pentsioen %1,6ko igoera hitzartu dute EAJk eta Alderdi Popularrak, baina "hori ez da nahikoa", erretiratu eta pentsiodunen iritziz, pentsio sistemak "neurri egonkorrak" behar dituela iritzi baitute. Hala, Hego Euskal Herriko lau probintzietako Pentsiodunen Plataformak deituta, biharko, mobilizazio "masiboa" deitu dute lau hiriburuetan. Debagoieneko elkarteek ere bat egin dute deialdiarekin. Agijupens Debagoiena eta Duintasuna dira horiek.

Hala, "pentsio duin eta publikoen" alde, manifestazioa egingo da bihar, zapatua, Donostian. Cervantes Plazatik –Alderdi Eder– irtengo da hori, 17:30ean. Hiru aldarrikapen nagusi entzungo dira han: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, sostengarritasun faktorea ezabatzea eta erosteko ahalmena berreskuratzea dira horiek. Donostiara joateko autobusak antolatu dituzte bai Duintasunak, bai eta Agijupens elkarteak ere.

Neurri egonkorrak

Duintasunako Debagoieneko kideek astelehenean egin zuten, Oñatin, biharko manifestaziora joateko dei. Nabarmendu zutenez, pentsio publikoen sistemak ikuspegi eta neurri egonkorrak behar ditu, eta, ondorioz, ezin da aurrekontuen negoziazio erabakien menpe egon. Gaineratu zuten EAJren eta PPren arteko akordioarekin ez dutela 2013tik hona galdutako erosteko ahalmena berreskuratuko eta, gainera, ezetza jaso duela euren aldarrikapen nagusiak; alegia, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bermatzeak. Gainera, gizarte-segurantza sistema propioa ere aldarrikatu zuten.

Legez, bermatuta

Agijupens elkarteak, bestetik, joan den astean eman zuen euren aldarrikapenen eta aurrera begirako ibilbide-orrian zehaztutako puntuen berri. Hala, azpimarra ipini zuten euren aldarrikapenak legez babestuta egotearen garrantzian eta pentsioen sistema publikoa bermatzeko hartu behar diren beharrezko neurrietan. Gaineratu zuten, aurrez aipatutako aldarrikapenez gain, genero arrakalaren ezabatzea ere aldarrikatuko dutela, bereziki, alargunen eta umezurtzen-pentsioen igoera eskatuz eta hala, erantzuna emanaz, pobreziaren atarian dauden herritarrei.

"EAEk baditu aukera ekonomikoak pentsio sistema jasangarri baterako"

MIKEL DE LA FUENTE EHU-KO IRAKASLEA

Euskal Herriko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle erretiratua da Mikel de la Fuente. Eguaztenean, Agirre Lehendakari Center-ek antolatuta, *Pentsioen euskal sistema?* hitzaldia egin zuen Arrasaten, Kulturaten.

PAUL RIOS

Pentsioen sistema euskalduna posible da?

Gaur egungo Espainiako konstituzioaren markoan erantzuna oso argia da: ez da posible. Elementu nagusiak, legegintzako ikuspuntu batetik, estatuaren konpetentzia dira. Oinarrizko legislazioa eta erregimen ekonomikoa. Beraz, ez dago markorik ezta bigarren kategoriako sistema propioa izateko.

Eta zein aukera ematen du, beraz, konstituzioak?

Gizarte-segurantzaren kudeaketaren transferentzia bat ahalbidetzen du konstituzioak. Eta hori ez da gauzatu 40 urteotan, Espainiako gobernu guztiek ukatu egin dutelako. Kudeaketa hori gurea izateak onurak ekarriko lituzke, baina modu mugatuan. Iruzur gutxiago egongo litzateke... Baina esperientziarik zela ez dagoen, zaila da onurak zehaztea.

Eta ekonomikoki interesgarria litzateke sistema propioa?

Gaur egun Espainiak defizita badu, guk, EAEn, handiagoa daukagu; beraz, errentagarritasun finantzarioari dagokionez, ez da errentagarri. Beste gauza bat da bestelako pentsio politika bat egitea. Alde horretatik, EAEk aukera ekonomikoak ditu pentsio sistema jasangarria izateko. Hori bai, orain ordaintzen duguna baino gehiago gastatu beharko genuke. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak baditu errekurtsoak eta gaitasun ekonomikoa gastu handiago bati aurre egiteko.

Beraz, EAEk badu pentsioen sistema hori errentagarri egiteko aukera?

Bai, badu. Gaitasun ekonomiko produktiboa duelako eta badituelako errekurtsoak politika hobea egiteko. Esan beharra dago, gainera, guk pentsio gehiago ordaintzen dugunez, sarrerak ere gehiago ditugula. Edozelan ere, nola pentsio gehiago ordaintzen dugun euskal populazioa zaharkitua dagoelako, defizita ere handiagoa dugu. Gaur egun, sarrerak ordaintzen direnak baino txikiagoak dira.

ausolan
auzo lagun

AUZO LAGUN Koop. E. – ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikuluak dioenaren arabera, Ohiko Batzar Nagusirako deia egiten da.

OHIKO BATZAR OROKORRA
Deialdia

Eguna: 2018ko ekainaren 9a
Ordua: 10:30ean, lehen deialdia - 11:00etan, bigarren deialdia
Tokia: Polo Garaia.

GAI - ZERRENDA

1. 2017eko BATZAR NAGUSIKO ETA 06/15 ETA 10/17KO EZ OHIKO BATZARRETAKO AKTEN ONARPENAREN BERRI EMATEA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA.
2. KUDEAKETA AZTERTZEA ETA ONARTZEA
   2.1. 2017ko Kudeaketa onartzea
   2.2. 2018eko Kudeaketa Plana berrestea
3. 2017ko EKITALDIKO KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA
4. SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA
5. EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK
   5.1. Sarrera kuotak eta ekarpena
   5.2. Kapitalari egindako ordainketa
   5.3. IPDK aplikatzeko irizpideak
6. AUDITOREAK IZENDATZEA
7. MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
8. ORGANO SOZIALETAKO KIDEAK HAUTATZEA
   8.1. Zaintza Batzordea
   8.2. Errekurtso Batzordea
9. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
10. GALDERAK ETA ESKARIAK

OHARRAK: Bazkideei gogoraraziten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela Kooperatibaren agiri ekonomikoak eta agiri hauek dozu emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela.

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
2018ko maiatzaren 25a

Maria Unamuno, Miren Arrizabalaga eta Alaitz Pagaldai ginekologoak.

"Emakume guztien ongizatea dugu helburu"

Osasun arloko hainbat espezialista batzen ditu Durangon zabaldu berri duten Mam ginekologia zentroak. Teknologia aurreratuenekin lan egiten dute. **Alaitz Pagaldai** ginekologoak eman ditu zentroaren gaineko xehetasun guztiak

Ginekologia zentroa zabaldu berri duzue Durangon. Zer dela eta?
Bai, baina, berez, gu Durangon berriak ez gara, urte asko daramatza taldeak hemen lanean. Honetaz gain, osasun publikoan ibilbide luzea dugun profesionalak gara hirurok. Ginekologiak gaur egun esparru berri batzuk dituela ohartu gara, eta, azkenengo teknologiarekin, betiko kontsultez gain, arlo berri horiek eskaintzea dugu helburu Mam ginekologia zentro berrian.

Esparru berriak diozue. Zein arlo dira horiek?
Gero eta emakume gehiago daude menopausia garaian izaten diren aldaketei konponbideak topatu nahi diotenak. Lehengo emakumeek normaltzat jotzen zuten arren, gaur egun, adin guztietan ongi egon nahi dugu. Menopausian ohikoak izaten dira pixa galerak, baginako atrofia, erlazio sexualetan molestiak… Gaur egun, badira horiek hobetzeko metodoak; azido hialuroniko injektatua, baginako laser tratamendua... Horiek dira martxan jarri ditugun gauza berrienetariko batzuk. Besteak beste, kasu bakoitza pertsonalizatzen dugu.

Ginekologiaz gain, badira beste espezialitate batzuk ere. Zeintzuk dira horiek?
Bai; esaterako, emagina ere badugu, haurdunaldian eta ondorengo prozesu osoan laguntzeko eta aholkatzeko. Zoru pelbikoko eta bestelako gaitzak tratatzen dira haurdunaldian, menopausian… Espezializatutako fisioterapeuta ere badago. Eta, azkenik, argi genuen tratamendu medikoez gain, gaur egun ongizatearen oinarri den *mindfulness*-a martxan jarri nahi genuela, eta, horretarako, yoga espezialista ere badugu saio ezberdinak ematen –haurdunaldian, minbizi prozesuetan zein orokorrean–.

Tailerrak ere ematen dituzue zuen zentroan. Zer-nolakoak?
Bai. Gaur egun interesgarri diren txarla eta tailerrak egiten ditugu, etxeko egongelan izango bagina bezala, lagun artean. Adibidez prest ditugu iadanik laser baginalaren abantailak azaltzeko tailerra, kopa menstrualaren erabileraren gainekoa, edo inkontinentziarako ariketen tailerra. Etengabe izango gara gai interesgarrienak jorratzen eta guztiak gonbidatzen ditugu zalantza guztiak argitzera.

Aseguruekin ere lan egiten duzue?
Bai, noski. Ia seguru guztiekin lan egiten dugu: Lagun Arorekin, Sanitasekin, Mapfrerekin, IMQ-rekin...

"GAUR EGUN, BADIRA MENOPAUSIA GARAIKO ARAZOAK HOBETZEKO METODOAK"

"Inplikazioa", kultura politikoa sendotzeko

Arrasaten izan ziren astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusi Markel Olano eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari Maribel Vaquero, lurraldeko kultura politiko demokratikoa bailarako ordezkariekin aztertzeko helburuarekin

Josu Bilbao ARRASATE

Kulturaten egin zuten, pasa den astelehenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, kultura politiko demokratikoari buruzko hausnarketa saioa. Bertan, besteak beste, Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako alkateek parte hartu zuten, hainbat zinegotzik ere, eta baita Debagoieneko Mankomunitateko eta Goiena Komunikazio Taldeko ordezkariek ere. Markel Olano diputatu nagusiak eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari Maribel Vaquerok aurkeztu zuten ekimena. Vaquerok aurrez egindako 1.500 inkestaren eta beste hainbat lan kualitatiboren ondorioak aurkeztu zituen, eta ondoren, taldeka, hausnarketara bultzatu zituzten bertaratutakoak.

"Nik uste dut gizarteak paso egiten baldin badu politikatik, azkenean, transformaziorako ahalmen oso gutxi edukiko ditugula. Nork bereari bakarrik begiratuko dio eta indibidualizazio eta kontsumismo gizarte oso markatu batean oso ahalmen gutxi daukagu gauzak hobetzeko, jendearen inplikazioa ez baldin badugu lortzen, eta daukagun gizarte sare indartsu hori ez baldin badugu aktibatzen", azaldu zuen Markel Olanok.

Ezagutzera eman zituzten datuen artean, diputatu nagusiak azpimarratu zuen gazteek "politikan inplikatzeko desio gehiago" dutela gaur egun, duela zortzi edo bederatzi urteko datuekin alderatuta: "Orain dela zortzi edo bederatzi urte gazteekin egin zen inkesta batek adierazten zuen paso egiten zutela politikaz. Zortzi edo bederatzi urte pasa ondoren, oraingoak adierazten duena da jendea haserre dagoela, baina, aldi berean, politikatik gertuago dagoela, indiferentzia pixka bat alde batera utzi dutela eta inplikatzeko desio gehiago dagoela".

Parte-hartzaileak taldeka hausnarketa lanetan. AMAIA TXINTXURRETA

Objektu berrerabilgarri txikiak, ehunkien edukiontzietara

Ehunkiak, arropak eta oinetakoak jasotzeko dauden 62 edukiontzien irudia aldatzen hasi da Mankomunitatea

J.B. DEBAGOIENA

Aurrerantzean, ehunkiez, arropez eta oinetakoez gain, edonolako objektu edo produktu berrerabilgarri txikiak ere jasoko dituzte itxuraz aldatu dituzten edukiontzietan. Arrasateko edukiontziak eraldatzen hasiko da Debagoieneko Mankomunitatea, eta gero, ondoko herrietakoak egokitzen joango dira.

Orain arteko produktuez gain, edonolako objektu txikiak batuko dira edukiontzi horietan; hala nola, liburuak, jostailuak, gailu elektrikoak eta elektronikoak, bisuteria...Elementu ebakitzaileak ezin izango dira edukiontziotara bideratu.

Edukiontziak prestatzen. IMANOL SORIANO

Mankomunitatearen azalpena

Bilketa kamioi baten argazkia zabaldu zen joan den astean, sare sozialetan. Argazki horretan, edukiontziak biltzen dituen kamioia agertzen da, Arrasaten, Musakolan, edukiontzi gris bat eta hori bat batera husten. Birziklapena zuzen egiten ez dela iradokitzen duen argazkia izanik, Mankomunitateak argitu du "bi edukiontzi horiek errefusez beteta" zeudela.

ULMA Packaging, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2018ko ekainaren 1a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko frontoia – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
   4.1. 2017ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
   4.2. 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
6. 2017KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
7. KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAK INTERESEN MONETARIZAZIOA NEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
8. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
   8.1. 2017an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskarga
   8.2. 2018an IPDK-ko zenbatekoak aplikatzeko proposamena
   8.3. ULMAren 2018ko jarduera sozialaren ildoen azalpena
9. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
10. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
11. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEA
14. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bazkideei gogoratzen zaie ULMA Packaging, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituela urteko kontuak, ezartzeko aplikatzeko proposamena eta kontuen kontu-liburuak egunkako gertu-tzeina, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar azterta ahal izan ditzaten. Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan dituela eskuragarri azaldun proposamenaren aldaketaren testu osoa eta aldaketa horren justifikazio-tresna, eta hori doan eskatu edo bidaltzeko eska dezakela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2018ko maiatzaren 9a

ULMA Manutención, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2018ko ekainaren 1a
Ordua: 08:30ean lehen deialdia eta 09:00etan bigarrena
Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA, ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO
   4.1. 2017ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
   4.2. 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak aztertzea, eta, onartzea hala badagokio
5. AUDITOREA IZENDATZEA EDO BERRAUTATZEA
6. KAPITALAREN ORDAINKETA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA
7. 2017KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA
   7.1. 2017ko ekitaldiko emaitzak banatzea
   7.2. Boroondatzeko Erreserba Fondoak birbanatzea
8. KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAK INTERESEN MONETARIZAZIOANEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO
9. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)
   9.1. 2017an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskarga
   9.2. 2018an IPDK-ko zenbatekoak aplikatzeko proposamena
   9.3. ULMAren 2018ko jarduera sozialaren ildoen azalpena
10. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK
11. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEA
12. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
13. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
14. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA
15. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
16. AHALMENAK ESKUORDETZEA
17. GALDE-ESKEAK

OHARRAK: Bazkideei gogoratzen zaie ULMA Manutención, S.Coop.en ("Kooperatiba") egoitzan eskuragarri dituela urteko kontuak, ezartzeko aplikatzeko proposamena eta kontuen kontu-liburuak egunkako gertu-tzeina, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar azterta ahal izan ditzaten. Halaber, bazkide guztiei jakinarazten zaie Kooperatibaren egoitzan dituela eskuragarri azaldun proposamenaren aldaketaren testu osoa eta aldaketa horren justifikazio-tresna, eta hori doan eskatu edo bidaltzeko eska dezakela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2018ko maiatzaren 10a

Elkartasuna sahararrei

MARTA SANCHEZ
SAGIRI ELKARTEKO KIDEA
ANTZUOLA

Zenbat aldiz entzun dugu gazteok ez garela konprometitzen, geure buruan besterik ez dugula pentsatzen… Honelako milaka entzuten ditugu egunero gure inguruan. Baina gazteok proiektu berri bat esku artean daukagunean, zer-nolako harrera izaten du?

Duela urte bat hasi ginen proiektu honetan lan egiten, hamar haur sahararrek gure artean uda atsegin bat pasa dezaten. Eta azken urteko gure denbora libre guztia haur hauen egonaldia finantzatzeko ekintzak prestatu eta burutzen ibili gara. Debagoieneko herritarren artean harrera ona izan du gure elkarteak, laguntza iritsi zaigu toki askotatik. Baita bailarako udal batzuetatik ere, baina beste udal batzuetatik ezezkoa jaso dugu lehenengo momentutik. Ezezko horiek direla eta, Debagoieneko herritarrei laguntza eskatzera behartuta ikusten dugu geure burua. Haurrak iritsi baino hilabete eta erdi lehenago, oraindik, haur hauen hegaldi eta egonaldia ordaintzeko dirua falta zaigulako.

AMS elkarteari eta Amaia Udal Antzokiko langileei, une oro eskainitako laguntza eta prestutasunagatik. Baita Goienari eta jo genuen beste hedabideei ere, ekimen hau behar bezala jorratu eta hedatzeagatik.

Antzokia lepo bete ez bazen ere, horrenbeste jenderen parte-hartzea txalogarria izan zen. Bihotzez, mila esker igande hartan gerturatu zineten guztioi; jakin ezazue zuen laguntzarekin Mexikoko Txiapasko proiektu xume biren haziak loratzen jarraituko direla.

Eskerrik asko!

AHINARA ZUBIZARRETA, SANTI ROMAN, BIXEN MARTIN, AINHOA GALDOS, YURRE ROMARATEZABALA ETA OIHANA IRAZU
ESKOZAP KOLEKTIBOAREN IZENEAN
ESKORIATZA

Eskoriatzako EzkoZap kolektiboko kideok eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Leo Bassik Amaia antzokian pasa den maiatzaren 13an taularatutako *El último Bufón* ikuskizuna posible egin zuten guztioi.

Leori, bereziki, hasiera-hasieratik gure jarduerarekiko adierazitako elkartasunagatik eta maisuki eszenaratutako lan hunkigarriagatik. Ametsak egia bihurtzen direlako adibide izateagatik.

Hiri feministak eraikitzeko erronka

EVA ABUIN
ARRASATE

Apirileko udalbatzan Mugikortasun Plana onartu zen, aho batez.

Prozesu luzearen mugarri, partaidetza prozesua tartean, non arrasatear ugarik parte hartu zuen. Ildo nagusiekin ados egon gara eta horiek landu egin ditugu, herritarrekin eta alderdiekin.

Hala ere, alegazio bat aurkeztu nuen, lanketan ez baitzen genero ikuspegia kontuan hartu.

Herri feministak eraikitzeak arlo askotan genero ikuspegia txertatzea behar izaten du, era zehar-lerrokoan politika guztietan. Berdintasun, Gazteria, Kultura, Kirol... arloetan landu behar den bezala, Hirigintza eta Mugikortasun sailetan ere kontuan izan eta inplementatu behar dira ikuspegi feministak. Zerbitzuen eta kaleen erabilerak ez dira berdinak denontzat; klase, adin, jatorri eta beste ardatz batzuek eragina dute eta genero ardatza garrantzitsuenetakoa da. Sexu banaketak erpin askotan ditu erroak; lan produktibo eta zaintzetan, bereziki. Garraio publikoko erabiltzaileen artean emakumezkoak dira gehienak, nagusiak eta emigranteak, batik bat. Umeen eta nagusien zaintza lanak, batez ere, emakumezkoek egiten dituzte, kaleen egitura eta erabilerak honetan duen eraginarekin. Kalean seguru ibiltzeko, festetan eta gauez, adibidez, puntu beltzak murriztea kontuan hartu beharra dago, guztiontzat herri segurua eraikiz.

Mugikortasun gaian biztanleriaren %50en baldintzak ez dira kontuan hartu eta hau konpontzeko atea irekitzea proposatu genuen alegazioaren bitartez. Planeko esku-hartze bakoitzean genero ikuspuntuaren aldetik ekintza zehatzak eskatu genituen. Bete ez den arren, Planean idatzirik geratzen da esku-hartze bakoitzean kontuan hartuko dela genero ikuspegia.

Honek berez ez du horrela izango denik bermatzen, kasu bakoitzean argi ibili beharko dugu genero ikuspegia txertatu dadin, baina aipamenak konpromiso politiko bat islatzen du. Atea zabaldu da eta emakumezkoen behar eta baldintzak ikuskatzen hasi dira udalgintzan. Behin irekita, lehen harria jarri ondoren hiri feminista eraikitzeko erronka daukagu eta bideari jarraitzea dagokigu ordezkari politiko guztiei.

Aldaketa garaia iritsi da!

LOURDES IDOIAGA
OÑATIKO EAJ-PNV-REN UDAL TALDEA
OÑATI

Bost urte bete dira EH Bilduren gobernuak Oñatin atez ateko sistema inposatu zuenetik hondakinak batzeko. Bost urte hauetan inposizioa eta deserosotasuna izan dira nagusi herritar askorentzat; datuek, gainera, agerian utzi dute EAJk hasiera-hasieratik defendatu duen mezua: edukiontzi bidezko sistema eraginkorra dela; atez ateko sistema bezainbestekoa, gutxienez.

Esate baterako, Debagoieneko Mankomunitateak argitaratutako azken datuei erreparatuta, Bergaran otsailean %82,43koa izan da edukiontzi bidez egindako bilketa selektiboaren indizea. Oñatin, berriz, %81,54koa atez atekoarekin. Hau da, Bergaran baino baxuagoa.

Gogoratu behar da, gaur egun, Oñatin eta Antzuolan baino ez dagoela atez ateko sistema. Izan ere, gainerako udalerri guztiek edukiontzi bidezko sistemaren alde egin dute. Oso-oso datu esanguratsua da gaikako bilketa, batez beste, %80,03 ingurukoa izatea Debagoienean.

Gero eta oñatiar gehiagok eskatu du hondakinen bilketa sistema aldatzeko eta atez atekoa baztertzeko. Are gehiago, jakin dutenean Debagoieneko beste herrietan eta Oñatin oso antzeko indizeak lortu direla askoz ere bilketa-sistema erosoagoa erabilita. Izan ere, gainerako herrietan zaborra ez da egoten derrigorrean etxean 2 edo 3 egunetan, pilatuta usain txarra sortzen. Ez da kalera irten behar egunero-egunero gauez zaborrontzia esekitokian jartzeko, eta ez da jaso behar goizean berriz. Ez dago haizeak noranahi eramandako ontzia bilatzen ibili beharrik.

Hondakinak gaika batzea hobekuntza da, zalantzarik gabe, baina atez atekoak, gaur egun, ez dio balio erantsirik eskaintzen gaikako bilketari. Hortaz, nola justifikatzen du EH Bilduren udal gobernuak azken bost urteetako inposizioa? Zergatik jarraitzen dugu Oñatin askorentzat hain deserosoa den sistema horren zigorrarekin?

Iritsi da hondakinak batzeko sistema aldatzeko unea. Eta iritsi da, batez ere, herritarrengan konfiantza jartzeko unea. Oñatiko familiak oso arduratsuak gara, eta gaika batzen jarraituko dugu! Garaia da EH Bilduren gobernuak oñatiarrenganako konfiantza agertzeko: aukera eman behar die Oñatiko familiei frogatzeko edukiontzi bidez ere oso datu onak lortzen direla –edo atez atekoarekin baino hobeak–. Aldaketarako garaia da!

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN

BATZAR OROKORRA

DEIALDIA

Honen bidez, 2018ko ekainaren 7an, eguena, egingo dugun urteroko chiko batzar orokorrerako dei egiten dut.
Batzarra Arrasateko Kulturaten izango da, Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2017ko ekainaren 8ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2017ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2017ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2018ko kudeaketa plana onartzea.
7. 2018ko aurrekontua onartzea.
8. Errektore Kontseiluko kide berriak aukeratzea.
9. Bazkide ekarpenen eguneratzea.
10. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2018ko maiatzaren 10ean.
Aitor Izagirre Navarro
Errektore Kontseiluko lehendakaria

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

ZABALIK

ARITZ ARRIETA KABIKETA

Ilusioak ilusio

Gure bizitzan, bide berri bat hartzen dugunean, beste bide edota bizimodu batzuk uzten ditugu alde batera, eta, gainera, betiko utzi ere. Hori horrela da, eta onartu beharra dago, bizitzaren patua da eta.

Eta, horretaz gainera, beste bide hori hartzerakoan, lagunak ere, sarri askotan, alde batera geratzen dira, hor nonbait; edozelan ere, badira ere beste gauza asko alde batera geratzen direnak bide berri hori hartzen dugunean, alegia; ilusioak?

Hain zuzen ere, nora joaten ote dira ilusioak, nora joaten dira ilusio zaharrak, nora joaten dira bizitzak desegindako ilusioak?

Erraustu egiten dira erabat ala fantasmak izango balira bezala irauten dute gugan? Horixe bera da neure buruari egiten diodan galdera.

Baliorik gabeko sinplekeriak ziren eta zuzen jokatu genuen, horrenbestez, ilusio haiek guztiak baztertuta?

BALIORIK GABEKO SINPLEKERIAK ZIREN ETA ZUZEN JOKATU GENUEN ILUSIO HAIEK GUZTIAK BAZTERTUTA?

Ala... zapuzturik gelditutako bizimodu argitsuago baten ernamuinak ote ziren?

Zein garrantzitsuak diren hartutako bideak eta, are gehiago, zelan aldaraz dezaketen horiek geure etorkizuna; izan ere, askotan, ez diogu inportantzia handirik ematen horri.

Esan beharra dago izan daitekeela ilusio horiek, sarritan, itsutu egiten gaituztela, eta, horren ondorioz, norabidea galarazi.

Horrenbestez, ilusioa neurtu egin beharko genuke momenturen batean; izan ere, ilusioaz ere bizi omen gara, neurriren batean.

Ilusioa amets bihurtuz gero, berriz, inoiz gertatu omen den gertaera bilaka dezakegu, baina, horrela, ametsa amets izango litzateke eta ilusioaren behar primarioa galdu egingo litzateke.

Horrenbestez, eta gauzak horrela, nik neuk uste dut hobe dela ilusioak ilusio utzi eta ametsak, berriz, gauerako baztertu.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Altxa kopa hori!

MIREN AMURIZA

HTTPS://LABUR.EUS/8OMEK

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Urtebetetze afaria: kandela bat, ardo kopa bi eta oparitxoa mahai gainean.

Zabaldu nuen paketetxoa eta "ai ama! Hau larregi da!".

Ezetz berak, hartzeko.

Pasatu egin zela nik.

Ez nuela gutxiago merezi berak...

Eta horrelaxe, harik eta konpresa paketea onartzeko konbentzitu ninduen arte.

Gutxienez 30 urtean zehar hilerokoa izango duen humanitatearen %50 horren parte bainaiz neu ere; 1.800 milioi gara uneotan, lauzpabost astean behin, egun bitik zazpira bitartean iraun dezaketen odol-isuriak edukitzen ditugun emakumezkoak.

Ordea, tanpoiek eta konpresek, premia fisiologikoak berdintzeko oinarrizko, doako gaiak bainoago, luxuzko produktu izaten jarraitzen dute: estatu frantsesean %5,5eko BEZa dutena, %10ekoa dute espainiarrean (kabiarrak bestekoa).

Gutako bakoitzak, konpresa eta salvaslipetan bakarrik, urtean 45-50 euro gasta ditzakeela, alegia; 30 urtean zehar, 1.350 bat euro.

Alternatiba jasangarriagoak bilatu behar, hortaz: trebatuenentzako isurketa librea, koherenteenentzako konpresa berrerabilgarriak, inkonformistentzako ekintza zuzena:

Bilboko Ernaiko neskek, esaterako, konpresak eta tanpoiak ostu zituzten herenegun supermerkatu batetik ondoren, kalean, hartu gura zituenaren eskura jartzeko.

Eta ardo zaleontzat, bien bitartean, um ble-ble, kopa hori, noski!

Kandelari putz egin eta txirri aska, txirri aska...

Altxa kopa hori!

Ieup!

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre. **Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal. **Eduki zuzendaria** Eneko Azkarate. **Erredakzio batzordea** Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube. **Zuzendari komertziala** Mireia Larrañaga. **Administrazio zuzendaria** Agurtzane Gaintzarain. **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate. **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia. **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura). **Maketazioa** Imanol Soriano, Aitor Lagoma. **Publizitatea** Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza. **Administrazioa** Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola. **HARPIDETZA** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 *harpidetza@goiena.eus*

PUBLIZITATEA Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 Tel.: 943 25 05 05 Faxa: 943 25 05 00 *publi@goiena.eus* **EGOITZA NAGUSIA** Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna 31 132 posta-kutxa Tel.: 943 25 05 05 Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07 *berriak@goiena.eus* **Lege Gordailua:** SS-965/2014 **ISSN:** 2174-369X **Tirada:** 19.000 ale **Difusioa:** 18.723 ale

PEFC ziurtagiria Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka www.pefc.es

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Arantzazu maite dugunok omenduko dugu Beristain"

JOXE MARI ARREGI ARANTZAZUKO ADISKIDEAK ELKARTEAREN PRESIDENTEA

Eneko Azkarate ARANTZAZU

Iñaki Beristain (Errezil 1947-Arantzazu 2017) zenari omenaldia eskainiko dio, zapatuan, Arantzazun, Arantzazuko Adiskideak Elkarteak, Gandiaga Topagunean. 11 urte zituela hasi zen Arantzazuko frantziskotarren seminarioan eta Arantzazuri emana bizi izan zela diote gertukoek.

Azkarregi eta ustekabean hil zen Iñaki Beristain. Hala diozue…

Bai. Minbiziarekin hil zen. Atzeman eta esan ziotenetik heriotzaraino oso tarte laburra igaro zen. Azkar joan zitzaigun. Presaka bezala hil zela esan genezake. Ezustean harrapatu gintuen.

Arantzazun, funtsezkoa izan zen.

Batetik, Arantzazuko fraideon artean eta, bestetik, Arantzazu euskalduntasunaren eta euskal kulturaren gune bezala hartzen duen edozeinendako. Arantzazu erlijioaren edo espiritualtasunaren gunea baino askoz ere gehiago da: kultura, natura, euskara…; euskaldunon etika, morala eta ausardia guztiak laburbiltzen dituen lekua da.

Joxe Mari Arregi, Arantzazuko basilikaren aurrean. 'ARANTZAZU' ALDIZKARIA

Ze nabarmenduko zenukete hari buruz, hark egindako lanari buruz eta hark utzitako arrastoari buruz?

Batetik, Arantzazuko Adiskideen Elkartearen bultzagile eta sortzaileetako bat izan zen. Eta hura sortu aurretik ere, haren kezka nagusia izan zen Arantzazu zaintzea; ez bakarrik frantziskotarrek, baizik eta euskal gizarte osoak. Santutegia edo errezatzeko tenplu erlijioso hutsa baino askoz ere gehiago zela. Kezka horren ondorioetako bat izan zen elkartea sortzea.

Gaur egun, zenbat lagunek osatzen duzue elkartea?

800 bazkide inguru gara, Adiskideak, urtean kuota bat ordaintzen dugunak. Arantzazu zaintzea, maitatzea, dinamizatzea, babestea, antolatzea… da zeregina.

Eta bihar, zapatua, omenduko duzue Arantzazu maite duzuenok.

Iñaki Beristaini eskerrak ematea da asmoa, beste handinahirik barik. Omenaldi xumea izango da.

Batetik, haren argazkiak erakutsiko dira; bideo berezi bat ere bai, non agertzen diren, Arantzazun bertan, Beristainek asko maite zituen eta asko egoten zen lekuak. Bestalde, Arantzazuko korua hark zuzentzen zuen eta koruak hainbat kanta abestuko ditu. Mahai-inguru bat ere izango da hura asko ezagutzen zuten hiru pertsonaren eskutik. Berau eta ekitaldi osoa Jose Ramon Belokik gidatuko du. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Enbeita, Jon Sarasua eta Xabier Euzkitze bertsolariak... eta amaitzeko, hamaiketakoa.

HAU BE BADOGU!

Pintaketa faxistak Madrilgo Euskal Etxean

Atzo azaldu ziren pintaketen berri eman zuten kazetari arrasatearrek.

@oihanvito: "Pintaketa faxistez beteta itzartu da Euskal Etxea, presoen euskal herriratzea aldarrikatzeko *@AcercarC* egitasmoa aurkeztuko den egun berean".

@MikelArregiaska: "Pintaketa faxistak agertu dira. Jovellanos kalean dago. Kale motza da, alde batera Hezkuntza ministerioa bestean Kongresua. Poliziak harrapatuko ote ditu egileak?".

Valtonyc eta Willy Toledo hizpide

Rap abeslaria eta aktorea *trending topic* izan dira asteon. Valtonyc mallorcarrak erbestera joan behar izan du kartzela zigorra ekiditeko, Auzitegi Gorenak bere abestietan terrorismoa goratzea egozten diolako, besteak beste. Toledori, bestalde, erlijio-sentimenduak iraintzea egotzi dio Abokatu Kristauen Elkarteak. Sare sozialetan gogor salatu dute horrelako erabakiekin adierazpen askatasunik ez dagoela.

Ezkaba gotorlekuko ihesaldia gogoan

Martitzenean 80 urte bete ziren frankisten eskuetan zegoen Nafarroako Ezkaba gotorlekutik ehunka presok ihes egin zutela:

@1936_na: "Ezkabako Ihesaren 80. urteurrenaren egunean, bi iheslariren gorpuzkiak berreskuratu dira Leranotzen".

@atarrabiakomanu: "Gaur duela 80 urte, duintasuna ihesean zen, Ezkaba gotorlekutik gure oroimeneraino. *#EzkabakoIhesa*".

ITURRI ONETIK

Kontzertu berezia Bergaran, 750. urteurrenerako

Bergarak hiri-gutuna jaso zuela 750 urte direla-eta, ekainaren 29an emanaldi berezia izango da, gauez, San Martin plazan, Bergarako Musika Banda, Orkestra Sinfonikoa eta beste hainbat abesbatzarekin batera. Miguel Gonzalez Bastidaren *San Martzial* izango da izarretako bat, berriki moldatuta eta Maddi Iñarrak hitzak jarrita. Bestetik, herriko kirol taldeen eta kirolarien argazki erakusketa izango da Agorrosinen, lehengo eta oraingo argazkiekin, ekainaren 8tik uztailaren 27ra.

ALBISTE IZAN ZEN

AINTZANE AGIRRE

2005-05-28

Txokolateroen Elkartea sortu zuten Oñatin: Klaxk

"Ohore handienekin" aurkeztu zuten, 2005eko maiatzaren 28an, Klaxk, Oñatiko Txokolateroen Elkartea. 77 kiderekin, hasiera batean. Corpusetako Oñati Txokolatia Bizirik jardunaldien barruan. Lau kontinententatik ekarritako kakaoarekin eta Europako esnearekin Oñatin egindako launa txokolate-ontza janarazi zieten elkarteko kideei. Elkartea sortzeko bi urte behar izan zituztela adierazi zuten bultzagileek.

Marga Garmendia –Enplegu Saileko teknikaria–, Maria Ubarretxena –alkatea– eta Juan Karlos Garitano –Enplegu zinegotzia–. M. ARREGI

GazteLan programa, ekainetik abendura

Astelehenean ireki zen izena emateko epea eta gaur da horretarako azken eguna. 16 eta 30 urte arteko 40 gaztek izango dute programan parte hartzeko aukera. Formakuntza ez da ordainduko eta 2.250 eta 2.500 euro arteko laguntzak izango dituzte gazteek

Xabi Gorostidi ARRASATE

Lanik gabe dauden herriko zein bailarako gazteek aukera interesgarri bat dute euren formakuntza sendotzeko eta lana bilatzeko aukerak handitzeko.

Hiru trebakuntza-lerro

Hazteko eta enplegua sortzeko aukera gehien duten sektoreetan zentratu da GazteLan plana. Aukeraketa prozesu hori Alecop enpresarekin batera egin zuen Udalak eta hiru trebakuntza-lerro hauek aukeratu zituzten: sistema elektromekanikoen muntaia eta konponketa teknikaria, nekazaritzan teknikaria eta elikagai industrian teknikaria. Lehenengo biek 600 orduko iraupena izango dute eta hirugarrenak, aldiz, 500 ordukoa; horietatik 200 ordu enpresetan praktikaldiak izango dira.

Baldintzak

Izena ematen duenak ezinbestez egon beharko du erregistratuta Gazte Bermearen Sistema Nazionaleko fitxategian. Erregistratuta ez dagoenak aste hau izango du hori egiteko, Lanbideko bulegoetan.

Esan bezala, parte-hartzaileek 16 eta 30 urte bitartean izan behar dute eta Arrasaten edo Debagoieneko edozein herritan erroldatuta egon beharko dute –lehentasuna arrasatearrek izango dute–. Gainera, DBHko graduatua edo baliokidea izan beharko dute.

Azkenik, ezinbestean goiz eta arratsaldeko ordutegietarako prestutasuna izan beharko dute interesatuek, formakuntza saioetara zein enpresetako praktiketara joan ahal izateko. Formakuntza %100 aurrez aurrekoa izango da, eta praktikak trebakuntza teorikoa amaitu ondoren edota honekin batera egingo dira; betiere, horren %50 egin ondoren, Arrasateko edota inguruko enpresetan, eta tutore baten gidaritzapean.

GAZTE BERMEAREN SISTEMAN ERREGISTRATUTA EGON BEHARKO DUTE PARTE HARTZAILEEK

Izen ematea

Datuak bete eta BAZen entregatu beharko da formularioa, nortasun agiriaren fotokopiarekin batera. Parte hartuko duten pertsonen hautaketarako kontuan hartuko da, besteak beste, inskripzio ordena. Informazio guztia *gaztelan.arrasate.eus* webgunean dago.

Europako Gizarte Funtsetik

Gazte Enplegurako Plan Operatiboa garatzeko, Europako Gizarte Funtsetik 572.989,28 euroko diru laguntza jaso du Arrasateko Udalak.

Hain zuzen ere, Arrasatekoa izan da EAEn diru laguntza handiena jaso duen Udala; Espainiako Estatuan 124 erakunderen artean bosgarrena.

GORA ETA BEHERA

EKAITZ ROS

Gaizki asfaltatutako bidea San Josepen

Kale horretan asfaltatze lan batzuk egin dira duela aste gutxi. Bertako bizilagunek salatu dute zatar geratzeaz gain, ez dela lurrera ondo egokitu, eta berriz altxatzen ari dela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Garagartzako Lezetxiki elkartea, 50 urte betetzetik gertu

Ekainaren 2an, mende erdi beteko da elkarte gastronomikoa eratu zela, eta hori ospatzeko egitaraua prest dute. 11:30ean, hildako bazkideen aldeko meza egingo dute. Jarraian, haur jolasak eta luntxa egingo dituzte plazan, eta 13:00etan, Onintza Enbeita Eta Aitor Sarriegi bertsotan hasiko dira. Amaitzeko, bazkari ederra egingo dute.

Helduen danborradan aritu nahi dutenentzat badago lekua

Astelehenean, maiatzaren 28an, lehen entsegua egingo dute Gaztelupeko patioan –lehengo San Viator–, eta San Juan jaiak heldu arte leku berean egingo dute hitzordua, astelehenero eta eguaztenero, 20:30etik 21:30era.

Konpainia batzuetan lekua geratzen da; beraz, astelehenean Gaztelupen ager daitezke parte hartu nahi dutenek.

NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

A eta B

A aldea: neska gazte bat amorruz, kezkaz. Ez ote duen jasotzerik ematen duen beste. Enpatia kontua dela. “Gu-txi-e-ne-ko-a”, esan du, silabaz silaba. Ulertzeko horren zaila ote den, biren artekoak merezi duela elkar zaintzea. Ea kidea ez den ohartzen jasotzen duen arretaz, samurtasunaz; ez ote den ohartzen norabide bakarrekoa denaz. Ea eskatu behar dizkion horiek guztiek, erregutan aritzekoa ote den beretzat ia berezkoa dena.

B aldea: emakume helduago bat kezkaz, amorruz. Ez ote duen jasotzerik ematen duen beste. Enpatia kontua dela. "Oinarrizkoa", esan du, arnasa bakarrean. Seme-alabei ulertzeko hain zaila ote zaien. Ea ez ote diren ohartzen jasotzen duten samurtasunaz, arretaz; ez ote diren jabetzen norabide bakarrekoa denaz. Ea berak eskatu behar dituen horiek guztiak, erregutan aritzekoa ote den beretzat ia berezkoa dena.

Elkarri bizkarra ematen dioten bi aurpegi izanda ere, ez ote den antzerakoa alde batean eta bestean entzuten dena. Ez ote dugun gorantz erreproduzitzen albotik datorrenean amorratzen gaituen simetriarik eza. *Pause*. Emakumeak dira biak. *Stop*.

Elkartasuna eta babesa Enrike Letonari

Guardia Zibilak 50 preso ohiren kontra abiatutako 'Zerga' operazioaren barruan, Enrike Letonari bankuko aurrezkiak atzeman eta soldata konfiskatu diote. Horren berri izan eta hurrengo egunean manifestazioa egin zuen Arrasteko Sortuk

Xabi Gorostidi ARRASATE

Zerga izena jarri dio Guardia Zibilak 50 preso ohi baino gehiagoren ondasunen aurka abian jarri duen operazioari. "Terrorismoaren" biktimek jaso gabe dituzten kalte-ordainak ordaintzeko helburuarekin jarri dute martxan, eta, horretarako, preso ohien kontu korronteak, ibilgailuak eta bestelako ondasunak atzematen hasi dira.

Preso ohi horien artean Enrike Letona arrasatearra dago. 1987an izan zen atxilotua, eta, 16 urteko espetxealdia bete ostean, aske geratu zen 2003an. Beraz, kartzelan sartu eta 31 urte ostean heldu da bere ondasunak atzemateko neurri hori.

Enrike Letona. AMAIA TXINTXURRETA

Komunikabideen bidez

Letonak GOIENAri esandakoaren arabera, komunikabideen bitartez jaso zuen operazioaren berri.

"Inor ez da nirekin kontaktuan jarri, ezta nire abokatuarekin ere. Komunikabideen bidez jakin dut honen guztionen berri, eguerdi aldera, autoan irratia entzuten ari nintzela. Handik gutxira, banketxera joan nintzen dirua ateratzera, eta nire kontuan 0 euro zeudela ikusi nuen".

Soldata eta aurrezkiak

Ostegunean, 20:00ak aldera, auto bat jaso zuen Letonaren abokatuak, operazioak nola eragingo zion azaltzen zuena: kontu korronteak enbargatzea, ondasunak izanez gero kentzea eta soldata konfiskatzea. "Bizitzeko minimoa uzten dizute, eta beste guztia kendu", azaldu zuen Letonak.

Manifestazioa barikuan

Operazioa gogor salatzeko eta Enrike Letonari babesa eta elkartasuna adierazteko, ostiralean manifestazioa egin zuen Arrasateko Sortuk. Bukatzerakoan, jasotako elkartasuna eskertu zuen Enrike Letonak. "Elkartasuna gauza ederra da, eta egun hauetan mezu asko heldu zaizkit Arrasatetik eta beste hainbat lekutatik. Espainiako Gobernua iraganera begira dagoen artean, gu aurrera begira gaude. Kalte pertsonalek min egin dute, baina ez dute independentzia lortzeko herri honen gogoa ahulduko".

Eguaztenean manifestazioa egingo du LAB sindikatuak

Maiatzaren 30ean, manifestazioa egingo du LAB sindikatuak Arrasaten. *Estatalizazioa = Prekarizazioa* eta *Hemen lan egin, hemen erabaki* lelopean egingo dute, euskal lan esparru propioa eta erabakiak hartzeko subiranotasuna aldarrikatzeko. Sindikatu abertzalearen manifestazioa Seber Altube plazatik abiatuko da, 12:30ean.

San Juan jaietan postuak jartzeko azken egunak

Maiatzaren 31n amaituko da San Juan jaietan kalez kaleko salmenta postuak jarri ahal izateko dokumentazioa eta ordainagiria aurkezteko epea.

Behin eskaera guztiak batuta, postu horiek esleitzeko zozketa egingo dute, baimena arautzen duen pleguan jasotzen den legez. Informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 25 20 06 zenbakira.

XABI GOROSTIDI

Iragarkiak, berdintasunaren alde

Arrasate BHIko, Arizmendiko eta Lanbide Heziketako ikasleak Arrasate Irratiko mikrofonoaren aurrean jarri dira, matxismoaren aurkako eta berdintasunaren aldeko esloganak grabatzeko. Horren ostean, San Juan jaietan entzun ahal izango dira, txosnetako eta tabernetako bozgorailuetan, abesti eta abesti artean.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaebe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Harrera beroa 'Bideak gurutzatzen' lanari

Arrasateko Kulturateko areto nagusia bete egin zen emakume musulmanen integrazioa helburu duen IMME elkarteak bultzatutako ikus-entzunezkoa ikusteko. Debagoieneko hainbat emakume musulman dira laneko protagonistak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du IMME elkarteak ikus-entzunezkoa egiteko. Iratxe Esnaola eta Itziar Bastarrika dira zuzendariak, eta bertan, Saharatik, Marokotik eta Pakistandik Debagoienera bizitzera etorritako emakumeak dira protagonista. Hainbat gairen artean, Euskal Herrira etortzeko arrazoiak eta hemen integratzeko bizi izandako esperientzia pertsonalak kontatzen dituzte.

Ikram Bouzalmat eta Ouissal Amalal protagonistak txaloka. IMANOL SORIANO

Kulturate, lepo beteta

Orain arte, gutxi landu izan dira errealitate horri buruzko lanak. Ikusmin handia zegoen, eta horren erakusle da Kulturateko areto nagusia goraino bete zela. Aldundiko Berdintasun zuzendari Miren Elgarresta bertan izan zen, eta zera adierazi zuen ikusitakoari buruz: "Emakume hauek nahi dutena pertsona moduan haztea da. Eurentzat zaila da etorkizun hobearen bila hasitako bidea, baina oztopoak gainditzeko erabakia hartua dute, eskatzen digute enpatia handiagoa, euren lekuan jartzea".

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Amaia Aspiazuari ere asko gustatu zitzaion ikusitakoa. "Harritu egin nau zein ondo eginda dagoen ikusteak. Protagonistak ezagutzen ditut, eta asko gustatu zait euren naturaltasuna. Ez dute tremendismora jo, eta, horrela, indartsuago heldu zait euren mezua. Oso emakume gogorrak dira, barne indar handia dutenak".

Autokritikarako baliagarri

Ordezkari politikoez gain, herritarrak eta herriko beste eragile batzuk ere izan ziren dokumentalaren aurkezpenean. Horien artean, Txatxilipurdi elkarteko kideak izan ziren, eta honako balorazio hau egin zuen Andoni Otxandiano hezitzaileak. "Kanpotik hona datozenek dituzten zailtasunak hobeto ezagutzeko balio du. Bertakoen jarrerak lagungarri izan daitezke zailtasun horiek gainditzeko, baina dokumentalean ikusi daiteke askotan gure jarrerek ez dietela beti laguntzen. Oso barneratuta daukagu diskurtso integratzailea, baina, dokumentala ikusi ostean, gure aldetik gehiago egin dezakegula ondoriozta daiteke".

Horma-irudi integratzailea

Maiatzeko ekintzen artean, horma-irudia egin zuten domeka goizean, Kalealdea kaleko aldapan. Joana Manzisidor margolari arrasatearraren *Emakume anitzen* diseinua margotu zuten, jatorri askotariko hamabi emakumeren aurpegiekin.

Jakiak eta tatuajeak

Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna izan zen astelehenean, eta Seber Altube izan zen horren lekuko. Pakistango gozokiak izan ziren –pakora, samosa, rousa...– eta henna tailerra jarri zuten; herritar ugarik geldialdia egin zuen bertan.

Erretiratuen bazkaria Arizmendiarreta plazan egingo dute

Zapatu honetan egingo den bazkaria kiroldegian egin izan da azkenaldian.

Hasiera batean, bertan egin behar zen aurtengoa ere –txarteletan, kiroldegian dela jartzen du–, baina, instalazioak okupatuta daudenez, Arizmendiarreta plazara lekualdatzea adostu dute Udalak eta SUDCek. Asteburu honetan Eskolarteko Kirol Jokoen finalak jokatuko dira kiroldegian, eta horrek eragin du beste bat leku bilatu beharra. Eguraldiak bazkaria ez baldintzatzeko, alokatutako karpa bat jartzea adostu zuten, eta langileak asteazkenean hasi ziren karpa hori egokitzen.

Bestalde, Abaroa elkarteak ekainaren 20rako Kantabriara egun-pasa antolatu du; Castron eta Islan geldialdiak egingo ditu. Izen ematea maiatzaren 28an egin beharko da, 10:30ean, eta 32 euroko kostua izango du.

Bihar, zapatua, egingo dute Beste Bat! eguna, zortzigarrenez

Aurten ere Kataluniako lagunak bisitan etorriko dira, eta elkarrekin ospatuko dute jaiegun borobila

X.G. ARRASATE

Uda giroa nabaritzen hastearekin bat, Beste Bat! taldekoei urteroko jaieguna ospatzea tokatzen zaie. Hala, Beste Bat! egunaren zortzigarren edizioa egingo dute bihar.

Goizetik gauera arte iraungo duen festa antolatu dute, eta askotariko osagaiak izango ditu: futbola, jana, edana, musika eta, nola ez, umore ona.

10:00etan, areto futbol partidua jokatuko dute Zaldibarren; Arrasateko Beste Bat! taldekoak eta St. Pauli Catalunyakoak arituko dira nor baino nor gehiago.

Izerdia bota ostean, poteoa hasiko dute, 13:00etan, Trakatraka elektrotxarangaren laguntzarekin. 15:00etan, talde argazkia aterako dute Seber Altuben, eta, jarraian, bazkariaren txanda izango da. 18:00etan, Taupa tabernako oholtzan kontzertuak hasiko dira. Sindy Berbenas arrasatearrek, Karne Cruda kantabriarrek eta Jolly Roger kataluniarrek joko dute bertan.

"Inoizko gizarterik permisiboena da hau"

IDOIA APAOLAZA PSIKOPEDAGOGOA

Prebentzio Sailak nerabeak dituzten gurasoentzat hiru hitzaldi antolatu ditu. Lehena asteazkenean egin zuen Apaolazak, 'Nerabeak, harremanak, motibazioa' izenekoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gurasoek bizitako nerabezaroaren eta euren seme-alabek bizi dutenaren artean alde handiak daude. Beti izango da adin tarte gatazkatsu samarra, baina horri ahalik eta hobekien aurre egiteko hainbat gako eman zituen Apaolazak eguazteneko hitzaldian.

Noiz hasten eta bukatzen da nerabezaroa?

Nik 13 eta 19 urte artean kokatzen dut. Baina, adibidez, herri baten edo hiri baten bizitzeak adin tartea alda dezake. Hirietan nerabezaroa lehenago hasten da; 11 urterekin has daiteke.

Nerabezaroaren ezaugarrietako bat gurasoen eta seme-alaben arteko inkomunikazioa izan da beti. Gaur egun, sare sozialekin, hori areagotu egin da?

Ez da berdina nerabe izatea, duela 30 urte, duela 10 urte edo gaur egun. Orain, inoiz baino komunikatuago bizi garen arren, ez da kalitatezko edo konfiantzazko komunikaziorik.

Zein da gakoa komunikazio edo harreman hori hobetzeko?

Lehenik eta behin, gurasoen autokontrola aipatuko nuke. Nerabeak etengabean aritzen dira gurasoak desafiatzen, eta formak ez galtzea garrantzitsua da, gure partetik mezu ezkorrik ez helarazteko. Baina, nire ustez, garrantzitsuena negoziaketa da. Inposizioarekin jarrera negatiboak elikatzen dira, orokorrean.

Negoziatzea nerabeari heldutasun puntu bat aitortzeko modu bat da?

Nerabe izatearen pribilegioak erraz hartzen dituzte: jaietan beranduago heltzea, lagunekin kanpora joatea... baina ikastea edo etxeko gauzekin laguntzea bezalako ardurak, ez. Zentzu horretan, bi mutur horien arteko oreka lortzea ahalbidetu dezake negoziaketak.

Egia al da gaur egungo nerabeek inoiz baino errespetu gutxiago diotela autoritateari?

Inoizko gizarterik permisiboena da hau, eta zuk aipatu duzun hori irakasle askok diote. Ohikoa da, gero eta gehiago, gurasoek irakaslea desautorizatzea. Baina hori akats larria izan daiteke. Batez ere, irakaslea desautoritzatzeak guraso horren autoritatea ahuldu dezakeelako. Irakasleek eta gurasoek akatsak egin ditzakete, baina horiek kritikatzeko moduekin kontu handia izan behar da.

Idoia Apaolaza, Kulturaten. XABI GOROSTIDI

Leire Arregi irabazle

San Juan jaietako kartel lehiaketak badu irabazlea: Leire Arregi arrasatearra.

Udaleko Kultura Sailak antolatzen du lehiaketa, eta jaso dituzten hamalau diseinuen artean Leire Arregiren lan hori izan da irabazlea. Herriko ikur diren dragoia eta udaletxea uztartu ditu ilustrazioan, eta sari gisa 750 euroko diru-saria jasoko du.

Ezkerretik hasita, Aitor Zubiaga (Besaide), Naiara Corcuera (Naturtzaindia) eta Goizane Arce (Sustraibarri). X.GOROSTIDI

San Balerio gertuagotik ezagutzeko ekimenak

Arrasatear askorendako ezezaguna den herriko txoko hori txukuntzen dabiltza, eta, Udalaren babesarekin, Besaide Mendizale Elkarteak, Naturtzaindiak eta Sustraibarrik egindakoa erakutsi gura dute; horretarako, mendi irteera egingo dute ekainaren 3an

Xabier Urzelai ARRASATE

San Balerioko inguruak lursail pribatu ziren duela urte gutxira arte. Sustraibarri elkarteak pertsona batzuen integrazio soziala garatzeko proiektu bat abiarazi zuen 2014an, baina proiektua bertan behera geratu zen, eta ondoren, eremu horri beste erabilpen bat emateko ideiarekin hasi ziren lanean Naturtzaindiko eta Besaideko lagunak, Udalarekin elkarlanean. Hala, paraje hori herritarren aisialdirako bideratzea adostu zuten, baina lehenago inguruak txukundu behar ziren.

Eta horretan jardun dute azken hilabeteotan, lehen pinudia zena baso bihurtzen; hala, sarbideak hobetu dituzte, habiak jarri, landaketak egin... "2015ean, bi auzolan egin genituen inguru horretako basoa berreskuratzeko. Otsailean, era askotako 400 zuhaitz baino gehiago landatu genituen. Eta irailean, ur putzu bat egin genuen, anfibioentzako eta ornogabeentzako", azaldu zuen aurkezpenean Naturtzaindiko Naiara Corcuerak.

Egindakoa erakustea

Orain, San Balerion egindako lanak eta inguruak erakusteko, mendi irteera antolatu dute ekainaren 3rako. Ibilbidea 10:00etan hasiko dute, Monterronen, eta Loo baserrirantz abiatuko dira San Kristobaldik. Meatzerrekara heltzerakoan, hango kobazuloari erreferentzia egingo diote. Jarraian, Arrasateko ur-horniketaren %10 bere gain hartzen duen Beneras iturburuan egingo dute geldialdia.

Eta, San Baleriora iritsitakoan, Maider Alcelay ipuin kontalariak *Meatzerrekan Marik bizitakoak* izeneko ipuina kontatuko du: "Bertako mitologiarekin lotutako kondaira bat izango da. Mundu guztiarentzako pentsatutako goiz-pasa izango da, baina haurrekin egiteko bereziki aproposa. Beraz, animatu eta parte hartu!", adierazi du Sutraibarri elkarteko Goizane Arcek.

'Udalatxeko bataioa', etzi

Bestalde, Udalatxera inoiz igo ez diren herritarrei zuzendutako irteera prestatu du Besaidek, oraingo domekarako: "Arrasatearrok Udalatxen magalean jaio eta bizi izan gara beti. Sasoi batean lotura estuagoa geneukan, besteak beste, herriko jarduera ekonomiko nagusia meatzaritza zelako. Orain, apurtxo bat urrinago geratzen zaigu. Jende askok ez du ezagutzen, eta guk horri konponbidea jarri nahi diogu", azaldu du Aitor Zubiagak. Domekan 09:30erako egin dute hitzordua, Monterronen, eta bi ibilbide egongo dira aukeran".

Ointxe Araskiko neskak, ospakizunetan. FEB

Azken segundoko saskiratzeari esker final-erdietan dira neskak

Ointxe Araski taldeko kadeteak sekulako txapelketa egiten dabiltza Huelvan; finalerdiak, gaur, barikua

X.U. ARRASATE

Ointxe Araskik eta Galiziako Celta Zorkak atzo eguerdian jokatutako final-laurdena ez zen bihotz arazoak dituztenendako egokiena izan –Federazioa streaming bidez zuzenean dabil partiduak eskaintzen–.

Final-laurdenetako partidua amaitzeko hamabi segundoren faltan, euskaldunak puntu bat aurretik ziren (50-49) eta galiziarrek hutsartea eskatu zuten. Bost segundo baino ez zituzten behar izan markagailuan aurretik jartzeko (50-51), eta Iñaki Ogararen neskek zazpi segundo baino ez zituzten finaletarako txartela eskuratzeko. Bada, kantxaren eskuinaldetik eraso jokaldia antolatuta, baloia Iratxe Perezek hartu eta zale euskaldunen artera zoramena eraman zuen saskiratzea lortu zuen (52-51), txirrinak partidu amaiera adierazten zuen momentu berean.

Finalerdiak gaur, egubakoitza

Erredakzioa itxi orduko, gainontzeko finalerdiak jokatzeke zeuden. Hala, seguruenik, gaur, egubakoitza, 13:00etan, finalerdia izango dute. Eta zapatuan izango dira finalak.

Hogei urte Garagardo Azoka eta nazioarteko errugbia batzen

Hogei urte beteko ditu ARTk ekainean antolatzen duen Garagardo Jaiak eta Nazioarteko Zazpiko Txapelketak –maiatzaren 31tik ekainaren 2ra arte egongo da karpa zabalik, plazan–.

Zapatua izango da egunik mamitsuena, egun horretan klub zuri-moreak herritar guztientzako herri bazkaria antolatu du-eta karpan bertan –txartelak Basati, Taupa, Itzala, Kajoi eta Okoretegi tabernetan 20 euroren truke–. Aldi berean, Mojategin nazioarteko errugbi jaialdia izango dute, eta, urtero moduan, Euskal Herriko taldeak batuko dira bertan. Ondoren, karpan egingo dute sari banaketa, 21:00etan.

Arrasateko atletak hasi dira aire librean nabarmentzen

Aire libreko denboraldian Arrasateko atletak hasi dira emaitzak batzen. Zapatuan Maialen Axpek 4,30 metroko saltoa egin zuen pertikarekin Anoetan –Estatu mailan lehenengo postua–.

Malen Ruiz de Azuak, berriz, Castellon eskura izan zuen 4,35eko marka; gutxigatik ez zuen lortu eta 4,25eko saltoarekin lehenengo postuan sailkatu zen. Eneko Carrascalek 20 urtez azpikoen mailan, berriz, salto hirukoitzean 15,15eko marka egin zuen –Estatuko bigarren marka onena–. Eta, Realarekin Zaragozan izan ziren Uribarren –hirugarren–, Dapena –hirugarren– eta Jonathan Perez –bosgarren–.

Arrasate Margo Taldeko kideetako batzuk, euren tailerrean. E.A.

Koadroak kalera aterako ditu bihar Margo Taldeak

Arrasate Margo Taldeak urte osoan landutako lan ezberdinak ikusgai eta salgai jarriko ditu bihar –zapatua– Seber Altube plazan, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; taldeko kide diren hamalau margolarik eramango dituzte koadroak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko margolari ezberdinek egindako koadroen azoka bilakatuko da bihar Seber Altube plaza. Izan ere, azken urteetako ohiturari jarraituz, euren lanak ikusgai eta salgai jarriko dituzte Arrasate Margo Taldeko kideek egun osoan. "Urte osoan landu ditugun koadro ezberdinak herritarrei erakustea da asmoa, lan hauek tailerretik herrira aterata. Izan ere, koadro horien atzean lan handia dago. Horregatik, elkarte honetan egiten dugun lana eta taldea bera ezagutarazi gura ditugu", azaldu du Bea Arregik, Arrasate Margo Taldeko idazkariak.

24 bazkide ditu elkarteak, eta horietako hamalauren lanak egongo dira biharko azokan, elkarteko zuzendari Ramon Gonzalezen esanetan. "Margolari bakoitzak bere txokoa izango du, eta txoko horretan nahi beste koadro jar ditzake. Nik, adibidez, hamar lan eramango ditut, baina formatu txikiko lanak dituen bati, gehiago sartuko zaizkio", zehaztu du.

Gaia erabat librea izango da. "Txokoak zozketatu egin ditugu gure artean. Horrekin esan gura dut koadroek ez dutela inongo loturarik edo koherentziarik elkarren artean, nahiz eta elkarren alboan egon", dio.

Mota, estilo eta teknika ezberdinetako koadroak izango dituzte azokan. "Hainbeste jende gaudenez, denetariko estiloak daude. Batzuek figura lantzen dute, beste batzuek abstraktua, beste batzuek paisaia, eta abar. Teknikari dagokionez, olio-pintura, akrilikoa, ikatz-marrazkia, arkatza, akuarela, eta abar ditugu", azpimarratu du elkarteko idazkariak.

ABERATSA IZANGO DA BIHARKO AZOKA, ESTILO ETA TEKNIKA ASKOTARIKO KOADRO UGARIREKIN

Espazio mugatua tailerrean

Arrasate Margo Taldeko kideek adierazi dute ateak zabalik dituztela margo mundua barrutik ezagutu nahi dutenentzat. Hala ere, espazio arazoak aipatu dituzte. “Gustatuko litzaiguke gura duten guztiei probatzeko aukera eskaintzea. Baina tailerrean daukagun lekua mugatua da. Hala ere, gurekin harremanetan jartzeko aholkatzen diegu. Gero moldatuko gara, modu batera edo bestera. Agian, apur bat itxaron beharko dute”.

Gaur egun, sartzeko eskaera bat dute. "Bi urte barru, tailer berrira aldatuko gara, Zerrajerako eraikinera, eta hor 75 metro karratu gehiago edukiko ditugu margotzeko. Hori horrela, ezin diogu inori ezetzik esan, epe laburrean zortzi edo hamar pertsona gehiagorentzako lekua izango dugu eta".

Azkenik, herritarrei dei egin diete biharko azokara gerturatzeko eta "margoaren mundua gertuagotik ezagutzeko".

Ventos de Saudade taldearen fado kontzertua, eguenean

Portugalen gaineko interesgune bat prestatu du Udal Bibliotekak, eta horren baitako emanaldia izango da

E.A. ARRASATE

Pasa den astean zabaldu zuen Arrasateko Udal Bibliotekak Portugal herrialdearen gaineko interesgunea, helduen liburutegian. "Liburuak, komikiak, pelikulak eta diskoak jarri genituen, eta orain, beste mota batzuetako materialarekin hornitu gura dugu", adierazi du Asun Agirianok, Udal Bibliotekako kideak.

Ohikoa izaten da Udal Bibliotekak gai bat hartu eta horren gaineko erakusketa antolatzea, eta oraingoan, Portugal aukeratu dute. "Portugalgo material asko genuen, eta hori aprobetxatu gura izan dugu. Bestalde, oso gertu daukagun herrialde bat da, baina, era berean, ezezaguna da guretzat. Hizkuntza propioa dute, izaera berezia, oso lirikoak dira, eta hori ezagutarazi gura izan dugu. Izan ere, oso gogoko eta kutuna dugun herrialdea da", zehaztu du Agirianok.

Kontzertua

Interesgunearen baitan, fado kontzertua ere antolatu du Udal Bibliotekak. "Arrasate Musikaleko irakasle batek fado talde bat duela bagenekien, eta hari proposatu genion kontzertu bat eskaintzeko. Haiek pozik onartu zuten". Hala, emanaldia maiatzaren 31n, eguena, izango da, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian –sarrera doan da–.

Ventos da Seudade da taldearen izena. Soraluzekoak dira, eta bi gizonek eta bi emakumek osatzen dute: Arianne Unamuno ahotsean, Domentx Uzin gitarra portugaldarrarekin, Jon Basauri gitarra espainiarrarekin eta Ane Ugalde flautarekin. Esan bezala, Portugalgo fado doinuak lantzen dituzte.

Hiru kontzertu epe laburrean

Arrasate Musikalek hiru kontzertu eskainiko ditu maiatz bukaera honetan. Gaur, 18:30ean, Aramaioko kultura etxean, kantuko ikasleek Gala Lirikoa egingo dute. Astelehenean, hilak 28, biolako ikasleen emanaldia izango da Musika Eskolan, 17:30ean. Hilaren 30ean, eguaztena, gitarra ikasleek Kulturaten eskainiko dute kontzertua, 18:30ean hasita.

ARRASATE MUSIKAL

Hiru talde arrasatear ekainaren 1ean Oñatin, Pako tabernan

Datorren egubakoitzean, ekainaren 1ean, Crap, Legez Kanpo eta DJ Motherfucker talde arrasatearrek kontzertua eskainiko dute Oñatiko Pako tabernan.

22:00etan emango zaie hasiera kontzertuei eta sarrera hiru euro ordaindu beharko da.

Hala, rock-and-roll, hardcore eta elektronika doinuak entzun ahal izango dira.

Kaskezur taldea izango da maiatzeko azkena Koolturren

Rock doinuak jorratzen dituen Kaskezur talde baztandarrarekin bukatuko da maiatzeko Kooltur Ostegunak. 2017an Azpisugeak izeneko lana aurkeztu zuen taldeak, eta bereziki goraipatua izan da musikazaleen artean.

Kontzertua maiatzaren 31n izango da, gaztetxean, 22:00etan hasita. Sarrera, betiko moduan, bost euro da.

Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi, kanpaina hasierako solasaldian, eta herritarrak adi entzuten. AIZPEA AJURIAGERRA

Irakurzaletasuna sustatu nahian, ekimena abian

Maiatz erdialdea ezkero dago martxan 'Begixekin leiru, bihotzaz gozatu' kanpaina. Liburutegitik euskarazko lan bat hartu eta itzultzerakoan fitxa bat betetzea da kontua, eta liburu dendan gastatzeko bonuen zozketan sartzea horrela; ekain erdira arte da

Julen Iriondo ARAMAIO

Bigarren urtea da aurten Txirritola Euskara Elkarteak euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina martxan jarri duena. Iaz herritarren partetik jasotako erantzun onaren ostean, aurten berriz ere antolatzea erabaki dute.

Begixekin leiru, bihotzaz gozatu ekimenak bazuen aurrekari bat lehenago ere, helburu bera duen Topagunearen kanpaina. Baina hura Aramaio moduko herri txiki batera ondo egokitzen ez zela-eta, Txirritolak erabaki zuen berea jartzea martxan.

Lehenengo edizioan 45 lagun inguruk hartu zuten parte kanpainan, "kopuru polita", euskara elkarteko Aizpea Ajuriagerraren arabera: "Gehienak umeak izan ziren, eta, egia da, nagusiak gutxiago".

Ekimenaren funtzionamendua ondorengoa da: irakurleak euskarazko lan bat hartu behar du liburutegitik, eta itzultzerakoan fitxa bat bete; bertan, liburuaren gaineko zenbait galdera erantzun behar dira –galdera pare bat erantzun eta marrazki bat egin 10 urte arteko umeen kasuan, eta galdera gehiago nagusiek–. Parte-hartzaile guztien artean, Elkar denda batean gastatzeko 30 euroko hiru bonu zozketatuko dituzte.

Maiatzaren 16an hasi zuen kanpaina Txirritolak, eta, horretarako, gainera, bi gonbidatu berezi ekarri zituen herrira. Ainhoa Agirreazaldegirekin eta Uxue Alberdirekin literatur solasaldia egin zuten parkean, bigarrenaren lan berriena, *Jenisjoplin*, aitzakia hartuta. Agirreazaldegik gidatuta, liburuaren gaineko azalpenak eman zituen Alberdik, zenbait pasarte irakurri eta sortze prozesuaren gaineko zenbait xehetasun partekatzearekin batera. Jendea oso gustura geratu zen.

45 LAGUN INGURUK HARTU ZUTEN PARTE IAZ KANPAINAREN LEHENENGO EDIZIOA IZAN ZEN HARTAN

Solasaldiarekin martxan jarritako ekimena ekainaren 15era arte egongo da martxan, euskarazko irakurzaletasuna eta literatura sustatzearekin batera, euskaraz irakurriko duten irakurle gazte eta heldu berriak erakartzea eta ohiko irakurle euskaldunak saritzea helburu hartuta.

Aukera zabala

Herriko liburutegiko liburuzain Olga Jauregiren arabera, euskarazko liburuak irakurtzeko umetako joera galtzen joaten da urteak pasa ahala, eta helduek gehiago irakurtzen dute gazteleraz. Jauregik animatzen ditu herritarrak "esfortzu txiki bat" egin eta euskaraz irakurtzera: "Helduentzako euskarazko nobedadeak ekartzen ditugu, eta bertan egon ezean egoten da eskatzeko aukera ere".

Itur Zuri eta Alaiak elkarteen irteerak, Pasaiara eta Gasteiza

Itur Zurikoek ibilaldia, bazkaria eta Albaolara bisita egingo dituzte ekainaren 9an. Izena, maiatzaren 31 baino lehen: 685 72 75 38 (Elena) edo 665 73 25 92 (Edurne). Alaiakekoak Gasteiza doaz maiatzaren 31n. Katedrala eta Fournier museoa bisitatuko dituzte. Izena, Laboral Kutxako kontuan 32 euro sartuta –bazkaria barne–, maiatzaren 29rako.

Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egin beharra ohartaraziz, gutunak

Udalak 200 gutun bidali ditu, Jaurlaritzaren datu basean oinarrituta. Gutuneko datuak okerrak izanez gero, jabeak hori erakusten duen dokumentazioa aurkeztu beharko du. Bestela, 50 urtetik gorako eraikinen jabeek ikuskaritzaren agiria aurkeztu behar dute udaletxean ekainaren 27a baino lehen *(arkitektoa@aramaio.eus)*.

Olioa jasotzeko makinaren kontratua luzatu egin du Udalak

Beste urte baterako luzatu du Udalak sukaldeko olioa jasotzeko makinaren kontratua. Bide batez, Udalak gogorarazi du makinak inori potea irensten badio edo inork potea falta badu, udaletxean eskatu daitekeela. Horrekin batera, egiten ez duten herritarrak animatu nahi dituzte olioa birziklatzera: "Ingurumena denon ardura da".

Gasteizen kontra 1-2 galdu du Aramaiok Herriartekoan

Asteburuan jokatu zen Herriarteko Txapelketaren bigarren jardunaldia, hura ere etxean aramaioarrentzat. Multzoko herri indartsuenaren kontra jokatu zuten, eta kadeteetan erraz irabazi zuten, 22-3. Gazte mailan eta nagusietan, berriz, galdu, 16-22 eta 5-22, hurrenez hurren. Ligaxka amaitzeko, Zigoitiaren aurkakoa falta zaie.

Beñat Arregi. BEÑAT ARREGI

"Ez da soilik independentzia bai edo ez erabakitzeko"

BEÑAT ARREGI
GURE ESKU DAGO
Ekainaren 10eko giza katerako, azken ahalegina

J.I. ARAMAIO

Helburua da 250 aramaioarrek parte hartzea.

Ze asmo duzue hemendik ekainaren 10era bitartean?

Barikuetan eta herrian ekintzaren bat izan denean mahaia jarri izan dugu, jendea giza katerako apuntatzeko. Oraingo astean Eguzkierripa Rock izango da, eta barikuan afariak emango ditugu eta giza katerako txartelak saltzeko postua edukiko dugu plazan. Eta zapatuko herri bazkarian ere salduko ditugu, baita barran. Eta azken barikuan ere jarriko dugu mahaia.

Animatu nahiko zenuke jendea giza katera?

Bai. Kataluniarekin gertatu dena ikusita, gure txanda da, ea zerbait ganorazkoa egiten dugun; hiriburuetan eta beste hainbat herritan galdeketa ez da egin oraindik, eta hau bultzada ona izan daiteke. Bestetik, erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena edukiz bete nahi izan dugu oraingoan, ez delako bakarrik independentziari buruz erabakitzea, eguneroko edozein gaitan egin daitezkeelako hobekuntzak herri galdeketa bat eginaz eta herritarrei hitza emanaz. Badaude arrazoi sendoak hori lortu nahi izateko.

Trakamatraka saio didaktikoaren irudi bat. TRAKAMATRAKA

Musikarena izango da datorren astea Aramaion

Astelehenean hasi eta domekara bitartean, egunero izango dira saioak, herriko musikari eta taldeenak bai, baita kanpotik etorritakoenak ere. Musika klasikoarekin batera, bestelakoak ere izango dira; elektronikoa eta bossa nova, esate baterako

Julen Iriondo ARAMAIO

Duo Neubeu bikoaren piano –Iker Amuriza– eta klarinete –Alejandro Quintano– kontzertuarekin hasiko da Musika Astea. Quintano musika irakaslea da eta hainbat talde, orkestra eta bandatan jo du eta jotzen du; Amuriza, bestalde, hainbat sari irabazitakoa da. Bikoak bost urte daramatza elkarrekin, eta musika barrokotik gaur egunekora arteko errepertorioa du.

Martitzenean Alaiak Jubilatuen Elkartearen kantu tailerrekoek saioa egingo dute: aurrena, eguneko zentroan; eta ondoren, Sastiñan. Herritarrekin kantu-jiran aterako dira gero. *Trakamatraka* saio didaktikoaren txanda izango da hurrengo egunean: hainbat objektu berrerabiliz sortutako instrumentuekin tailerra eta kontzertua izango dira.

Hileko azken egunerako programatu dute, bestalde, herriko musika ikasleen emanaldia. Txistu eta alboka ikasleek kalejira egingo dute herrian, eta Sastiñan piano eta gitarra ikasleen saioa izango da gero. Askotariko doinuak joko dituzte.

Bossa nova doinuak entzuteko aukera ere izango da aurtengo Musika Astean, So Danço Balanço taldearen eskutik. Jose Barrio gitarra jolearen taldea da, eta taldeko kide guztiak kontserbatorioko irakasleak dira, kalitate handiko musikariak. Eta Brasilgo doinuekin batera, musika elektronikoa ere bai, Loreak, Galiano eta Pizky taldearekin; house musikari esker, gazteak erakarri nahi dituzte Musika Astera.

Egitaraua ixteko, bi ikus-entzunezko: zapatuan bertan *Once* izeneko filma egongo da ikusgai, *Ikusiz gozatu* ekimenarekin ere bat eginaz; domeka iluntzean, berriz, musikarekin lotutako *Corazones rebeldes* dokumentala ikusteko aukera egongo da. Kantari talde baten eta aurrean duten erronkaren gaineko dokumentala da; *zahartzea* da erronka hori.

Egitaraua

Maiatzak 28
- **18:30** Duo Neuber, Sastiñan.

Maiatzak 29
- **18:00** Alaiak elkartearen saioa, Sastiñan.
- **19:00** Kantu-jira.

Maiatzak 30
- **18:30** *Trakamatraka*, Sastiñan.

Maiatzak 31
- **18:00** Aramaioko ikasleak, Sastiñan.

Ekainak 1
- **20:00** So Danço Balanço, Sastiñan.

Ekainak 2
- **19:00** Loreak, Galiano eta Pizky, Sastiñan.
- **22:00** *Once,* kultura etxean.

Ekainak 3
- **20:00** *Corazones rebeldes,* kultura etxean.

Gorbeialdeko emakumeen topaketa, datorren barikuan

Legutioko kultura etxean izango da. 16:30erako elkartu eta *Volar* filma ikusiko dute, eta solasaldia egingo dute emakume protagonistekin. Laia eskolaren aurkezpena egingo du, gero, Aldundiko ordezkari batek, eta emakumeen eta zahartzearen gainean hitzaldia izango da ondoren. Martxoaren 8ko bideoa ere ikusiko dute, 20:00 aldera.

Garraio zerbitzua egongo da hiru egun lehenago izena emanez gero –945-43 01 67 edo *berdintasuna@gorbeialdea.eus*–. 3 eta 11 urte arteko umeentzat ludoteka ere izango da, 17:00etatik 20:00etara. 3 urtetik beherakoak heldu batekin geratu ahal izango dira.

Arrasate Musikalen kontzertu lirikoa gaur kultura etxean

Kantu eskolako hamabi ikaslek eskainiko dute kontzertua, 18:30ean. Tere Gonzalez da kantu eskolako irakaslea –Izaskun Murgia elkarte lirikoko zuzendaria ere bada–. Gonzalezekin batera, Marta Izagirre eta Eduardo Artzamendi piano jotzaileak izango dira saioan. Emanaldia doan izango den arren, borondatea eskatuko dute; horretarako, kutxak jarriko dituzte sarreran, eta bakoitzak ahal duen moduan laguntzeko eskatuko diote jendeari. Hala, aurrerantzean horrelako ekitaldiak antolatzeko dirua aterako dute. Bi urtean behin egiten da maila handiko kontzertu liriko hau; hirugarren aldia da aurtengoa.

Naia Gartzia, emaitza onak lortzen pilotan eta bizikletarekin

Arabako Eskolartekoan, pilotan, Julen Fernandezekin batera, irabazi egin zuen lehen jardunaldian Legution. Txirrindularitzan, Iurretan izan zuen lasterketa aurreko zapatuan. Durangaldeko taldean ari da, eskolarteko kategorian. Sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu zen, eta nesken artean lehenengo sartu zen helmugan.

Naia Gartzia, mendiko bizikletan. GOIENA

GORA ETA BEHERA

GOIENA

Pintaketa herri sarrerako etxean

Aramaioar batek bidali du argazki hau, Santakurtz plazatxoko etxean egin duten pintaketa salatzeko: "Etxe honen jabeak duela urte bat baino gutxiago konpondu zuen fatxada".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Eraberritze lanetarako partida garrantzitsuak

1.200.000 euroko gerakina du Udalak eta hori zertara bideratu erabaki berri du. Oraindik hilabete inguru pasatu beharko da diru hori erabilgarri izateko; bien bitartean, proiektuak zehaztuta eta lizitaziorako gertu utzi gura dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

"Gerakinetik ia 1.200.000 euro krediduetan txertatu badira ere, argitu behar da, oraingoz, behinbehineko erabakia dela. Tramite guztiak burutzeko hilabete, behintzat, beharko da eta", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak. Proiektuak zehaztuta utzi gura dituzte, gero lizitazioak egiteko.

Proiekturik garrantzitsuena, diru kopuruari dagokionez, zazpiko futbolerako zelai berria da; hori, gainera, eginda dago eta urte bukaerarako gertu izango delakoan daude. Herri barruko errepideak konpontzeko ere partida garrantzitsua onartu dute. 380.000 euro erabiliko dituzte Errekabarren eta Loramendi kaleak berritzeko, eta gainerako dirua lan txikiagoak egiteko izango da. Udaletxeko begiratokia eta Basotxoko taberna berritu egingo dituzte; baita jolas parke batzuk ere: Larrino auzoko, Lausitako eta Txarapeako parkeen lurra berritu egingo dute, eta hondatutako elementuak aldatu.

Beste partida bat ere nabarmendu gura izan du Elkorok: "Nerabeen parte-hartzea bultzatzeko programa jarriko da abian, eta lehen faserako 9.367 euro onartu dira. Diagnostikoa egingo da horrekin".

Diru guztia xahutu ez

Kreditu globalera ere sartu dute dirua, 300.000 euro: " Diru hori izango da sortu litezkeen beharrei aurre egiteko eta zehaztu barik dauden zenbait proiekturi heltzeko", argitu du alkateak.

Era berean, gerakina ez dela osorik erabiliko adierazi du; 500.000 euro inguru gorde egingo dituzte: "Agintaldiko azken urtea izanik ere, ez daukagu diru guztia xahutzeko asmorik; izan ere, proiektu handiak dauzkagu esku artean aurten, eta horiek lana emango dute. Ezinbestekotzat jo dugu hurrengo proiektuetarako poltsa bat izatea".

Datorren astean Irisgarritasun Planaren bigarren fasea abiarazteko asmoa agertu du –115.000 euroko aurrekontua–. Konpontzeko gelditu ziren hainbat zebra-bide egokitu egingo dituzte.

Proiektu garrantzitsuenak

Futbol zelai berriaren planoa. MIRARI ALTUBE

Futbol zelaia Zazpiko futbolean jokatzeko zelaia kiroldegi aurreko berdegunean egingo dute. 400.000 euro bideratu dituzte –100.000 euro UDAk jarriko ditu gero– eta urte bukaerarako prest izango da.

Espaloia egingo duten Errekabarren kale ingurua. M. A.

Errepideak Lehendik gordetako 200.000 eurori, 275.000 euro gehituko dizkiote Errekabarren eta Loramendi kaleak konpontzeko. Asfaltatu egingo dira eta Errekabarrenen espaloia egin ezkerraldean.

Udaletxearen begiratokia. M.A.

Udaletxeko begiratokia Oso egoera eskasean dagoen begiratokia konpontzeko 50.000 euro bideratu dituzte. Bide batez, udaletxearen atzealdea margotu egingo dute.

Basotxo erretiratuen elkarteko taberna. M.A.

Basotxoko taberna Aspaldian inolako berrikuntzarik izan ez duen Basotxoko tabernako instalazioak egokitzeko, pintura lanak egiteko eta argiteria berritzeko 20.000 euro gorde dituzte.

Yeray Alvarezek irabazi du EuskoSkills lehiaketako saria

ALEko ikasle aretxabaletarrak 2018ko Soldadurako eta Galdaragintzako EuskoSkills lehiaketa irabazi du

M.A. ARETXABALETA

Martxoaren 21ean jokatutako soldadurako eta galdaragintzako lehiaketak badu txapelduna: Aretxabaleta Lanbide Eskolako ikasle Yeray Alvarez. Haren atzetik geratu dira Zornotzako eskolako Odei Ruiz eta Bilboko Errekamariko Daniel Martinez. Zazpi ikastetxetako ikasleek hartu zuten parte martxoan, ALEn bertan, egindako lehiaketan, eta epaile lanetan jardun duten Lincoln Electric enpresako kideek erabaki berri dute lan onena aretxabaletarrarena dela.

Alvarezek erdi mailako Soldadura eta Galdaragintza ikasketak egin ditu, eta, orain, goi mailako Metal Eraikuntzak dual metodologiarekin egin ondoren, Ingeniaritza ikasketak hastea da haren erronka.

ALEko kideek nabarmendu dute Soldadura eta Galdaragintza erdi mailako zikloa eskaintzen duen Debagoieneko ikastetxe bakarra dela Aretxabaletakoa.

Yeray Alvarez sariarekin. ALE

'Akabuko martxea' dokumentala emango dute eguenean

Loramendi elkarteak antolatutako Dokumentaldia ekimenaren barruan, Aitor Gisasolak eta Fredi Paiak zuzendutako *Akabuko martxea* emango dute, Urbiatik Bizkaiko Uribe Kostara sasoi baten artzainek artaldeekin egiten zuten transhumantziaren gaineko dokumentala. Maiatzaren 31n izango da, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

Euskal dantzak kalean domekan, umeen eskutik

250 neska-mutiko baino gehiago elkartuko dira, herriko kaleetan, Leizarra musika eskolak antolatutako Haur Dantzarien Egunean; Arrasateko, Oñatiko, Antzuolako eta Soraluzeko dantzariek herrikoekin egingo dute bat emanaldi dotoreak eskaintzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Maiatzeko azken domekarekin batera dator Haur Dantzarien Eguna eta herriko kaleak eta plazak euskal dantzekin beteko dira, beste behin. Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu, Oñatiko Oñatz, Antzuolako Oinarin eta Soraluzeko Urrats dantza taldeetako kideak gerturatuko dira, eta Leizarra musika eskolakoak zain izango dituzte.

Herriko Plazan egingo diete harrera kanpotik datozenei (10:30), eta ondoren (11:45), kalejirari ekingo diote. Hamarretakoarekin (10:45-11:30) indarrak berreskuratuko dituzte, eta ondoren, herriko lau txokotan –Herriko Plazan, Lausitta plazan, Ilargi plazan eta Durana kalean– dantza saioak egin taldeka (11:30-13:15). Etxeetara eta elkarteetara joango dira gero, dantzari zein txistulari, bazkaltzera.

Arratsaldean Herriko Plazan elkartuko dira guztiak, alardea eskaintzeko (17:00). "Hiru mutil dantza egingo ditugu –*Bizkaiko Txakarrankoa*, *Arabar Errioxako Tebi Paloteatua* eta *Gipuzkoako Brokel Dantza*–, hiru neska dantza –*Eltziegoko Arbola*, *Nesken gorularia* eta *Sagar dantza*– eta beste hainbat elkarrekin –*Sorgin dantza*, *Orbaizetako Xuxudantza* eta *Borobilean*…–", dio Mikel Arce irakasleak.

Egun horretarako emandako laguntzagatik, Udala, elkarteak eta gurasoak eskertu gura izan dituzte Leizarrako kideek.

Dantzariak Herriko Plazan dantzan. EKAITZ FILARMENDI

"Harremanak estutzeko eguna izaten da"

MIKEL ARCE DANTZA ETA PERKUSIO IRAKASLEA

M.A.

Gasteiztarra da eta lau urte daramatza Leizarra musika eskolan irakasle.

Dantzarien topaketak garrantzitsuak dira?

Bai, horixe! Umeek beste herri batzuetako dantzariak ezagutzen dituzte, lagunak egin, eta herri horietan zelan dantzatzen duten ikusi... Harremanak sortzea eta sustatzea garrantzitsua da. Eta dantzak kalera ateratzea; kontua ez da ikastea bakarrik, horiek erakustea ere bai.

Osasuntsu daude euskal dantzak Aretxabaletan?

Bai; zortzi talde daude eskolan 4 urtetik hasita, eta gurasoen talde bat ere badago. Ekitaldi askotan hartzen dute parte, gainera: Aratuste bezperan, Otala Zelai egunean…

Mutilak falta dira?

Bai! 120 neska inguru izango dira eta hamaika mutil. Futbolak izugarrizko indarra du eta musika eskola azken aukera izaten da.

Matrikulazio epea zabalik

Astelehenean, hilaren 28an, zabalduko dute matrikulatzeko epea Leizarra musika eskolan. Bertako kideek jakinarazi dute eskaintza zabala dutela: musika tailerrak 5 urtetik hasita; helduendako musika eskolak; kantu eskolak; euskal dantzak; eta instrumentu ezberdinak jotzen ikasteko aukera: pianoa, biolina, trikitia, gitarra, akordeoia, flauta…

Izena emateko, musika eskolako bulegotik pasatu behar da (Arkupeko hirugarren solairua), 15:30etik 19:00etara.

Hainbat upategitako txakolina dastatzeko aukera dago bihar

Txakolin Eguna egingo dute bihar, hirugarrenez, eta zortzi upategitako ordezkariak izango dira Mitarte kalean

M.A. ARETXABALETA

Txakolin usainez eta zaporez beteko da, hirugarren urtez jarraian, Mitarte kalea, bihar, zapatua, eguerdi partean (12:30-15:00). Getariako Txakolina izendapena duten zortzi upategitako ordezkariek euren uztarik onena eroango dute probatzeko. Hona hemen upategiak: Sagarmiña, Hiruzta, Mokoroa, Gañeta, Akarregi Txiki, Basalore, Agerre eta Txomin Etxaniz. Kopa erosi–5 euro– eta bost txakolin dastatzeko aukera izango dute herritarrek.

Edatekoaz gain, jatekoa eskainiko dute herriko hainbat ekoizlek; Mendibitzu eta Etxe-Zuri baserrietako kideek, esaterako, gazta eroango dute eta Galartzako Alberdik, hanburgesak.

Dantza emanaldiak

Dastaketa horrek bat egingo du, Mitarte kalean, Jaiki elkarteak antolatutako Dantza Asteko ekitaldiekin. Hala, Bergarako musika eta dantza eskolako ikasleen emanaldia izango da, 13:30ean, eta *Jam-Ñam* ikuskizuna, 14:30ean.

GORA ETA BEHERA

M.A.

Lorategian egindako parkea, utzita

Pausoka haur eskola alboko lorategia umeen jolas-gune bihurtu zuten orain dela lau bat urte. Erabiltzaile batzuek diote azken bi urteotan ez dela batere mantentze-lanik egin eta oso utzita dagoela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Euskal pilotaren ate irekien jardunaldia egingo dute bihar

Euskal pilota ezagutzera emateko, ate irekien jardunaldia egingo dute bihar, maiatzak 26, Iturrigorri pilotalekuan, 10:00etatik 12:00etara. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatu du eta 6 eta 12 urte arteko gaztetxoak gonbidatu ditu pilotarekin jolasean jardun, jokamolde ezberdinak ezagutu eta partidu laburrak jokatzeko.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Iazko kirol udalekuetan, gaztetxoak Ibarra kiroldegi aurrean jolasean. IÑIGO MURGIONDO

Kirol udalekuetan izena emateko azken txanpa

Aretxabaletako Ibarra kiroldegian egingo diren kirol udalekuak uztailaren 2tik 20ra bitartean izango dira, eta LH-5 eta DBH-4 artean dauden ikasleei zuzenduta egongo dira. Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 21a izango da

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak eta Athlonek sustatuta, Aretxabaletako Ibarra kiroldegian uztailaren 2tik 20ra bitartean kirol udalekuak eskainiko dituzte, LH-5 eta DBH-4 artean dauden ikasleei zuzenduta. Astelehenetik egubakoitzera izango dira, eta izenematea maiatzaren 31n amaituko da.

Udaleku horien helburua kirola eta ariketa fisikoa praktikatuz gaztetxoek aisialdiaz gozatzea da, ez udalekuetan bakarrik; hain zuzen, gaztetxo horiek ahalduntzea beraien aisialdi denboran ariketa fisikoa edo kirola praktikatzeko hautua egiteko. Gainera, Iñigo Murgiondo Ibarra kiroldegiko koordinatzailearen esanetan: "Ikasturtean zehar praktikatu ohi ez dituzten kirol diziplina eta modalitateetan trebatzen saiatzen gara. Horrela, beraien jakintza eta trebeziak garatzen dituzte, eta, bide batez, jartzen ditugu nagusiagoak direnerako gehien gustatzen zaiena zein den jakiteko hautaketa egiteko aukera zabalagoan".

Kirol aukerak

Aurten, kirola txoko ezberdinetara eraman nahi dute antolatzaileek; hala, *floorball-a,* boleibola, mendi irteera, ur jolasak, orientazioa, mendiko bizikleta eta halakoak izango dituzte, besteak beste.

"Iaz, hogei gaztetxo izan genituen. Aurten, oraingoz, zazpik eman dute izena, baina esperantza dugu hemendik eta hilaren 31ra bitartean gaztetxo gehiago animatuko direla". Hala, izena eman nahi duenarentzat, honako hau izango da ordutegia: astelehenetik eguenera, 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara bitartean izango da; eta egubakoitzetan, aldiz, 09:30etik 13:30era bitartean. Prezioa 75 euro da.

KIROL UDALEKUETAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA, MAIATZAREN 31A IZANGO DA

Igeriketa ikastaroa

Udalekuez gain, igeriketa ikastaro trinkoak ere eskainiko dituzte, 5 eta 9 urte bitartekoentzat, alde batetik, eta 10 eta 14 urte bitartekoentzat, bestetik. Horiek bi txandatan banatuko dituzte: uztailaren 2tik 13ra eta 9tik 20ra 09:00etatik 10:00etara izango dira saioak. Guztira, hamabi plaza izango dira, eta izena emateko azken eguna ekainaren 20a izango da.

'Nordic walking' ikastaroa

Igeriketaz gain, uztailaren 2tik 20ra bitartean, *nordic walking* ikastaroa izango da martitzenetan eta eguenetan. Hamabost plaza daude soilik, eta izena emateko azken eguna ekainaren 20a izango da; abonatuentzat doan izango da.

Iaz, *Geroa sortuz* futbol campusean. UDA ARETXABALETA

Dena prest dago 'Geroa sortuz' udako futbol campuserako

Futbolaz gain, ingelesa, adimen emozionala, aisialdia eta jarduera bereziak lantzeko aukera izango da

I.B ARETXABALETA

Aurten, zortzi urte beteko ditu UDAk antolatutako *Geroa sortuz* udako futbol campusak, eta, urtero moduan, bi txanda ezberdin izango dira: uztailaren 2tik 6ra, eta uztailaren 9tik 13ra bitartean, hain zuzen.

2005etik 2009ra bitartean jaiotako neska-mutilentzat zuzenduta dago ekimena, eta, futbol entrenamenduez gain, hainbat ekintza eta gai jorratuko dituzte bertaratzen direnek. Horrez gain, Zubietako eta Anoetako instalazioak bisitatuko dituzte eta Realeko jokalariekin egoteko aukera izango dute, besteak beste.

Izena emateko azken eguna

Izena emateko azken eguna maiatzaren 31 da. Horretarako, *udaretxabaleta.eus* webguneko formularioa bete eta *geroasortuz@gmail.com* posta elektronikora bidali behar da. Txanda bakoitzean 60 haurrentzako lekua dago; izen emate ordena errespetatuko da kupoa betetzeko. Bestalde, ekainean bilera informatiboa egingo dute, izena eman dutenei campusaren nondik norakoak azaltzeko.

Ointxe! saskibaloi klubak 'Saskifest' festa antolatu du

Aretxabaletan izango da 'Saskifest' kaleko saskibaloi festa, maiatzaren 30ean eta ekainaren 2an

I.B ARETXABALETA

Ointxe! saskibaloi klubak antolatuta, eta Aretxabaletako Udalak babestuta, maiatzaren 30ean, 18:00etatik aurrera entrenamendu saioa izango da herriko plazan, Ointxeko *Arri* entrenatzailearen eskutik. Lehenengo, emakumezko kadeteen entrenamendua izango da, 18:00etatik 19:00etara bitartean, eta gero saio irekiak izango dira, edonork parte hartu ahal izango duena.

Entrenamendu saioez gain, ekainaren 2erako, egitarau zabala prestatu dute, eta, egun osoz, musikarik eta saskibaloirik ez da faltako. 09:30etatik 11:30etara, saskibaloi jaurtiketa erakustaldi irekia izango da, Eneko Matak zuzenduta. 17:00etatik 19:00etara bitartean, *Kirolez Busti* ekimenaren barruan, hiruko txapelketa izango da. 19:00etan, aldiz, indarrak hartzeko, pintxo dastaketa izango da, eta bertan, txahala erreko da. 19:30ean, lagunarteko saskibaloi partidua jokatuko dute Ointxek eta Araskik . Amaitzeko, berriz, 21:00etan, *Ointxe! familia argazki erraldoia* aterako dute.

Iaz, Eskoriatza Kirol Elkartearen Egunean egindako jolasetan, sokatiran. GOIENA

Kirol elkartearen eguna, askotariko ekintzaz josia

Urteroko egitarauari jarraituz, Eskoriatza Kirol Elkartea herrira zabaltzeko asmoz antolatutako jaian, jolasak, hitzaldiak, eta abar izango dira. Horrez gain, Eskoriatza futbol taldea existitzen zen garaiko Gregorio Palaciosek aitortza jasoko du, 20:00etan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hamahirugarren urtez ospatuko da Eskoriatza Kirol Elkartearen eguna, zapatu honetan. Horretarako, urtero-urtero bezala, egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek, eta, kirola eta elkartea bera herrira zabaltzeko asmoz antolatutako jaian, elkarteko arduradun, entrenatzaile, jokalari zein gurasoek askotariko ekintzekin gozatzeko aukera izango dute.

Eskoriatza Kirol Elkarteko presidente Jabi Corbalek adierazi duenez, urteroko egitarauarekin jarraitu nahi izan dute, berrikuntza batzuk gehituz: "Urteroko ekintzak izango ditugu, Fernando Eskoriatza plazan egingo direnak gehienak. Horrez gain, 17:30ean, Euskal Kopako finala jokatuko du Manuel Muñoz kiroldegian Eskoriatzako gazte mailako areto futboleko taldeak Gora Bilbao Red Blue taldearen aurka. Gainera, Alvaro Gonzalezen hitzaldiak izango ditugu, eta formakuntza ederra izango dela aurreikusten dugu…".

Alvaro Gonzalezen formakuntza

Nazioarteko areto futbol entrenatzaileen elkarteko (ANEFS) Alvaro Gonzalezek, neuropsikologian eta kirol *coach*-ean espezializatutako psikologoak, hainbat hitzaldi eskainiko ditu, bereziki, areto futboleko jokalariei zuzenduta. Hain zuzen ere, gaur, egubakoitza, 19:45ean, *Pautas psicológicas para crear un equipo*, Ibarraundin. Bihar, berriz, 11:00etan, kultura etxean, *Pautas para educar a un deportista*; 12:00etan, plazan, *Los valores en el deporte;* eta 16:00etan, plazan, *Talleres experienciales con jugador@s, para trabajar distintos aspectos psicológicos*.

Paella ederra bazkaltzeko

Herri bazkaria plazan izango da, eta, eguraldia lagun, jende asko izango dela aurreikusten dute: "180 txartel inguru saldu ditugu paella-janerako, eta izango dira azken unean erosiko dituztenak, ea ezusteko handirik ez daukagun…", adierazi du Corbalek.

Aitortza Gregorio Palaciosi

Eskoriatza futbol taldea zegoen garaiko Gregorio Palacios entrenatzaileak aitortza jasoko du herriko plazan, 20:00etan.

Garai hartan Eskoriatza taldeko futbol jokalari izandakoek oroigarria emango diote futbol entrenatzaile ohiari, elkartearengatik egindako lan guztia aitortzeko asmoz.

Kirol elkartearen egitaraua

Herriko plazan

- **10:00-12:00** LEK - Gymkathlon Herri Kirolak, Luis Ezeizan.
- **10:00-13:00** Infantil mailako saskibaloiko eskolarteko finalak, kiroldegian.
- **10:30-12:00** LEK-Gynkana jolasak.
- **11:00** Alvaro Gonzalez kirol psikologoaren hitzaldia, kultura etxean.
- **12:15** LEK-Zumba erakustaldia.
- **12:30** LEK-eko opari banaketa.
- **12:45** Alvaro Gonzalez kirol psikologoaren hitzaldia.
- **14:30** Herri bazkaria, paella erraldoia.
- **15:30** Kirol tailerrak.
- **18:00** Eslalomeko sari banaketa.
- **18:30** Gurasoentzako eta umeentzako saskibaloi txapelketa.
- **19:00** Musika.
- **19:15** Txuleta-jana; parrilan erretakoak.
- **21:30** Super Esko Loteren zozketa.
- **23:59** Jai bukaerako txupina.

Ura oinarri, iradokizunak, eskaerak eta konpromisoak

Agenda 21 proiektuaren barruan, aurten, ura landu dute herriko ikastetxeetako haurrek

I.B ESKORIATZA

Aurten, Eskola Agenda 21 programaren baitan, Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek ura landu dute. Otsailetik maiatzera arte uraren inguruan egin duten lan, eta azterketa horretako ondorioak erakutsi eta hobetzeko zenbait proposamen egitera joan ziren udalbatzara.

Hala, mailaz maila, honako hauek batu zituzten: liburutegian, ludotekan eta kultur etxean ura aurrezteko gailuak jartzea, gaizki dauden iturburuak konpontzea eta ingurua zaintzea, Iturburu bakoitzean uraren informazioa egotea eta errekak ez zikintzeko zakarrontzi gehiago jartzea, besteak beste.

Azterketan batutako guztiekin, proposamen hauek egin zizkieten herriko eskoletako ordezkariek udalbatzako kideei: etorkizunean legea betearaztea hormak egin behar direnean, landaretza irtetea onartzen dutenak izan daitezela, harrizkoak, Udalak lurralde antolamendua egiten duenean erreka kontuan hartzea eta lurra zigilatzen ez duten zoruak ipintzea… Ostean, ikasleek adierazi zuten konpromiso batzuk hartuko dituztela: ura aurrezten saiatuko direla, errekak garbitzeko konpromisoa hartuko dutela eta hondakinak behar den tokira botako dituztela, besteak beste.

Eskoriatzako ikastetxeetako haurrak, udalbatzan, udal ordezkariekin. I.B

Horren harira, Joserra Zubizarreta alkateak honela erantzun zien: "Gure esku daudenak betetzen saiatuko gara; hala ere, gutariko bakoitzak gutxiago zikintzen saiatu behar du, errekak garbiago izateko…".

Martxan dago San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa

Hemeretzigarren urtez egingo den San Pedro jaietako esaldi lehiaketa berritasunekin dator. Izan ere, Euskaraldia ekimenarekin uztartuta, sari berezia egongo da. Parte hartzeko, esaldiak kultura etxeko, liburutegiko eta ikastetxeetako buzoietan utzi, Whatsappez 636 78 59 71 zenbakira edo *euskara@eskoriatza.eus* helbidera bidali beharko dira. Hauek izango dira sariak: irabazle nagusia, jaietako leloa izango dena (100 euro); Euskaraldiaren saria Euskaraldiaren oinarriak zabaltzen lagunduko duen esaldi onenak irabaziko du (100 euro); eta pegatinetarako esaldiak (50 euro esaldi bakoitza).

Aurtengo Gabez Takarraran gaueko lasterketaren aurkezpenean batutakoak. JOSU BILBAO

Gabez Takarraran berrikuntzekin dator

23:00etan hasiko den gaueko lasterketaz gain, martxa egiteko aukera izango da, 21:00etan. GPS bidezko lokalizazio sistema eramango dute parte-hartzaileek, segurtasun neurri moduan, eta Euskal Herriko Koparako puntuagarria izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabez Takarraran Eskoriatzako gaueko mendi lasterketa ekainaren 9an izango da. Xarma berezia duen lasterketa izan ohi da korrikalari askorentzat, eta aurtengoa, zortzigarren edizioa, hainbat berritasunekin dator, eguaztenean egin zuten aurkezpenean lasterketako antolatzaileek eta udal ordezkariek azaldu zuten moduan.

Lehen aldiz, Euskal Herriko Koparako puntuagarria izango da Gabez Takarraran lasterketa. Aurten 23:00etan hasiko den helduen lasterketaz gain, ibilaldia oinez egiteko aukera ere jarri dute antolatzaileek. Hala, oinezkoek aukera izango dute Eskoriatzako inguruneaz, gauez, gozatzeko eta, bide batez, ibilbide guztia jendez betetzeko. Oinez egin gura dutenak 21:00etan hasiko dira, eta helduen ibilbide bera egingo dute. 18 urte azpikoetan, berriz, ez da martxarik egingo. Honela adierazi du Iñaki Uribetxeberriak, Gabez Takarraran lasterketako antolatzaileetako batek: "Ikusten genuen herriko jende asko animatzen zela lasterketan parte hartzera, eta lasterketa ikustera ere jende asko mugitzen da mendi ingurura... Hala, aurten, oinezko martxa antolatzea pentsatu genuen, lasterketa baino bi ordu lehenago hasita, korrikalariekin batera bidean batu eta giroa handitzeko asmoz".

Segurtasuna bermatze aldera

Azkenik, aurtengo beste berrikuntzetako bat da parte-hartzaileek GPS bidezko lokalizazioko sistema bat eramango dutela. Gailu txiki bat emango zaie korrikalariei, eta, txiparen ordez, denborak ere horrela jasoko ditu antolakuntzak. "Lasterketa gauez da, eta horrek errespetu handia ematen dio jendeari; orain arte, kronometrajea txip bidez egin dugu, baina aurten, GPS bidez; edozeinek korrikalari bakoitzaren jarraipena egin ahal izango du Internet bidez".

EKAINAREN 9AN IZANGO DA ESKORIATZAKO GABEZ TAKARRARAN LASTERKETA

Urteroko ibilbidea

Lasterketak urteroko ezaugarriak izango ditu: 23:00etan hasiko da, eta 1.200 metroko desnibel positiboa eta 1.200 metroko desnibel negatiboa izango du. 18 urtetik beherako kategoriakoek bederatzi kilometroko bidea egin beharko dute itzulia amaitzeko eta 18 urtetik gorakoek, berriz, 23,2 kilometrokoa. Hain zuzen, lasterketaren puntu gorena 980 metro da.

Zirkulazioagatik, moldaketak

GI-627 errepideko saihesbideko lanak direla eta, lasterketak herri barnean zirkulazio moldaketaren bat eragingo duela nabarmendu dute antolatzaileek.

GED Eskoriatzakoak herriko plazan, mahai informatiboan. GED ESKORIATZA

Eskoriatzatik Ondategira, ekainaren 10eko giza katera

Oraindik aukera dago Inkernu tabernan eta Goxo Txikin giza katera joateko autobuserako txartelak erosteko

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzarra, Ondategin (Araba), 186. kilometroan, egongo dira ekainaren 10ean izango den giza katean. Dagoeneko 200 dira saretuak, eta EAJ eta EH Bildu alderdiek ere parte hartzera deitu dituzte eskoriatzarrak ekimenarekin bat eginez.

Autobusean joan nahi dutenentzat, txartelak salgai daude Inkernu tabernan eta Goxo Txikin, ekainaren 2ra arte. Egun horretan, Ferixa eguna izango da Eskoriatzan, eta ekintza berezi bat antolatuko du arratsalderako GED Eskoriatza plataformak. Helduek zazpi euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtetik beherako haurrek, berriz, bost euro. Gainera, egun osoz edo egun erdiz joateko aukera izango da, kontuan izanda giza katea Gasteizen bukatuko dela eta egun osoko egitaraua egongo dela bertan.

Eguenero, herriko plazan

Eguenetan 18:30etik 20:00etara mahai informatiboak izaten dira herriko plazan, eta bertan, saretzeko aukera dago, bost euro ordainduta; zapi bat emango zaio pertsona bakoitzari.



ARIZMENDI

Euskadikoan, hiru zilarrezko

Pasa den domekan, gimnasia erritmikoko Euskadiko txapelketa jokatu zen Leioako Sakoneta kiroldegian, eta Nahia Arguiz eskoriatzarrak zilarrezko hiru domina lortu zituen, hiru modalitate ezberdinetan; mazoekin, pilotaren ariketan eta taldekako sailkapen orokorrean. Hala, Espainiako txapelketarako txartela lortu du emaitza bikainekin.

Tortolis-ekoek zirkua eskainiko diete egoiliarrei

Tortolis ludotekako haurrek zirkua eskainiko dute gaur, Jose Arana zaharren egoitzan, 18:00etan. Hainbat hilabetez prestatzen aritu diren proiektuari amaiera emateko saioa izango da, eta, guztira, 35 haurrek hartuko dute parte ikuskizunean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Tortolis ludoteka buru-belarri aritu da aurten Tortolis Zirkua izeneko proiektuarekin. Hainbat entsegu egin dituzte hilabeteetan zehar, eta gaur, Jose Arana zaharren egoitzan emango diote amaiera proiektuari, egoiliarrei eskainiko dieten emanaldiarekin.

18:00etan hasiko da saioa, eta, egoiliarrendako egingo duten saioa izan arren, herritar guztiei zabalik egongo den ikuskizuna izango da. Hala ere, bertara joateko, gonbidapena jaso beharko da ludotekan.

Tortolis ludotekako haurrak zirkua prestatzen aritu dira aste honetan. NEKANE ATXAGA

Gogotsu hartutako ekimena

Nekane Atxaga, Asier de la Flor eta Maialen Lete Tortolis ludotekako begiraleek adierazi dutenez, haurrek pozik hartu dute zirkua egitearen proiektua; izan ere, eurek proposatuta ekin zioten bideari: "Badira hilabete batzuk proiektu hau proposatu zigutela, eta bi aldiz pentsatu gabe aurrera egitea erabaki genuen. Honen harira, ludotekako proiektua herriko eragile batekin partekatzea erabaki zen, eta zaharren egoitzarekin batera elkarlanean egitea adostu zen, azkenean, haur zein nagusientzat aberasgarria izango zela pentsatuz. Zirkuari begira, marrazkiak, zirkuan jarriko den dekoratua eta apaingarriak egiten ibili dira gaztetxoak azken hilabeteetan. Guztiak, oso gogotsu".

Fruituak emateko saioa

Akrobatak, malabaristak, dantzariak, ekilibristak, pailazoak, trapezistak, break dance dantzariak, palomita saltzaileak... egongo dira gaurko saioan, baina, egongo dena baino gehiago, azpimarratzekoena aurretik egin duten lana izan dela adierazi dute ludotekakoek: "Taldekatzeak, rol banaketak, pertsonaia bakoitzaren eginbehar zein pausoak eta janzkerak erabaki dituzte; horrek dakartzan zailtasunekin. Horren harira, aipatu behar da haurrek momentu oro jarri duten desira eta parte hartze maila benetan txalotzekoa izan dela. Horren adibide da, guztira, 35 haurrek egingo dutela zirkua".

Gonbidapena herritarrei

Ludotekakoek ikusle asko espero dituzte. Izan ere, Jose Aranako egoiliarrez gain, haurren guraso, lagun eta familiakoak izango dira bertan.

Foru Aldundikoak, Gatz Museoaren aurrean azalpenak entzuten. IMANOL BELOKI

Foru Aldundiko ordezkariak bisitan izan dira Leintz Gatzagan

Herrian lagundu dituzten proiektuak ikusi eta egiteko daudenak ezagutzen izan dira alkatearen gidaritzapean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Landa Gipuzkoa proiektuaren baitan, Foru Aldundiko ordezkarien bisita jaso zuten atzo Gatzagan. Juanito Bengoak, Gatzagako alkateak, egin zien harrera Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Orekako diputatu Ainhoa Aizpururi eta Lurralde Orekako zuzendari Iñaki Labakari.

Gipuzkoako Foru Aldundia, lurralde oreka zuzendaritzaren barruan, Gipuzkoako herri txikiak bisitatzen ari da. Helburua da Aldundiak lagunduta herrian egin diren proiektuak bertatik bertara ezagutzea, eta dituzten beharren eta etorkizunean egiteko dauden proiektuen berri jasotzea.

Nabarmentzeko bi proiektu

Leintz Gatzagako udal arduradunek bereziki egiteko dauden bi proiektu nabarmendu eta erakutsi gura izan zizkieten foru ordezkariei. Lehena, Arlabanen, Araba eta Gipuzkoa lotzen dituen zatian egiteke dagoen bidegorri zati bat.

Arazoak sortzen dituen eta hobetu beharrekoa den beste gune bat autobus geltokiarena da. Hala, gunea bera ezagutzen ere izan ziren. Honela adierazi zuen Ainhoa Aizpuruk: "Autobus geltokia errepide ondoan dago, umeak daude, eta gunea ikusten izan gara. Bestalde, herritarrei mesede handia egin dien aparkalekua ere ikusi dugu".

Gatz Museora bisita

Bisita bukatzeko, Gatz Museoa bisitatu zuten Foru Aldundiko kideek. Ainhoa Aizpuru diputatuak herri txikietan aktibitate ekonomikoa sortzearen garrantzia azpimarratu zuen, eta herriei bizia emateko gakoa direla nabarmendu.

Hankamotx bertso eskolaren kurtso amaierako emanaldia

Ikasturtean zehar bertso eskolan ibili diren gaztetxoek egingo dute bertsotan, Zaldibar antzokian, 19:00etan

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta ondoren, bertsosaioa izango da.

Ikasturte honetan ikasi eta landu dutena praktikan jartzeko eta, bide batez, herritarrei zer egiten dakiten erakusteko asmoz igoko dira taula gainera Hankamotx bertso eskolako gaztetxoak.

Ekitaldia amaitzeko, bertso saioa

Gaztetxoen bertsoen ondoren, Hankamotx bertso-eskolako Oihana eta Haizea Arana irakasleek Maddalen Ruesgas berangoztarrarekin eta Andoni Mujika urnietarrarekin batera bertso saioa eskainiko dute.

Oihana Aranak Lasturren jokatutako Gipuzkoako eskolarteko txapelketa irabazi zuen apirilean, eta ekainaren 9an Saran (Lapurdi) jokatuko den Euskal Herriko txapelketan parte hartuko du.

'Oxigenoa Euskarari' lelopean mendi ibilaldi bateratua

Astebukaera honetan, Barrundiako (Araba) ume zein guraso batzuen bisita jasoko dute gatzagarrek. Euskararen erabilera bultzatu eta aisialdian, zein lagunartean normaltasun osoz erabiltzeko asmoz, txangoa antolatu dute, *Oxigenoa Euskarari* lelopean.

Zapatuan, Landatik Gatzagarainoko mendi ibilaldi bateratua egingo dute barrundiatarrek, gatzagarrekin batera, 10:00etan hasita, eta 14:00ak aldera iritsiko dira herrira.

16:00etatik 18:30etara bitartean, ginkana egingo dute gatzagako plazan, eta honako probak izango dituzte: slack line, orientazio froga eta boulder froga. 20:30ean, berriz, afaria egingo dute frontoian, eta 22:00etan, mendi proiekzioa izango dute. Domekan, aldiz, gaztz museoa bisitatuko dute, eta Landara itzulera 12:00ak aldera egingo dute.

Txupinari aritu ziren Miguel Altuna Lanbide Heziketakoak Bitorianatxorekin.

Gatiburen kontzertuak aspaldiko jendetzarik handiena erakarri zuen.

Gatiburen kontzertuan herritar batzuek protesta egin zuten.

Iazko jaietatik aurtengoetara jaiotako bergararrek familia argazkia atera zuten Reusko erraldoiekin batera.

Kuadrillen jolasetan giro ederra izan zen.

Umore Ona elkartekoak izan ziren bakailao lehiaketako irabazleak.

Gozatzekoak, eta bereziki jendetsuak

Egubakoitzetik martitzenera artekoak errutina apurtzeko eta intentsitatez bizitzeko egunak izan dira bergararrendako; eguraldiak asko lagundu du, eta, aurreikusitako ekintza guztiak gauzatzeaz gain, oso jendetsuak izan dira festetako ia egun guztiak

Jokin Bereziartua BERGARA

Amaitu dira aurten bereziki jendetsuak izan diren Pentekosteak. Egubakoitzetik martitzenera artekoak intentsitate handiko egunak izan ziren, eta, eguraldi lagun, egitarauan aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu dira. Aldaketa aipagarrienen artean kokatu behar da ekaitz arriskuagatik Pazko asteleheneko herri bazkaria Seminarioko karpan egin behar izan zutela, San Martin plazan egin beharrean. "Oso jendetsuak izan dira, gozatzeko jaiak. Ekintza asko eta askotarikoak izan dira; oso ondo joan dira", dio Elena Lete alkateak.

Oso bergararrak izan diren jaiak

Jaien antolaketan herriko elkarte gehienak eta hainbat norbanako inplikatu dira aurten eta jaietako ekitaldietan bergararrek protagonismo berezia izan dute, Leteren arabera. "Erraldoi taldeak zapatuan eskaini zigun eguna zoragarria izan zen; Beart-en zein San Joxepe erretiratuen elkartearen ekarpenik ez da falta izan; goitibeheren eta gimnasia erritmiko taldeen erakustaldiak; Bergarako Zezenak taldearen lanaz egunero gozatu dugu eta atzo [martitzena] abeltzainen elkartearen idi-probak izan genituen; musika arloan, Goikorock-eko talde baten kontzertu ederra izan genuen kalean, Aukeran dantza taldearen emanaldi oso polita... Jaiotako aipagarriena bergararren parte hartzea izan da, eta emaitza ederra eman du".

Gatiburen kontzertua, jendetsuena

Jende gehien erakarri zuen ekitaldia zapatu gaueko Gatibu taldearen kontzertua izan zen, zalantza barik. "Uste dut inoiz ez dugula horrenbeste jende ikusi San Martin plazan. Azken urteetan ez dugu kanpotik etorritako horrenbeste jende ikusi; umeen eta gaztetxoen artean egindako inkestetan Gatibu zen eskaera nagusia, zalantzarik gabe. Esfortzu ekonomikoak merezi izan zuen". 21.000 euro –BEZa barne– kostatu izanak zeresana eman du herrian; eztabaidak eztabaida, adin guztietako jendea erakarri zuen talde bizkaitarraren kontzertuak, plazako txosnetan lanean aritu zirenak eskaerei ezin erantzun ibili ziren, inguruko tabernetan ogitartekoendako ogia agortu egin zen eta egon zen kontzertua udaletxe ondoko edukiontzien gainetik ikusi zuenik ere.

Eztabaida pankarten harira

Bestalde, Udal Gobernuaren aginduz udaltzainek eta udal langileek herrian zeuden pankarta guztiak kendu izanak polemika eragin du. Gobernuak dio baimenik ez eskatzeagatik kendu zituztela; eragileen artean, Xaxauk dio ordenantzako eskaerak ondo iruditzen ez zaizkielako erabaki zutela pankartak eurek erabakitako lekuan eta leloekin jartzea. Txosnaguneko pankarten harira, baina, Xaxauk eta gobernuak baieztatu dute jaien aurretik hitzarmen bat sinatu zela Bideberrietako pankartak ez kentzeko, iraingarriak ez baziren, eta horren aurrean gobernuak azaldu du "akats bat" bat izan zela. Gatiburen kontzertuan txistualdia egin eta pankarta bat atera zuten protesta egiteko. Bestalde, Xaxauk jaien "balorazio oso positiboa" egin du. "Janari txosnan dena agortu zen egun guztietan, eta horrek esan nahi du jende asko ibili dela. Oso pozik gaude", esan du Xaxauko kide Iosu Agirrek.

'La Olla' barrakako sustoa

Gertaerei dagokienez, jai lasaiak izan dira aurtengoak. Gertaera aipagarriena astelehen arratsaldean *La Olla* izeneko barrakan gertatutakoa izan da. Gaztetxo batzuk martxan zegoen barrakan zeudela, atea ireki egin zen eta eskailera bota zuen; zorionez, zauriturik eragin gabe. Denbora gutxira jarri zen martxan berriro ere, astelehenean bertan.

Astelehenean lepo bete zen txosnagunea Laket taldearekin.

San Joxepekoek lehen aldiz egin dute bazkaria aurten, martitzenean.

Zapatukoa erraldoien bueltan ibiltzeko eguna izan zen.

Idi-probek ere jendea erakarri zuten.

Herri bazkaria Seminarioko karpan egin zen.

Low Cost Deluxe Irizarreko parkean. ARGAZKIAK: A. AGIRIANO, I.SORIANO ETA J.BEREZIARTUA

LANBIDE HEZIKETA
DEBAGOIENEAN

ikasLAN Gipuzkoa

"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA
✆ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia.iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

BERGARAN

Miguel Altuna LHII Bergara
Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA
✆ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN

IES RM Zuazola - Larraña BHI
San Lorentzo, z/g • 20560 OÑATI
✆ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net

AURREMATRIKULA: Ekainaren 4tik 15era. MATRIKULA: Uztailaren 12tik 18ra.

Iaz Alemaniatik etorritako ikasleek Euskal Herriko txoko ezberdinak ezagutu zituzten; tartean, Bilboko Guggenheim museoa. B.U.

Wiesbaden eta Bergara ezagutzeko elkartrukea

Iazko "esperientzia positiboa" ikusita, Erasmus + programarekin bat egingo dute aurten ere Diputazioak eta Udalak; sormen artistikoa izango da aurtengo gaia, eta 2001ean zein 2002an jaiotako hamabi gazte bergararrek aukera izango dute Alemaniara joateko

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak beste urtebetez jarri dute martxan Erasmus + deritzon programa. Bergarak bigarrenez hartuko du parte. Elkartrukea egingo da Alemaniako Wiesbaden hiriko gazteekin. "Iaz zientziak eta teknologiak gazteengan nolako eragina duten aztertu zen, eta Laboratorium museoarekin lotu zen oso modu zuzenean. Aurten, berriz, gaia erabat aldatzea erabaki dugu, esparru zabalagoa hartuta. Aurtengo gaia gazteak eta sormen artistikoa izango da. Sormen artistikoa, zentzu guztietan", adierazi du Gazteria Saileko teknikari Nagore Narbaizak.

Aurtengo gaia sormen artistikoa izanik, Bergarako Musika Eskola, Beart eta beste zenbait elkarterekin elkarlanean antolatu dituzte ekintzak. Hori bai, Narbaizak berak aitortu duenez, gaiarena aitzakia bat da gaztetxoendako, eurek Alemaniara joan gura dutelako: "Horregatik aukeratu dugu aurten ahalik eta esparru zabalena har dezakeen gaia. Izena ematen dutenen arabera, eurekin osatuko dugu Bergaran gauzatuko dugun programa. Oraingoz, orrialde zuri baten aurrean gaude, eta gazteekin eurekin idatziko dugu orrialdea".

"Bizitza osorako esperientzia"

Elkartrukeak bi zati izango ditu. Wiesbadeneko egonaldia irailaren 3tik 9ra izango da eta izena eman duten gazte bergararrek bertako aterpetxe baten hartuko dute ostatu. Gazte alemaniarrak, berriz, urriaren 11tik 17ra egongo dira hemen eta Diputazioaren Zarauzko aterpetxe baten hartuko dute ostatu. Honako hauek izango dira elkartrukean parte hartu ahal izateko baldintzak: 2001ean eta 2002an jaioa izatea –2001ekoek izango dute lehentasuna–; Bergaran erroldatua egotea edo bertan ikastea –erroldatuek izango dute lehentasuna–; eta ingelesez ondo moldatzea. Hamabi laguneko taldea izango denez, antolatzaileak saiatu behar dira sei neska eta sei mutil lortzen. Prezioa 60 euro da, eta Gizarte Zerbitzuetako laguntzak jasotzen dituztenek 40 euro ordaindu beharko dute. Interesatuek Udalaren webgunean eman beharko dute izena (*www.bergara.eus*), maiatzaren 28tik ekainaren 8ra.

IZENA EMAN BEHAR DA MAIATZAREN 28TIK EKAINAREN 8RA ARTE, 'WWW.BERGARA.EUS' WEBGUNEAN

Udalak "garrantzi handia" ematen dio proiektuari: "Iazko esperientzia positiboa ikusita errepikatzea erabaki dugu. Bergarako adin bateko gazteei Europara bidaiatzeko aukera ematen dielako; beste herrialde bat ezagutuko dute, ingelesa praktikatu, lagunak egin... Bizitza osoan gogoratuko duten esperientzia izango da", uste du Izaskun Labaien zinegotziak.

Glutenik gabe egindako postre lehiaketa da jaialdiko ekintza nagusietako bat. GOIENA

Glutenik gabeko jaialdia egingo dute gaur San Martin plazan

Postre lehiaketa, zozketa, pintxo-potea, erraldoiak, askaria, jolasak eta kontzertu akustikoa, 17:00etatik 20:30era

J.B. BERGARA

Gaur arratsaldean, 17:00etatik 20:30era, glutenik gabeko jaialdia izango da San Martin plazan: postre lehiaketa –iaz 20 lagundik gora izan ziren eta herriko gozogileek osatu ohi dute epaimahaia–, glutenik gabeko produktuez osatutako saski baten zozketa, pintxo-potea, erraldoi taldearen erakustaldia, askari handia, jolasak eta kontzertu akustikoa izango dituzte.

Postre lehiaketan umeen eta helduen modalitatea egongo da eta 18:30ak baino lehen aurkeztu beharko dira; estalita, postrearekin batera errezeta ere aurkeztuta, eta ezingo dute esnegairik edo kremarik izan. Herriko gozogileez osatutako epaimahaiak lau irizpide hartuko ditu aintzat onena aukeratzeko orduan: zaporea, palatabilitatea, testura eta itxura.

Eskerrak gluten bako aukeragatik

"Egon, Etxagi eta Etxalar tabernek eta Gorka harategiak ikastaroa egin dute glutenik gabeko jakiak arrisku barik jan ditzagun; esker ona adierazi diegu gaur aukera hori ematearren", gaineratu dute antolatzaileek.

Bertan behera geratu da etziko antolatuta zegoen Natura Eguna

Udalak aditzera eman duenez, etzi Gorlan egitekoa zen Natura Eguna atzeratu egingo da jende gutxik eman duelako izena, eta aurrerago emango dute data berriaren berri. Autobuserako izen-emate epea ere aurrerago jakinaraziko dute. Udalak eta Laboratoriumek, Pol-Pol Mendizale Taldearen laguntzarekin, herriko naturguneak balioan jartzea helburu duen ekimena da, eta, aurreikusita zegoenez, Pagola-Loidiko naturgunea ezagutzeko ibilbidea eta jarduera osagarriak gauzatzea; besteak beste, Pagola-Loidiko ibilbide gidatuaren inaugurazioa egin behar zuten, bertako ondarea ezagutzera emanez.

OHARRAK

Diru laguntza: argiteria

Baserri-auzoetan publikoak ez diren eraikinen kanpoaldean argi-puntuen energia kontsumoa finantzatzeko diru laguntzak emango ditu Udalak. 6.000 euroko partida bideratu dute; Udal Erregistro Orokorrera jo beharko dute astelehenetik egubakoitzera (09:30-14:30). Eskaera urtea amaitu aurretik egin behar da.

Argazki lehiaketa

Gaur banatuko dira Bergara Hiria argazki lehiaketako sariak Aroztegin, 20:00etan. Lehiaketaren 34. edizio honetako 40 argazki onenak ikusgai daude dagoeneko; erakusketa ekainaren 3ra arte egongo da zabalik.

Emakumeen lehen sakeak errestoa behar du orain

Emakume pilotariak lehen aldiz izan dira aurten Bergara Hiria txapelketan, pilotaren esparruan ere bide berri bat irekiz; gizonezkoetan zein emakumezkoetan, maila handiko partiduak jokatu ziren jende askotxo erakarri zuten Pazko asteleheneko lau finaletan

Jokin Bereziartua BERGARA

Euskal Herriko txoko ezberdinetako pilotariak batzen dituen Bergara Hiria pilota txapelketa berezia izan da aurten, emakumeak ere izan ditu-eta protagonista. Bide berri bat ireki da pilotaren esparruan ere, eta orain, bide horretan pauso berriak eman beharko dira, adibidez, aurrerago etorriko diren Bergara Hiria txapelketako emakumeen finaletan Udal Pilotalekuko harmailek gizonezkoetakoen antzeko itxura erakuts dezaten; izan ere, gizonezkoen finaletarako jende askotxo hurbildu zen. Emakumezkoetan zein gizonezkoetan, markagailuak parekatuta ez egon arren, maila handiko partiduez gozatzeko aukera izan zuten pilotazaleek.

Mutilen promesetako eta nagusietako txapeldunak eta txapeldunordeak. J. BEREZIARTUA

Maila handia, emoziorik ez

Emakumezkoetan, nagusien mailako finala 22-10 galdu zuten Larrartek eta Mendizabalek Arrietaren eta Etxanizen aurka. Zortzigarren tantoan Mendizabalek eskuan min hartu zuenean amaitu zen partidua; Etxaniz pozik zegoen lehen Bergara Hiriako txapela jarri ahal izan zutelako. Aurretik, promesen mailan, Arakistainek eta Gamindek 18-12 hartu zuten mendean Galeano eta Agirre. Pilotakada askoko lehia izan zen eta Ihart Arakistain izan zen pilotari nabarmenena.

Bestalde, gizonezkoetan, promesen mailan Osa eta Elizegi izan ziren txapeldunak Murua eta Gaskue garaitu ostean (22-14) eta nagusietan, Lerenak eta Otaduik jantzi zuten txapela Salaberria eta Uriondo erraz menderatuta (22-7). Txapeldunak oso pozik zeuden: "Bergara Hiria irabaztea ohorea da. Txapelketa garrantzitsua da hau, eta polita da irabaztea". Txapeldunordeak, berriz, burumakur joan ziren aldagelara: "Ez dugu eguna izan; jipoi galanta jasota goaz etxera".

LEIRE ETXANIZ TXAPELDUNA NAGUSIETAN

"Bikotekideak min hartu zuen aste bukaeran pilotak begian jo ostean, eta nik hartu behar izan dut erantzukizuna. Pozik egoteko moduko finala jokatu dugu".

MAIDER MENDIZABAL TXAPELDUNORDEA NAGUSIETAN

"Ni palista naiz, eta min hartu dut. Eskupilotarako entrenatu egin behar da; ondo dago ireki den leihoa, baina gure partetik gehiago eman beharko dugu...".

NAROA AGIRRE TXAPELDUNORDEA PROMESETAN

"Final gogorra izan da, nekeak zuzenean eragin digu. Txikitatik jokatzen dut pilotan, mutilekin batera. Neskak, pilota probatzea gomendatzen dizuet, benetan".

REYES AZKOITIA BKE-KO PILOTA SAILEKO ARDURADUNA

"Oso bukaera polita izan du, eta horrekin geratuko gara. Jende mordoa hurbildu da frontoira; nesken parte hartzeari jarraipena eman behar zaiola uste dut".

Neskak futbolera erakartzeko topaketa egingo dute domekan

Agorrosinen elkartuko dira etzi goizean; denboraldi honetan 105 neska aritu dira, bost taldetan banatuta

J.B. BERGARA

Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak nesken futbolaren alde egindako apustua berretsi eta neska gehiago erakarri gura ditu hurrengo denboraldiari begira. "Iazko erronka izan zen 100 nesketara heltzea eta dagoeneko kopuru hori gainditu egin dugu. Zehazki esateko, 105 neska aritu dira aurten gurean. Bailara moduan ez dago klubik halako zenbakirik duenik eta Gipuzkoa mailan ere erreferente izateko bidean gaude. Oso-oso pozik gaude", adierazi du BKEko presidente Iosu Elorzak. Duela hiru urte zuzendaritza berria sartu zenetik lehentasunen artean kokatu zuten nesken futbolari "merezitako bultzada" ematea: "Bi talderekin hasi ginen eta hiru urtean bost talde izatera pasatu gara". *Familia* handitzen jarraitzea da domekarako Agorrosinen prestatu duten topaketaren helburua.

Udalak ere begi onez ikusten du BKEren apustua. "Lanean gabiltza, baina bide luzea dugu egiteko kirol elkarteekin batera; BKEk bere kabuz egin duen lanketa oso positiboa eta beharrezkoa da", uste du Berdintasun zinegotzi Maite Agirrek.

Agerraldia egin zuten Agorrosinen, domekako topaketa iragartzeko. JOKIN BEREZIARTUA

Mahonero Eguneko zozketa

Ekainaren 23an ospatuko dute Mahonero Eguna, hirugarren urtez jarraian, talde guztiak ospakizun giroan batzeko. Egun horretan egingo dute Aspanogi haur minbizidunen guraso elkartearen aldeko zozketa; Aspanogirendako 10.000 euro lortzeko erronka zehaztu dute.

Bergarako Biraren lehen irteera, Elorregi eta Ubera artean

Pol-Polek antolatuta, eta Udalaren laguntzarekin, domekan, Bergarako Bira-mugarriak programaren lehen mendi irteera egingo da. Hain zuzen ere, Elorregitik Ubera arteko bidea egingo dute; 08:00etan elkartuko dira udal pilotalekuaren atarian. Lauzpabost orduko txangoa izango da, eta gidari arituko dira ibilbideak aztertzen ibilitako kide bi: Mikel Agirrezabal eta Luis Mari Alberdi. 750. urteurrenaren harira antolatutako ekimena, polpoldarrek Bergarako mugarriak lotzen dituzten hainbat ibilbide zerrendatu dituzte, eta ekimenerako bost aukeratu dituzte. Azken irteera irailaren 30ean izango da.

656 lan aurkeztu dituzte Koldo Eleizalde sariketara

Bihar, zapatua, emango dituzte Koldo Eleizalde lehiaketaren 33. edizioko sariak; berrikuntza modura, Seminarixoan izango da sari banaketa ekitaldia, 12:00etan; Euskara teknikari Estepan Plazaolak azaldu du "goi mailako" lanak aurkeztu direla

Koldo Eleizalde lehiaketako sari banaketa, iaz, pilotalekuan. GOIENA

Eneko Azurmendi BERGARA

Lau genero bereizi dira aurten Koldo Eleizalde lehiaketan, eta 656 lan aurkeztu dituzte, guztira: ipuin idatzian, 344; bertsoan, 85; komikian, 116; eta interpretazio lanetan –antzerkia, ipuin-kontaketa, txisteak, eta abar–, 20 lan.

Antolatzaileek nabarmendu nahi gura dute bertsoetan edota komikietan parte-hartzean eta lanen kalitatean izandako hobekuntza. "Gorakada hori generook lantzeko eskainitako saioekin lotuta dago eta aurrera begira ere bide horretan sakondu nahi du Udalak: lehiaketa hutsa eskaini ordez, nahi dutenentzako sortze-eskola ere eskaini nahi da", azaldu du Euskara teknikariak.

Lehiaketaren helburua, Plazaolaren esanetan, herritarrei euskaraz sortzeko plaza bat eskaintzea da.

Sari banaketa, Seminarixoan

Berrikuntzetako bat sari banaketaren leku aldaketa izango da. Izan ere, azken urteetan pilotalekuan egin izan dute, baina aurten Seminarixoan egingo dute. "Gura duguna da saridunek baldintza egokietan plazaratzea euren lanak. Pilotalekuarekin alderatuta, Seminarixoak askoz soinu baldintza hobeak ditu ipuin kontaketa bat egiteko, adibidez", azpimarratu du Plazaolak.

Beste berrikuntza bat izango da biharko ekitaldia lehiaketarekin erabat lotutakoa izango dela, beste urteetan ez bezala.

Errotutako lehiaketa herrian

Aurten 33. edizioa izan du Koldo Eleizalde lehiaketak, eta, urtetik urtera, geroz eta parte-hartze handiagoa edukitzeaz gain, kalitate handiko lanak aurkezten dituzte lehiakideek.

Lehiaketako sarituak

IPUIN IDATZIA

2010-2011 urte tarteetan jaioak
- **Saria** *Mif eta Pif banpiroen munduan*. Peru Montalvo.
- **Saria** *Eider eta bere panpina*. Irati Leria.
- **Saria** *Peperoni margolaria*. Maxim Stoyanov.

2008-2009 urte tarteetan jaioak
- **Saria** *Urrezko patatak*. Mariñe Sotil.
- **Saria** *Erreka majikoko misterioa*. Uxue Montalvo.
- **Saria** *Txorizo man*. Urko Agirrezabal, Aratz Etxeberria eta Eki Mujika.

2006-2007 urte tarteetan jaioak
- **Saria** *Liburu majikoa*. Kaiet Heis.
- **Saria** *Ostadarraren koloreak*. Ariane Igartua.
- **Saria** *Koloretako maleta*. June Kalboetxeaga.

2003-2005 urte tarteetan jaioak
- **1. Saria** *Izar berri bat zerura*. June Odriozola.
- **2. Saria** *Zuhaitz baten bizitza*. Andrea Cachaferiro eta Enara Alberdi.
- **3. Saria** *Azken hitza*. Saioa Garin.

2002an edo aurretik jaioak
- **1. Saria** *Ardura al dizu?* Aitor Regueiro.
- **2. Saria** *Argia, bizitzarako gidaria*. Malen Kalboetxeaga.
- **3. Saria** *Adiskidetasunaren benetako garrantzia*. Amaia Alonso.

INTERPRETAZIOA-KONTAKETA

2012an edo ondoren jaioak
- **Saria** *Hurriztiko txitoa*. San Martin Agirre herri eskolako HHko 5. mailako ikasleak.
- **Saria** *Barre eta barre*. Lur Arrieta, Harri Izagirre, Maren Aperribay eta Ibai Herrero.

2006-2011 urte tarteetan jaioak
- **Saria** *Jarduneko udalekuak*. Antzerki eskola: Haizea Arantzabal, Izar Akarregi, Ion Letona, Nagore Osa, Anouk Roos, Amaiur Olabarria, Izar Barrutia, Manex Lazpiur, Telmo Balmori eta Elene Larrañaga.
- **Saria** *Eta zuk zer kolore duzu gustuko?* Nahom Aranguren, Aimar Sotil, Gorka Mondragon, Elaia Maure, Eider Olabarria, Unax Lazkano, Ekaitz Beldarrain, Suhar Agirrebeña, Maddi Munro, Nahia San Martin eta Elene Lazpita.
- **Saria** *Eskolan*. Anouk Roos, Anne Galarza eta Izar Akarregi.

2002-2005 urte tarteetan jaioak
- **1. saria** *Homosexuala naiz, eta zer?* Beñat Arin, Eider Elorza, Lorea Arenaza eta Itsaso Villar.

2001ean edo aurretik jaioak
- **1. saria** *Sagarra eta debekuaren arteko erlazioa*. Antzerki eskola: Maite Aristegi, Amaia Osa, Ana Moñux, Unai Barrutiabengoa, Nere Aspiazu, Asier Etxebarria, Yolanda Cagiao, Mariñe Arbeo, Jone Santamaria, Mikel Uribarren, Garazi Olabarria eta Ane Ruiz de Egino.

BERTSOAK

2004an edo ondoren jaioak
- **Saria** *Jangelako janaria*. Leire Martin eta Miren Moñux.
- **Saria** *Mugikorrean preso*. LHko 6. mailako B gela.
- **Saria** *Herrialdeen ametsak*. Haizea Arantzabal.
- **Saria** *Bulling-a*. Iñaki Aldazabal.

2000-2003 urte tarteetan jaioak
- **Saria** *Emakumea*. Nagore Otadui eta Paula Palacios.

1999an edo aurretik jaioak
- **1. Saria** *Guk zergatik ez*. Garikoitz Lopez de Munain.
- **2. Saria** *Baliza*. Nerea Madariaga.

KOMIKIA

2006-2008 urte tarteetan jaioak
- **Saria** *Bost minutu gehixau!!!* Alaitz Olabarrieta.
- **Saria** *Aho handiko zapua*. Oihan Zubiaga.

2003-2005 urte tarteetan jaioak
- **1. saria** *Adar zorrotzak*. Irene Valle.
- **2. saria** *Arratsalde pasa "lagun artean"*. Alazne Urkiola.

2002an edo aurretik jaioak
- **1. saria** *Bizia lurretik kanpo*. Julen Ibarretxe.
- **2. saria** *Zer gertatzen hari da?* Abinet Casquero.

Bergara Elektronika Topaketa, ekainaren 2an, laugarrenez

Dagoeneko herrian bere lekua egiten ari da Bergara Elektronika Topaketa. Aurten, laugarren edizioa egingo dute, ekainaren 2an. Ohi bezala, gaztetxean izango da jaialdia, eta 17:00etan hasi eta goizeko orduko txikiak arte iraungo du –06:00ak arte–. Sarrera bost euro izango da, eta momentuan bertan ordaindu beharko da.

Jaialdiaren lehen zatia kanpoan egingo dute, betiere, eguraldiak lagunduz gero. 21:00etan amaituko da hori. Ondoren, gaztetxe barruan bi aretotan egongo dira musika emanaldiak. "Disko-jartzaileak areto txikian ariko dira, barra ondoan, eta zuzeneko musika jotzen dutenak, berriz, oholtza handian", azaldu du Jokin Guridik, antolakuntzako kideetako batek.

Hauek dira jaialdian parte hartuko duten disko-jartzaileak eta musikariak: Acid Fortwins, DJ Baleaonda, DJ Koldo, DJ Muerto, Dj Manci, Dj Mazmorra, Gela, Mursego eta Olor.

Musika jaialdia egingo dute gaur Angiozarko plazan

Maiatzeko zubia baliatuta, Katalunian izan ziren Angiozarko Trikiti Eskolako eta Oñatiko musika eskolako hainbat ikasle, eta Arseguel herriko musikariekin elkartrukea egin zuten. Oraingoan, kataluniarrak etorriko dira hona, eta musika, dantza, ikus-entzunezkoak, eta abar izango dituen emanaldia egingo dute gaur, 21:30ean.

Haurrentzako ipuin kontaketa saioa, Udal Liburutegian

Gaur, egubakoitza, haurrentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Amaia Etxeberria ipuin kontalari bergararrak Udal Liburutegian, 18:00etan. Hilabetero antolatzen du liburutegiak ipuin kontaketa saioa. 4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin ezberdinak kontatuko ditu Etxeberriak gaurko saioan.

HURRETIK

BERTAKO PERTSONAK
PROTAGONISTA DITUEN SAIOA

AITOR GALDOS, BASOZAINA ETA NATURA ZALEA.
MAIATZAREN 29AN, MARTITZENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

PILAR ETXANIZ, IRAKASLE IZANDAKOA ETA GIZARTE EKINTZAILEA.
EKAINAREN 5EAN, MARTITZENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

JOXEMARI MUXIKA, KOOPERATIBISTA OHIA ETA EUSKALGINTZAKO KIDEA.
EKAINAREN 12AN, MARTITZENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN

goiena
Zu hemen zaude.

Herritarrak, hirugarren faseko bilera irekian, nolako Antzuola gura duten hausnartzen. AZTIKER

Bizikidetza, euskara eta ekonomia, lehentasunak

Ekainean, herritarrek proposatutako ekintzekin osatutako liburuxka banatuko dute etxez etxe. Hala, parte-hartze prozesuko laugarren fasean proposatutako ekintzen artean aukeraketa egingo dute herritarrek, eta lehentasunak markatuko dituzte

Maider Arregi ANTZUOLA

Urte hasieran abian jarritako parte-hartze prozesuko hirugarren faseko talde irekien batzarrak bukatu dira. Orain, talde eragilearekin batzarra egingo dute Aztiker enpresako teknikariek faseari bukaera emateko. Bertan, ondorioak aurkeztuko dituzte. "Laugarren fasean, proposatutako ekintzen artean herritarrek aukeraketa egin eta lehentasunak markatuko dituzte", dio Xabier Luque teknikariak.

Prozesuan barrena markatutako bost ildoetatik, ehun ekintza inguru batu dituzte –Ekonomia eta ingurumenaren jasangarritasuna; Pertsonaren garapena; Bizikidetza; Zerbitzu soziala eta herri kudeaketa–. "18 bat arlotan banatuta, ehun bat ekintza inguru jaso ditugu. Orain, aukeraketa bat egin ostean, liburuxka bat banatuko dugu".

Bertako kontsumoa bultzatzea

Ehunka proposamen horien artean, Aztiker enpresak orrazketa egingo du. Hala, herritarren artean nagusi izan diren ekintza zehaztuak jasoko dituzte. Horietako bat herriko ekonomia zirkularra bultzatzeko ekintza izango da: "2030era begira, bertako garapen ekonomikoa, produkzioa eta kontsumoa bultzatzea gakoa dela uste dute herritarrek. Herrian egiten den lana mantenduz eta ekonomia zirkularra sustatuz", azaldu du.

Hezkuntza ereduaz kezka

Batzar horietan Herri Eskolako hezkuntza ereduari jarraipena ematearen nahia eta kezka ere azaleratu dela dio teknikariak: "Eskolako pedagogia ereduari garrantzia ematen diote herritarrek. Mantentzea eta hobetzea gura dute. Hezkuntza orokorrari dagokionez, euskararen erabilerarekiko kezka ere azaleratu dute. Joera beherakoa dela diote eta hori aldatzeko neurriak proposatu dituzte antzuolarrek".

ANTZUOLARREK 100 EKINTZATIK GORA PROPOSATU DITUZTE PARTE-HARTZE PROZESUAN

Horrekin lotuta, bizikidetzaren arloan zenbait kezka azaldu dituzte: "Desberdintasun sozialak eta ekonomikoak gainditzeko neurriak jaso ditugu. Ez bakarrik gizonen eta emakumezkoen arteko ezberdintasun ekonomikoen gainekoak; baita maila ekonomiko ezberdina duten familiekikoak ere. Proposatutako neurrien artean dago herriko enpresek, elkarteek eta Udalak zenbait konpromiso hartzearena".

Sorkuntzan eta kirola

Kulturari dagokionez, sorkuntza bultzatzearen alde azaldu dira herritarrak. Kirolean, aldiz, azpiegiturak egokituz "kirolaren dibertsifikazioaren" nahia azaldu dute herritarrek, Xabier Luque teknikariak dioenez.

NAGORE OTADUI

Igoera fasea dago jokoan

Eibarko kadete mailako neskek zapatuan jokatuko dute, Azkoitian, Euskal Ligarako igoera fasea. Tartean, hiru antzuolar daude: Uxue Iparragirre, Jone Jauregi eta Nagore Otadui. Eta baita bailarako beste bi jokalari ere: Eider Egaña eta Elene Guridi oñatiarrak. Andoni Loranen jokalariek sailkapeneko lehen postuan daudela jokatuko dute finala.

AMAIA TXINTXURRETA

Emakumezkoen lana bistaratuz

Aurtengo San Isidro eguneko ospakizuna berezia izan da. Senidetze eguna ospatu dute baina, estreinakoz emakumezkoek hartu dute behi-jezte desafioan. Desafioaren helburutariko bat, emakumezkoek baserrian tradizioz egin izan duten lana bistaratzea izan da. Pagoaga eta Garai arrasatearrek irabazi dute giro paregabean egin den desafioa.

Tabakoaren prebentziorako kanpaina ekainean

Tabakorik gabeko Nazioarteko eguna ospatuko da maiatzaren 31n, eguena. Hala, prebentzioaren kontzientzia hedatzeko asmoz makina bat ekintza antolatu ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak bailaran. Antzuolako Udalarekin elkarlanean, Zurrategi plazan 19:00etan, informazioa banatzeko mahaia jarriko dute ekainaren 7n, eguena. Bertan, osasun zentroetako langileek informazio pertsonala emango dute sustapen eta tabakoaren prebentziorako jarduerei buruz. Baina, informazio hori jasotzen duten diptikoak banatzeaz gain, azterketa pertsonalizatua egingo diete gerturatzen diren erretzaileei: gorputzeko karbono monoxidoa edo biriken adina neurtuko dituzte, besteak beste. Aipatu, farmaziak programan parte hartuko duela eta kartelak jarriko dituela herritarrendako mezuekin.

Ibon Gezalaga, Jose Luis Mendilibar, Mikel Labaka eta Andoni Azkargorta, Torresoroan. MAIDER ARREGI

Futbolaz harago "badago bizimodua ere"

Antzuolako Kirol Elkarteak 25 urte beteko ditu udazkenean; horren baitan, futbolaren eta kirolak transmititzen dituen zenbait balioren gaineko solasaldia eskaini dute asteon. Mendilibar, Labaka eta Azkargorta izan dira berbaldiko protagonistak

Maider Arregi ANTZUOLA

Futbola bai, baina askotariko gaiak jarri zituzten mahai gainean Jose Luis Mendilibarrek –Eibar taldeko entrenatzailea–, Mikel Labakak –Realeko bigarren entrenatzailea– eta Andoni Azkargortak –Eibar taldeko laguntzaile teknikoa–. Futbola bihotzean daramate eta pasioz bizi dute hirurek. "Alde onak eta txarrak ditu futbolari profesional izateak; bidaiak, bakardadea, familia eta lagunengandik urrun egotea... baina gustatzen zaiguna egiten dugu eta, gainera, lagunekin lan egiten dugu", diote.

Hirurek goraipatu zuten Antzuolakoa moduko klub txikietan egiten den lana. "Beharrezkoa eta txalogarria da herrietan egiten den borondatezko lana. Gaztetxoak balioetan hezi behar ditugu, eta futbolaz gain badela bestelako bizimodua erakutsi".

Gizartearen isla

Futbola gizartearen isla ere bada eta gizartearen erritmoan eboluzionatzen duela azpimarratu zuten: "Emakumeen futbolak orain hartu du indarra. Gizartean eskaera hori badagoelako, besteak beste. Futbol taldeak enpresak direla ez da ahaztu behar. Lan handia dago emakumezko futbola sustatzeko, baina hasiak dira telebista kateak eta zaleak emakumeen lana ere azaleratzen", azpimarratu zuen Azkargortak.

Euskararen esparruan gizarteak eta klubaren izaerak ere eragina baduela zioen Labakak: "Realaren balioetako bat izaera hori mantentzea da. Bertako jokalariak ezinbestekoak dira Realaren biziraupenerako. Kanpoko jokalariekin errazegi hasten gara gu erdaraz berba egiten".

Mendilibarrek gako asko eman zituen taldea ondo gidatzeko, eta sekretuetako bat talde osoaren konfiantzan eta sinismenean dagoela azpimarratu zuen.

FUTBOLA GIZARTEAREN ISLA DELA ETA EBOLUZIO BERA IZATEN ARI DELA AZALDU DUTE

AKEko lehen talde ofiziala, orain 25 urte. AKE

25 urteko ibilbide emankorra

Koldo eta Kruz Madariaga anaiek futbol saila sortzeko lehen bilerak eta urratsak Lekuberri jatetxean egin zituzten. Eta bere fruituak eman zituen orain dela 25 urte. Erretratuan, taldea ofizialki jaio zen urtean osatu zuten futbol taldea.

IBON GEZALAGA

Realeko Encinas, Eztalan

Antzuolako nesken taldeak Real Sociedad taldeko Aintzane Encinasen bisita izan du asteon Eztala futbol zelaian. Ilusioz eta pozik hartu zutela bisita azaldu du Ibon Gezalagak, AKEko presidenteak. Elkarrekin tartetxo bat hartu eta entrenatu ere egin ziren. Neska taldearendako oso motibagarria izan dela kontatu du Gezalagak. "Nesken taldeak ere pizgarri bat jasotzea eta motibazioan eragitea garrantzitsua dela uste dugu", azpimarratu du. Realeko kamiseta jantzita, talde argazkia atera zuten.

AMAIA MUNDIÑANO

Su hartu du kamioi batek

Kamioi batek, kabinan izandako matxura mekaniko baten ondorioz, su hartu zuen martitzenean. Ondorioz, Antzuolako saihesbidea itxi egin zuten zenbait orduz eta zirkulazioak eragin nabarmena izan zuen. Frutak eta barazkiak garraiatzen zituen kamioiak, eta kiskalita geratu zen. Zorionez, inork ez zuen minik hartu.

Hilabete falta da Ferixa Nagusiko jaietarako

Jai batzordeak lotuta dauzka ekitaldi nagusiak, eta, musika kontuetan, Garilak 26, Skasti, Mugi Panderoa eta Amaia DJ izango dira plazan. Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak, berriz, astelehenetik aurrera izango dira ikusgai botoak jasotzeko

Larraitz Zeberio ELGETA

Ferixa Nagusiko jaietako programa ia itxita dago eta 40.000 euro inguruko aurrekontua izango dute festek aurten ere. Jai batzordeak urtarrila ezkero dihardu lanean, eta, aurreratu dutenez, lotuta daude musika taldeak eta ekintza nagusiak.

Herriko plazako musika emanaldiei dagokienez, eguenean Garilak 26 talde bilbotarrak egingo du kontzertua. Bariku gaueko erromeria Skasti taldeak egingo du eta DJ Bull-ek hartuko du lekukoa ondoren. Zapatuan, urtero moduan, Jainaga eta Narbaiza trikitilariek girotuko dute bazkalostea, eta gauean Eibarko Mugi Panderoa taldeak egingo du erromeria. Tartean, 20:00 aldera, Bergarako talde batek ordubeteko kontzertua eskainiko du. Talde sortu berria da eta Elgetako jaietan jotzeko eskaera egin dutela adierazi dute Jai batzordeak. Domeka arratsaldean, berriz, karaoke formatuko saioa egingo du Amaia DJk. Iaz moduan, herritarrak izango dira protagonista, baina aurten, bi kategoria izango ditu lehiaketak; 14 urtera artekoak eta 14 urtetik gorakoak. Berrikuntza hori helduei ere karaokean parte hartzeko aukera emateko da. "Elektrotxaranga bat ere izango dugu jaietan", adierazi du Iraitz Lazkano alkateak. "Aurreko urteko jaien ostean herritarrek betetako inkesten bitartez jasotako proposamena da, eta Eonian elektrotxaranga izango dugu brindis ekitaldiaren ostean".

Gazte taldea iazko jaietako Mozorro Egunean, plazan. IMANOL SORIANO

Laguntzaile kanpaina berria

Jai batzordeak aurreikusten du programa ekain hasieran bidaltzea inprentara eta etxez etxeko banaketa jaiak hasi baino pare bat aste lehenago egitea. Une honetan, Elgetako enpresen erantzunaren zain dago Udala. "Eskutitzak bidali ditugu enpresa guztietara, laguntzaile izateko proposamen eginez", azaldu du Lazkanok. "Orain arte Leongo enpresa batek egin du lan hori, eta aurten, Udalak egingo du. Enpresa guztiei emango diegu herriko jaietako programan publizitatea sartzeko aukera. Espero dugu erantzunak jaso eta ekaineko lehen asterako programa inprentara bidaltzea".

HERRITAR TALDE BAT 'ARRATERA BEGIRA' ETA 'EGOARBITZA' DANTZAK IKASTEN DIHARDU JAIETARAKO

Kartel lehiaketa

Lerrook idazterakoan, Udalak sei lan zituen jasota kartel lehiaketarako. "Aurten ere herritarrek aukeratuko dute jaietako kartela", esan du alkateak. "Erakusketa ipiniko dugu eta herritarrek Hirix plataformaren bitartez izango dute gustukoena dutenari botoa emateko aukera". Botoak astelehenetik aurrera eman ahalko dira, eta ekainaren 4ra bitartean.

Dantza erakustaldi berezia

Herri Egunean udalbatzaren soka dantza eta neska-mutikoen euskal dantzen emanaldia izango dira oraingoan ere. Aurten, ordea, bada berezitasunik; izan ere, herritar talde batek Elgetarako propio sortuak izan ziren bi dantza berreskuratuko ditu: *Arratera begira* eta *Egoarbitza* dantzak, hain zuzen ere.

Zezenik ez aurten

Iaz egun bakarrean egon ziren zezenak Ferixa Nagusiko jaietan eta aurten ez da batere egongo. Zapatuan, iaz moduan, kuadrillen arteko jolasak izango dira bazkalostean, eta barikuan dantza ikuskizun bat. 19:00etan, Tio Teronen Semeak izeneko dantza taldeak egingo du emanaldia.

Bestelakoetan, Jai batzordeak mantendu egingo ditu domeka goizaldeko puzgarriak helduendako, eta sortu berria den emakume taldeak *photocall* feminista egingo du herri bazkari ostean.

Domekan, jaiei izena ematen dien feria izango da Elgetan. Baserritarren batzordeak jakinarazi du postua ipintzeko interesa dutenek zabalik dutela izena emateko epea.

"Garrantzitsua da elgetarren ekarpenak ere jasota gelditzea"

JOSEBA MUXIKA HERRI PARTAIDETZAKO ZUZENDARIA

Aldundiko ordezkariak batzartzera deitu ditu herrikideak

L.Z. ELGETA

Aurrekontua da kudeaketarako tresnarik garrantzitsuena, eta eguenean, 18:30ean, Elgetan izango da Joseba Muxika, Aldundiaren aurrekontura begira elgetarren proposamenak eta ekarpenak jasotzeko.

Mota guztietako ekarpenak jasoko dituzue?

Aldundiarenak diren eskumenekin lotutako ekarpen guztiak jasoko ditugu, bai.

Hiru urte dira partaidetza egitasmoa martxan duzuela. Erantzun ona du?

Herritarrek gauza zentzuzkoak planteatzen dituzte. Ez dira proposamen neurrigabeak edo utopikoak. Aurten, gainera, herri txikietara hurbiltzeko ahaleginean ari gara eta beste maila bateko gaiak ateratzen ari dira: baserri bideen konponketa, zuntz optikoaren hedapena, saneamendu hoditeria egiteko premia... Gai garrantzitsuak dira eta irtenbide bat eman behar zaie.

Zure herrira zatoz, gainera.

Bai, eta pribilegioa da. Beste herrietan moduan, modu profesionalean arituko gara, baina badut jakin-mina; izan ere, beti egoten da eskaeraren bat berria egiten zaizuna. Gustura entzungo ditut elgetarren ekarpenak. Garrantzitsua da, gainera, elgetarren interesak ere lurralde eraikuntzan txertatzea. Horiek plazaratzeko lekua izango da egueneko batzarra.

Joseba Muxika, Elgetan. L.Z.

Gero, ekarpen guztiak aztertzen ditu Aldundiak?

Prozedura bat dago eta irizpide batzuen arabera denak aztertzen dira. Ekarpen-egileek, gainera, erantzun bat jasotzen dute otsail aldera esanez bere ekarpena txertatua izan den edo ez, eta ezezkoa bada zein izan den ezezkoaren arrazoia.

Elgetako Euskaraldia batzordea eratzeko deialdi irekia

Goiena komunitatea

Goibeko elkartea / ELGETA

"Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskaraldia, eta Elgetak ere izena emanda dauka ariketa sozial erraldoia izango den ekimenean. Herri mailako batzordea sortzeko unea da eta helburu horrekin elkartuko gara hilaren 28an, astelehena, Ozkarbi elkartean, 19:30ean. Deialdi irekia da eta herriko eragile, elkarte eta norbanako guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Euskaraldiaren aurkezpena egingo dugu eta jasota dugun informazioa partekatuko dugu Elgetako euskaraldia batzordea martxan has dadin. Animatu!"

Informazio mahaia, erretzeak dituen ondorioak azaltzeko

Maiatzaren 31n aldarrikatzen da Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna, eta Elgetako Gizarte Sailak jakinarazi du Bergarako langile sanitarioek informazio mahaia jarriko dutela herrian. Elgetaren kasuan, ekainaren 1ean izango da, 19:00etatik 20:00etara, Mendizaleen plazan. "Langile sanitarioek informazio pertsonala emango dute sustapeneko eta tabakoaren prebentzioko jarduerei buruz, informazio eskuorriak banatuko dituzte eta hainbat neurketa egingo dituzte. Esaterako, karbono monoxidoaren determinazioak, biriken adina neurtzeko probak, erretzailearen pasaporteak...", adierazi dute.

Intxortako Lehoiek Palentziako Guardo lagunartearekin orain dela hilabete Elgetan egindako topaketa. INTXORTAKO LEHOIAK TALDEA

Athleticzaleak Zurigorri Eguna prestatzen ari dira

Hamasei lagunarte ditu talde zuri-gorriak Gipuzkoan; adibidez, orain dela hamar urte sortutako Elgetako Intxortako Lehoiak lagunartea. Aurten, zale elgetarrek hartu dute Zurigorri Eguna antolatzeko ardura, eta ekainaren 16rako iragarri dute

Larraitz Zeberio ELGETA

Egun osoko egitaraua gertatu du Athletic taldeak Elgetan duen lagunarteak ekainaren 16rako. Hamaiketakoa, kalejira txikiteoarekin, bazkaria, omenaldi ekitaldia, DJ festa... Prestaketa lanetan buru-belarri dihardute, eta dagoeneko 80 lagunek eman dute izena bazkarirako.

Orain dela hiru urte egin zuten lehenengo Zurigorri Eguna Gipuzkoako athleticzaleek. Tolosan izan zen, eta Zarautzen egin zuten iazkoa. "Gure lagunarteak hamar urte bete dituela-eta hirugarrena Elgetan egitea proposatu genuen, eta onartu egin ziguten proposamena", azaldu du taldeko kide Javier Gamarrak. "Talde zuri-gorriak Gipuzkoan dituen zaleak elkartzeko aitzakia da Zurigorri Eguna. Elkar ezagutu eta lagunarteko bazkaria egiten dugu. Baliatzen dugu aukera, baita ere, Athletic taldearen alde lan egiten duten gipuzkoarrak omentzeko". Iaz, Zarautzen, Jose Angel Iribar omendu zuten. Ikusteko dago Elgetan nor omenduko duten. "Badugu hautagaia, baina sorpresa da", esan du Gamarrak.

Elgetako Zurigorri Egunean bereziki gogoan izango dituzte Jose Monterroso eta Joxan Urizar. "Ez dugu ekitaldi berezirik egingo, baina oso gogoan izango ditugu. Taldearen sorrerakoak dira, eta, zoritxarrez, joan egin zaizkigu. Modu batean edo bestean egun horretan gurekin egotea nahiko genuke".

Ehun lagunetik gora

Antolatzaileek ehun lagunetik gora espero dituzte ekainaren 16ko festa egunerako. "Tolosan eta Zarautzen 120-130 inguru izan ginen. Zapatua izatera, pentsatzen dugu gehiago izan gaitezkeela Elgetan. Ikusiko dugu", esan du Gamarrak. Oraingoz, 80 lagunek konfirmatu dute parte-hartzea bazkarirako. "Maiatzaren 31era arteko epea eman dugu izena emateko, baina luzatu egin beharko dugu, jendea tarte handiagoa eskatzen ari delako".

BAZKARIRAKO IZEN-EMATEAK ZABALIK JARRAITZEN DU BOLATOKIAN ETA LAGUNARTEAN

Gamarrak jakinarazi du Athletic taldeak ordezkaritza ofiziala bidaliko duela Elgetara, eta, oporretan egonda jokalariak etortzea zaila izango bada ere, eskaera hori ere eginda dutela.

35 laguneko lagunartea

Elgetako lagunarteak 35 kide ditu gaur egun. "Partiduetara joaten gara, irteerak egiten ditugu...", azaldu du Gamarrak. "Gustatuko litzaiguke Elgetako realzaleek ere lagunartea osatzea. Saiakera bat egin zuten, baina hor gelditu zen kontua. Polita izango litzateke. Lehia osasuntsu hori gustatzen zaigu. Ea animatzen diren", esan du Javier Gamarrak.

ELGETAKO UDALA

Squash kantxa berritzen ari dira

Aurreko astean altxatu zuten lurra eta aurreikuspena da egunotan ipintzea berria. 2017ko gerakinekin finantzatuko ditu lanok Udalak. Aurrekontua 5.000 euro da. Squash kantxarekin batera, skate parkea ere konponduko dute. Oraingoz, hesituta dago eta ez dago erabilgarri. Bigarren lan horien aurrekontua 9.000 euro da.

ELGETAKO GAZTELEKUA

Gaztelekuak, hainbat irteera

Aurreko zapatuan Donostiako Aquariumean izan ziren eta honako honetan Gasteizko Salburua parkera dute irteera. Hurrengoan, Otxandioko Hontza Extrem abentura parkera joatekoak dira. Izen-emateak udaletxean egin behar dira. Irteerak bosgarren mailatik gorako neska-mutikoendako dira, izan zerbitzuko erabiltzaile edo ez. Prezioak zerbitzuan kontsulta daitezke.

Kontsumobideren tailerrak datozen bi martitzenetan

Goiena komunitatea
Xalbadorpe elkartea / ELGETA

Kontsumo hezitzaile Begoña Olabarrietak gidatuko ditu biak. Lehenengoa maiatzaren 29an egingo dugu eta gaia izango da: elikadura eta nutrizioa. Bigarrena, berriz, ekainaren 5ean egingo dugu eta gaia izango da: arriskuak ekiditeko gomendioak. 17:30ean izango dira, Ozkarbin.

OHARRAK

Ipuinak liburutegian

5 urtetik gorakoendako, 16:55ean, eta 2 urtetik gorakoendako, 17:40an, gaur.

Azken barikua

Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, gaur, 20:00etan, herriko plazan.

Emakume taldea

Batzarra deitu dute hilaren 30erako, 19:00etan, udaletxean.

Jerardo Elortza, Kale Zaharrean, eguaztenean. XABIER URZELAI

"Argazki zaharrekin hobeto ezagutu dut herria"

JERARDO ELORTZA IDAZLEA

Euskara, historia, Oñati, 70ko hamarkada... izan ditugu hizpide Jerardo Elortzarekin. Galdera bakarra utzi du erantzun gabe, hain oroimen ona nola duenari buruzkoa.

Oihana Elortza OÑATI

Gertukoa da oso Jerardo Elortza (Oñati, 1944), eta, horregatik eta duen jakinduriagatik, askok jo dute harengana laguntza eske. Baita GOIENAk ere. Egindako lanagatik eskerrak emateko omenaldia antolatu du herritar talde batek, baina "asmazio" horren inguruan baino gehiago, beste gai batzuei buruz galdetu diogu.

Hasi aurretik, Jerardo, eskerrik asko egin duzun lanagatik eta laguntzeko beti prest egotearren!

[Barre] Herriko pertsona, toki edo pasarteen inguruko lana jasotzea gustura egiten dudan lana da.

Euskara dela, historia dela, ondarea dela... beti herria ahaztu barik, Oñatik esparru horietan duena jaso eta zabaltzeko.

Herria bere osotasunean hartuta. Felix Ugartek erakutsi zidan herria ez dela plaza, erdiko kaleak eta lau eraikin bakarrik. Herria auzoak, zubiak, armarriak, herritarrak eta ur-putzuak ere badela. 150 ur-putzu zenbatu genituen behin Oñatin.

60-70eko hamarkadetako kultur berpizkundearen gaineko mahaingurua egingo da ekainaren 6an. Horren lekuko eta eragile izan zinen zu ere. Nolakoa izan zen?

Garai hartan sortu zen Oñatz kultura elkartea, esaterako. Beasainen bazen antzerako talde bat ordurako. Herriko neskamutilak harremanetan jartzeko bide bat izan zen Oñatz. Lehen, eguenak izaten ziren nobioarekin eta nobiarekin egoteko egunak, eta kuadrilla ederrak sortu ziren han. Antzerki taldeak ere bai, bat euskaraz eta beste bat gazteleraz. Euskarazkoan, esaterako, Arthur Miller-en *Nire seme denak* antzezlana egin genuen. Ikastola ere orduan hasi zen indarra hartzen... Garai hartan Oñatin bakarrik ez, mundu osoan ari ziren aldaketak gertatzen; 1968ko Paris eta aurreko urteak, adibidez.

Euskaraz egiten zenuten orduan kalean?

Mutilok bai; neskek, kalean, erdaraz gehienek. Auzoetan gehiago entzuten zen euskara.

Inoiz jaso duzu zigorrik euskaraz berba egiteagatik?

Zigorrik ez, baina atentzioa eman bai. Umetan erdaraz egin nituen ikasketak. Seminarioan kantuak ere gazteleraz ziren. Antzuolako irakasle bat izan genuen eta hark erakutsi zigun abesti bat euskaraz. Bestela, Reyes Korkostegi alkatea etorri zen egun batean, *Agur jaunak* abestu genuela da oroitzen dudan bakarra. Saturraranen Gipuzkoako beste herri askotako ikasleekin egin nuen topo eta han gehiago entzuten zen euskaraz. Donostiara joan nintzenean ere zortea izan nuen, bizpahiru irakasle militante izan nituelako.

Eta haiekin hasi zinen euskal idazleak ezagutzen?

Garro, Axular... ezagutu genituen. *Euzko gogoa*-ren berri ere izan genuen, Arantzazun *Jakin* egiten hasi zirela entzun... 1966-1967 urteetan Oñatiri buruzko gehigarri bat egin zuten *Zeruko Argia*-n eta oñatieraz idatzi nuen. Horixe izan zen Oñatiko euskaran idatzi dudan lehen testua.

Hamarkada hartan, baina, Oñatin ere hasi zineten agerkariak kaleratzen.

1971n argitaratu zen lehenengoa. Felix Ugartek jarri zuen martxan ideia hori, ni laugarren alean batu nintzen taldera. Lehen aleak gazteleraz ziren, *Boletín de la Biblioteca Municipal de Oñate* izenarekin.1973ko abenduko alea *Oñatiko Liburutegiko Agerkaria* zen aldizkari txiki horren izen ofiziala. Lehenengo aleko garai hartan soldadutzan nintzen ni. 1970ean joan nintzen, marinara. Galizian egin nuen eta oso esperientzia txarra izan zen. Sahara zapaltzeko aukera izan nuen, ordea, birritan egon nintzen.

Zeri buruz idazten zenuten?

Herriko demografiari buruz, etnografiari buruz edo kalean egindako inkestei buruzko artikuluak daude, esaterako. Horrez gain, lehen filmak grabatzen ere orduan hasi ginen. Esaterako, lihogintzari buruzkoa, Zubillagan, eta Corpusei buruzkoa. Super 8 kamera batekin egin genituen lan horiek.

Agerkari horrek *Oñatiko historia eta arte bilduma* liburua kaleratu zuen urte batzuk geroago. Zer proiektu izan zen hura?

1982an kaleratu genuen liburua, eta izan du bere garrantzia, bai. Herritar talde bat elkartu eta bakoitzak funtzio bat hartuta atera genuen. Batek, adibidez, argazkiak atera, beste batzuek testuaz arduratu, beste batzuek idatzi... Hor izan ginen [ondoko orrialdean dagoen zuri beltzeko argazkian, ezkerretik eskuinera]: Pedro Luis Ormazabal, Felix Ugarte, Adelina Moya, Xabier Zelaia, Maixabel Elortza, Juantxo Madariaga, Luxio Ugarte, Jerardo Elortza, Jerardo Agirre, Agustin Goenaga, Iñaxio Irizar eta Jesus Etxezarreta. Oñatiko baserriak, zubiak, eraikinak, iturriak, planoak... sartu genituen liburu hartan. Ia 400 argazki datoz guztira.

Auzolanean egindako lana izan zen?

Bai. Interesa genuen lagun kuadrilla bat elkartu eta guztion artean egin genuen.

Diozu lan horrek bidea erraztu ziela gero egin ziren beste batzuei.

Etnografian egindako lanendako lagungarria izan zen, adibidez. Kapirixon ere bai...

Galegoz eta katalanez ere idatzi ei duzu zer edo zer.

Soldadutza egin nuen bitartean ikasi nuen galegoa eta haur literaturako bi ipuin itzuli nituen euskarara. Baita katalaneko antzezlan bat ere.

Herrian antolatu diren ekimen askotan hartu izan duzu parte.

Zorte handia izan dut. Herriko talde askotan egon naiz eta hori pozgarria da niretako.

***Kontzejupetik* aldizkarian publikatzen dituzun argazki zaharretan ikusten dugu zenbateko lana hartzen duzun herritarrak identifikatzen eta agertzen dena azaltzen.**

Herria hobeto ezagutzeko modua izan da argazki zaharrena. Jende asko ezagutu dut eta ondo hartu naute beti.

Noiz hasi zinen horretan?

Arrasate Press aldizkarian hasi nintzen, Jose Felix Diaz de Tuestak eskatuta. Norberak norberaren herrikoa errazago eta hobeto egin dezake eta *Kontzejupetik* aldizkarian atal hori

J.E.

Familia Jerado Elortza eta Tere Letamendi senar-emazteak Urdin eta Irantzu seme-alabekin batera. Arabako Guardia ondoan dagoen El Villar herriaren inguruan, atzean Toloño mendizerra ikusten dela. 1980ko lehen urteetan ateratako argazkia da. Bi egunerako hango inguruak ezagutzera joandako familia irteera batean.



J.E.

Erakusketa Mari Karmen Garmendia sailburua, Jerardo Elortza, Eli Galdos eta Bitoriano Gandiaga, kultura etxe zaharreko erakusketa gelan.

J.E.

Liburuaren egileak *Oñatiko historia eta arte bilduma* liburuaren egileak, 1982an, Santa Marinako plazako iturrian.

J.E.

Lagunekin Lagunekin ere plan asko egiten duenetakoa da Jerardo Elortza. Argazki horretan, esaterako, Iparraldera egindako irteera batean ageri dira, Barkoxe inguruan, Pastorala ikustera joanda. Argazkian daudenak: Arregi, Elortza, Orueta, Amasorrain, Letamedi eta Oianguren.

egitea pentsatu genuen. Laixanen garaian argazki zaharrak ez ezik, herritarrekin elkarrizketak eta herriko ondarea ezagutzeko atalak ere izan genituen herriko hilabetekarian. Behin erabaki nuen lan horri uztea, argazki zahar gehiago ez argitaratzea, baina herritarrak etorri egiten ziren niregana euren istorio eta antzinako argazkiekin. Gustatzen zitzaiela ikusi nuen. Eta lan hori berreskuratzea erabaki nuen.

Zer duzu orain esku artean?

Euskararekin zer harreman izan dudan jasoko duen lan bat. Hor idatziko dut, adibidez, zer nola ezagutu eta nolako harremana izan dudan Rikardo Arregirekin, Gabriel Arestirekin, Aita Villasanterekin, Alfontso Irigoienekin eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-rekin, adibidez. Baita artxibozainekin dudan harreman eta nola amentzeratu nintzen gai honekin. *Egan* aldizkarirako eskatu didate lan bat egiteko, eta horixe aukeratu dut. Dagoeneko hogei bat orri idatzi ditut eta 1965eraino heldu naiz bakarrik...

Herriak eskerrak eman gura dizkizu orain eta omenaldia prestatu du. Zer iruditzen zaizu?

Badakit horretan ari direla, bai, ni berandu enteratu naizen arren. Egun bateko ekitaldia ez, aste osoko programa prestatu dute, gainera.

Liburuak eta trena

Iraupen luzeagoko proiektuak ere egingo dituzte omenaldiaren barruan. Udalak, esaterako, *Jerardo Elortza* izena izango duen liburu bilduma aterako du. "Oraindik zehazteko dugu zenbat ale eta hurrengoak zeri buruzkoak izango diren, baina lehenengoak Elortzaren bizitza eta lana jasoko du. Dabid Zapirainek zuzenduko du eta Iñigo Biain oñatiarra ari da egiten. Gabonetarako argitaratzea da asmoa", azaldu du Nerea Zubiak.

Ikastetxeek ere parte hartu gura izan dute ekimen honetan, eta, trena gaitzat hartuta, proiektu bat hasi dira egiten. Euskarri digitalean egingo dute eta museo bat ere prestatuko dute. "Gurako genuke gazte talde bat sortzea ondarean, historian, interesa duena", dio Martin Jauregialtzok hiru ikastetxeen izenean.

Zehaztuta duten egitaraua

Ekainaren 1etik 9ra izango dira ekitaldi gehienak.

Ekainak 1
- **Erakusketa** Jerardo Elortzaren gainekoa.
- **Kultura etxean,** 18:00etatik 20:00etara ekainaren 8ra arte.

Ekainak 4
- **Hitzaldia** Jerardo Elortza *Egille*. Hizlaria: Juan Martin Elexpuru.
- **Santa Ana antzokian,** 19:00etan.

Ekainak 6
- **Mahai-ingurua** 1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkunde garaiko lekukoen eskutik. Moderatzailea: Luxio Ugarte.
- **Kultura etxean,** 19:00etan.

Ekainak 7
- **Filmen emanaldia**: *Gabon dut Anuntzio* (1999), *Liñugintza* (1974), *Aita Lasa, artzainen artzain* (1981) eta *Lope de Agirre* (1983). Aurkezlea Agustin Goenaga izango da.
- **Santa Ana antzokian,** 19:00etan.

Ekainak 9
- **Omenaldia** Alkatearen berbak, poesia errezitaldia, proiekzioak, kantuak... Aurkezlea Olatz Osa izango da.
- **Santa Ana antzokian,** 12:00etan.

Ekainak 17
- **Ibilaldia** Araotzera eta Urrusolara irteera Natur Eskolakoekin batera.
- **Araozko saloian,** 08:30ean.

Oharra: bazkarirako txartelak Txokolateixian daude salgai eta irteerarako euskaltegian eman behar da izena.

Omenaldia prestatu dute

Omenaldiko lantaldeko batzuk. O.E.

Duela urtebete pasa hasi ziren Jerardo Elortzari eskerrak emateko ekitaldia antolatzen. Aste Santu aurretik esan zioten hari. "Sustoa hartu zuen eta berehala hatz erakuslea batera eta bestera mugitzen hasi zen, ezezkoa adierazteko. Baina ondo lotuta genuen dena, baita non eta noiz esan ere", dio irribarrez bere lagun Txaro Barturenek.

Herriko eragile askok hartuko dute parte omenaldi honetan eta oso harrera ona izan duela dio Kepa Elortzak: "Denei ondo iruditu zaie eta prest egon dira laguntzeko eta parte hartzeko. Izugarria izan da. Oñatin askok jo dugu berarengana noiz edo noiz laguntza eske. Gu bakarrik ez, San Telmoko zuzendariak esana da zerbaiti buruz ezer jakin gura duenean Jerardo Elortzari deitzen diola. Beti egon da prest laguntzeko eta merezitako aitortza izango da".

60-70eko hamarkadetako kultur berpizkundea Oñatin nola bizi izan den hartuko dute ardatz ekainaren hasierako astean egingo dituzten ekitaldietan. Bere lan ibilbidea *www.jerardoelortza.eus* atarian hasi dira biltzen.

Emakumeak berriro ere Corpusetako lasterketan

Ekainaren 2an egingo da Oñatiko herri lasterketa: 18:00etan emakumeen proba egingo dute eta 19:00etan, gizonezkoena. Betiko moduan, hamar kilometroko saioa izango da, aurten homologatua. Goizean umeendako lasterketak egongo dira

Arantzazu Ezkibel OÑATI

Berrikuntzekin dator aurtengo Oñatiko herri lasterketa. Azkeneko urteetan ez dute emakumeen lasterketarik antolatu, baina aurten berriro ere emakumeak herriko kaleetan ikusteko aukera egongo da. Euskal Herriko emakume lasterkari onenak izango dira Corpusetako lasterketan; tartean, Mari Sol Ramos oñatiarra.

Lasterketa 18:00etan hasiko da eta korrikalariek hamar kilometroko ibilbidea egin beharko dute. "Zirkuitu homologatua da, aurten bertan homologatu dute", aurreratu du Asier Osinaga antolatzaileak. Eta gaineratu du: "2006an homologatu genuen, baina iraungitze data izaten dute horrelakoek. Hala, epaileak egon dira Oñatin eta berriro ere homologatu dute".

Iratxe Aranburu, 2006an, Oñatiko kaleetan. GOIENA

Postetxean hasiko da lasterketa

Mari Sol Ramos ez da lasterketan egongo den oñatiar bakarra: gizonezkoen proban, Erik Martin gazteak parte hartuko du. Osinagak esan du Amaia Bernal ere gonbidatu dutela, baina oraindik ez du baiezkorik esan hark.

Postetxe aurrealdean hasiko dute lasterketa, eta Atzeko kaletik igo eta Kale Barritik jaitsi ostean, beste zazpi buelta eman beharko dizkiote zirkuituari –1.300 metroko zirkuitua–.

Punta-puntako lasterkariak

"Punta-puntako atletak etorriko dira; tartean, iazko irabazle Iraitz Arrozpide", dio Osinagak. Gaineratu du beti gonbidatzen dutela herriko atletaren bat, eta, aurten Erik Martin erakusten ari den maila ikusita, hura gonbidatzea erabaki dutela. Bestalde, Ramosek berez baduela lasterketa honetan egoteko maila azaldu du. Bailarakoak ere egongo dira; Endika Donay atleta arrasatearra, adibidez.

EGUN BEREAN, GOIZEAN, GAZTETXOENDAKO LASTERKETAK EGINGO DITUZTE PLAZAN

Egun berean, goizean, herriko gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte plazan –12:00ak inguru izango da–. 6 urtetik beherakoak, LH 1-2, LH 3-4 eta LH 5-6 taldeak bereiziko dituzte, adinaren arabera.

Parte hartuko duten oñatiarrak



ERIK MARTIN
KORRIKALARIA

"Pozik nago, polita izango da herrian korrika egitea. Gonbidapena jaso nuenean, urduri jarri nintzen, baina ez nuen zalantzarik izan izena ematerakoan. Lasterketa polita izaten da, jende mordoa egoten da ikusten eta maila oneko atletak etortzen dira. Ea lan ona egiten dudan".



MARISOL RAMOS
KORRIKALARIA

"Urduri nago, etxean korrika egitea berezia da eta; era,

MARISOL RAMOS

berean, oso pozik nago. Izan ere, ez nuen espero gonbidapena. Oso momentu onean nago, maratoi erdian, Europako txapela lortu berri

Bidania-Goiatzen egindako talde argazkia. IÑAKI BIAIN

Final-laurdenetan izango da Oñati, abantailari eutsiz gero

Herri arteko txapelketako itzulerako lehiak jokatuko dituzte gaur, 19:30ean, Bidania-Goiatzen aurka

A.E. OÑATI

Kanporaketa alde dute oñatiarrek. 1-2 nagusitu ziren joan zen zapatuan Bidania-Goiatzen, eta alde horri eustea izango da pilotari oñatiarren helburua. "Logika baten barruan, itzulerako partiduak joanekoen antzerakoak izan beharko lirateke, eta etxean ere bi partidu irabazi beharko genituzke", azaldu du Josu Osa entrenatzaileak.

Mailaz maila

Bidania-Goiatzen jokatu zuten pilotariak irtengo dira Zubikoa frontoira ere. Kadete mailan, kolpe handiagoa dute oñatiarrek. "Daukaten maila ematen badute, samur irabazi beharko genuke", dio Osak; gazteetan, Oñatiko Markel Gartziaren maila nabarmendu du Osak; eta nagusien mailan, Bidania-Goiatzeko aurrelaria oso maila handiko jokalaria dela azaldu du. "Hala ere, ondo egin genien aurre han, 18-18 ere ibili ginen...".

7-22, 5-22 eta 22-18 izan ziren joaneko partiduko emaitzak: "27 tanto ditugu gure alde, eta abantaila horri eutsi behar diogu". Partiduak gaur, egubakoitza, izango dira, 19:30ean, Zubikoan.

NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA

Uda berriro hemen dugu

A ze negua aurtengoa!

Hotza, luzea eta hezea edo euritsua, aspaldian ez dugu ezagutu horrelako negu bat. Baina badoa apurka-apurka eguraldia aldatzen, eta, nahiz eta kostata, ematen du, oraingoan, udaberrian sartuko garela. Ez dugu aurtengo neguan kaleko terrazetan larregi disfrutatu, baina, uda finkatu ahala, beteko dira kaleak eta plazak umeekin, terrazak jendearekin, mendiak abereekin, eta akordatu orduko opor garaian sartuko gara. Erreketako urak joango dira apur bat epeltzen eta aukera izango dugu errekako bainuekin gozatzeko. Futbol txapelketa bukatu da, nahiz eta oraindik Errusiako mundiala geratzen den, batzuen sufrimenerako eta beste batzuen gozamenerako. Txirrindularitza ere hasi da eta aukera izango dugu aukeratzeko. Etxe girotik kale girora aldatzen gara denok, egun luzeak, gau epelak eta motzak, herri eta auzoetako jaiak, baina baita kurtso bukaerako azterketak eta larrialdiak ere. Bai, badoa, apurka-apurka, eguraldia aldatzen, eta, nahiz kostata izan, uda iritsiko da. Gozatu eta ondo pasa!

Urgaingo bikote bat saritu du Elkarrek

Azken urteetako ohiturari jarraiki, Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa antolatu du Elkarrek. Eta jada jakinarazi dituzte irabazleen izenak; Urgaingo bikote bat dago horien artean –LH3-LH4 mailan–. Zapatuan jaso zuten aitortza, Pello Añorga idazlearen eskutik

Iker Oñate OÑATI

Jakinarazi dituzte Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketako hamargarren edizioko irabazleen izenak. Eta Urgain eskolako Julen Martiarena eta Eneko Moiua ikasleak daude horien artean –Lehen Hezkuntzako 4. mailan dira horiek–. Hala, zapatuan jaso zuten euren aitortza, Donostiako Elkar dendan. Eta sariaz gozatzea dagokie orain –jolas sorta eta 60 euroko opari txartela jaso dute opari–. "Oso pozik gaude lortutakoarekin", aitortu du Urgaingo bikoteak. Esan beharrekoa da, orotara, 7.800 lan baino gehiago aurkeztu direla aurtengo edizioan; LH3-LH4 mailakoen kategorian lehiatu dira Martiarena eta Moiua.

Eneko Moiua eta Julen Martiarena, Pello Añorga idazlearekin. BORJA MOIUA

Zehatz esanda, ikastetxean landurikoa aurkeztu zuen bikoteak: Pello Añorga idazleak idatziriko *Ametsen basoa* ipuin laburra ilustratzea zen euren zeregina –argitaratu bako lana da hori–. Eta muga bakoa zen sorkuntza teknika. Hala, tela eta paper zurrun zatiez egindako lana aurkeztu zuen Urgaingo bikoteak. "Besteekin alderatuta, bazituen berezitasunak. Desberdina zen. Eta esan daiteke mesede egin digula horrek", azaldu du Moiuak.

"Hainbat elementu irudikatu ditugu: sugarrak, autoa, zigarroa, erretzen dabilen basoa... Aukeratutako ipuin zatia ilustratzen lagundu digu horietako bakoitzak", argitu du Martiarenak. Hain zuzen ere, auto batetik eroritako zigarroak eragindakoak hartu dituzte oinarri –besteak beste, horixe bera gertatzen da ipuinean–.

Ikaskideen zorion mezuak

Elkarrek urtarrilean aurkeztu zuen lehiaketa. Eta Urgaingo ikasleek ostean ekin zioten sorkuntzak lantzeari. "Bakarka egiteko ariketa zen. Baina ez genekien zer egin. Beraz, galdetu ostean, bion artean egiten utzi zigun irakasleak. Nork bere ekarpena egin du lan honetan", diote. Eta, bukatuta, "gustura" ziren egindakoarekin: "Ilustrazio polita zela ikusi genuen; eta desberdina. Beraz, hor zeuden irabazteko aukerak".

Hala, esperantzak ez zien hutsik egin. Orain, aitortza esku artean, ikaskideen zorion mezuak jasotzen dabiltza. "Ikaskide askok zoriondu gaituzte. Polita da hori. Oso pozik gaude", aitortu du Martiarenak.

Sormenerako pizgarri

Besteak beste, irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko bitarteko da Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa; haurrak eta gazteak ditu jo puntuan. Eta hiru modalitatetan banatzen da hori: *Ipuina ilustratu, Ilustrazioa ipuin bilakatu* eta *Komiki edo bineta sortu*. Lehenengoan esku hartu du Urgaingo bikoteak.

Bestetik, esan beharrekoa da lehiaketak ez duela edozelako epaimahaia izan: haur eta gazte literaturan aditu direnek osatu dute. Eta askotarikoak izan dira horiek izan dituzten balorazio irizpideak. Besteak beste, aurkezturiko lanen originaltasuna, kalitatea eta emandako oinarriaren esentzia jasotzeko gaitasuna baloratu dituzte. "Oso ondo erabili dute collagearen teknika. Konposizio ederra osatu dute, tartean, kolore nahasketa egokia erabiliz", esan zuen epaimahaiak sari banaketa ekitaldian.

EPAIMAHAIAREN ESANETAN, BIKOTEAK "OSO ONDO" ERABILI DU COLLAGEAREN TEKNIKA

IKER OÑATE

Ikastetxeak bertsotan

Ikasturtean zehar bertsogintzaren munduan murgildurik jardun ostean, ikasitakoa ikusarazteko aukera izan dute asteon herriko ikaskuntza zentrokoek –Elkar Hezi, Txantxiku Ikastola eta Urgain–. Zehatz esanda, astelehenean eta eguenean egin zituzten bertso erakustaldiok, Santa Anan. Era guztietako bertsoak entzun ahal izan zituzten bertaraturikoek.

The Beatles-en kantak abestuko dituzte Ganbara Faktoriakoek

Azken urteetako ohiturari jarraiki, bazkideendako kontzertua eskainiko du domekan Ganbara Faktoriak; 19:00etan hasiko da emanaldia, herriko San Migel parrokian. Aurten, gainera, Ganbara osatzen duten abesbatza guztiek hartuko dute parte hitzorduan: Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txikik, Hots abesbatzak eta Ganbara abesbatzak. Besteak beste, *Yesterday, Hey Jude* eta *Yellow submarine* kantak izango dira entzungai. Horiez aparte, hainbat bakarlari ere izango dira bertan. Gura duenak Txokolateixan eros ditzake sarrerak, 8 eurotan. Gainera, egunean bertan ere izango dira eskuragai, parrokian.

Bergarar bat Realaren aulkian

FUTBOLA Konfirmazio ofizialaren faltan, Asier Garitanok (Bergara, 1969) zuzenduko du talde txuri-urdina datorren denboraldian. Realak baimendu arte adierazpenik ezin duela egin adierazi dio GOIENAri, baina adostasuna erabatekoa da

Xabier Urzelai BERGARA

Konfirmazio ofiziala falta da, eta, horretarako, Realeko zuzendaritzak batzarra zuen atzo, eguena. GOIENAko erredakzioa itxi denerako, baina, Donostiatik ez da berririk iritsi; horrenbestez, detaile hori faltako da Asier Garitano Realeko entrenatzailea dela esateko. Formalismo horietatik harago, baina, Leganesko entrenatzaile ohiak GOIENAri emandako erantzunetik ondoriozta daiteke adostasuna erabatekoa dela: "Realak baimena ematen didanean egingo dut berba".

Etxeko baten aldeko apustua

Jagoba Arrasatek Reala zuzendu zuenetik (2013-2014), talde txuri-urdinak ez du bertako entrenatzaile baten aldeko apusturik egin. Arrasatek Montanier ordezkatu zuen, baina hurrengo denboraldian gauzak erabat okertu ziren eta zaleak zorrotzak izan ziren Berriatukoaren lanarekin.

Orduan, nazioartean oihartzun handiagoa zuen David Moyesen aldeko apustua egin zuten –West Ham taldeak kontratua eten berri dio– eta ondoren etorri zen Eusebio Sacristan (2015). Motibo batengatik edo bestearengatik –Eusebiorekin joko eta emaitza aldetik bolada oso onak izan ditu taldeak–, entrenatzaile horietako bat ere ez da Realeko aulkian egonkortu. Eta Leganesen erreferente –herriko seme kutun izendatu dute– bilakatu den Asier Garitanoren aldeko apustua egin du orain klub txuri-urdinak.

Gertukoa eta zorrotza

Jokalariek gertuko entrenatzaile moduan definitzen dute, baina baita zorrotza dela ere. Eta, gertutasun hori komunikabideekin ere erakutsi izan du Bergarakoak; tartean, GOIENArekin.

Asier Garitano, Leganes taldea zuzentzen. LA LIGA

Debagoiendarren gustukoa

Bada, lerrootan jasotakoagatik, bailarako futbol zaleen gustukoa da Garitano: "Klubek izen handiko entrenatzaileak izaten dituzte buruan, dagoeneko erreferente direnak, eta, horregatik, sarritan etxeko entrenatzaileak baztertzeko joera egoten da", dio Aloñako presidente Jabi Azpiazuk.

Euskadi Irratiko esatari Rafa Mungiak, berriz, garbi dauka Emery inoiz ez zela proposamen erreala izan: "Horren aldeko apustua egiten zutenak ez dakit ze planetatan bizi diren, zentzu handi barik puztu zen gaia izan zen hori. Pentsa, Arsenal moduko klub batean Arsene Wenger ordezkatuko du Emeryk".

Leintz Arizmendi taldea Euskal Ligan zuzentzen lan ona egin duen Esti Toiti *Titu*-k ere bat egin du ideia horrekin: "Emery moduko entrenatzaile bat erakartzeko, nazioartean proiekzioa duen taldea izan behar duzu, eta Realak zer egin du? Ez gaude etxafuegoak botatzeko moduan".

Eta Bergarako kirol zuzendari Manu Diazek, gainera, izar handiekin alderatuta Bergarakoak duen profila lehenesten du Realarendako: "Behetik gora datorren entrenatzailea behar du Realak. Imanol aproposa iruditzen zitzaidan, eta baita Asier ere. Garitanok taldearendako egiten du lan, eta jokalariei uzten die protagonismoa. Eta, batez ere, Garitanoren etorrerak Zubietako harrobiarendako ekar dezakeen bultzadagatik nago pozik. Eta noski, bergararra delako [Barre]".

Mondrako presidente Ramon Azkarateren ustez, berriz, garrantzitsua izango da lehenengo jardunalditik zortea aldeko izatea, etxekoak direnekin jendea azkarrago urduritzen delakoan: "Imanoli aukera emango nioke nik, baina Garitano ere aproposa da Realaren filosofiarekin lan egiteko. Dena dela, gauzak ondo irten beharko zaizkio hasieratik; bestela, Olabek eta Aperrik segituan sumatuko dute zaleen presioa".

Mungia, baina, oinarrira etorri da, Bergarakoak eskura izango dituen jokalarietara: "Xabi Prieto, Canales, Iñigo Martinez, *Charlie*... Jokalari askok taldea utzi dute, edo utziko dute. Rullik ere ez dut uste jarraituko duenik, eta ze fitxaketa egingo du Realak? Izan ere, entrenatzaile ona izan arren, taldea ondo indartzea ezinbestekoa izango da".

Guztien artean, Bergarako jokalari eta entrenatzaile ohi Igor Unzurrunzaga izango da Garitano ondoen ezagutzen duena: "Egia da ez dela profil ezaguneko entrenatzaile bat, baina, nire ustez, entrenatzaile batek behar dituen ezaugarri guztiak ditu, oso tipo azkarra da".

"ENTRENATZAILE ON BATEK BEHAR DITUEN OSAGAI GUZTIAK DITU"

IGOR UNZURRUNZAGA, ENTRENATZAILEA

"GEHIAGO KOSTATZEN ZAIGU ETXEKOEN LANA AITORTZEA ETA ONARTZEA"

ESTI LOITI, ENTRENATZAILEA

"FITXAKETA APROPOSA DA ETA BADIRUDI ZALDUA EKARRIKO DUELA"

EDURNE URTEAGA, OÑATIKO ZALEA

"EMERY REALERA ETORTZEARENA ZENTZU BARIK PUZTU DEN GAIA IZAN DA"

RAFA MUNGIA, EITB-KO KAZETARIA

"BEHETIK GORA DATOR GARITANO, ETA HORI DA REALAK BEHAR DUENA"

MANU DIAZ, KIROL ZUZENDARIA

"IZEN HANDIKO ENTRENATZAILEEN BILA IBILTZEN DIRA SARRI KLUBAK"

JABI AZPIAZU, ALOÑAKO PRESIDENTEA

Asier Garitanoren gaineko iritzia:

AGURTZANE ELKORO
UDA-KO PRESIDENTEA

"Etxeko pertsona bat da, gipuzkoarra, eta bertako futbola ulertuko duen esperantza daukat. Ez naiz kanpoko jokalariak ekartzearen kontrakoa, baina harrobiarekin sentsibilizazio berezia izango duela uste dut, jakinda Olabe ere hor dagoela kirol zuzendari; horrek pozten nau".

MANU DIAZ
BERGARAKO KIROL ZUZENDARIA

"Reala dagoen moduan egonda, profil egokiko entrenatzailea da, behetik gora datorren entrenatzailea da eta. Jokalari garrantzitsuek agur esango dute eta taldea berritu egin beharko dute, eta hor, Asierrek erakutsi du Leganesen gauzak oso ondo egin dituela. Tipo umila da, taldearendako lan egiten duena".

RAFA MUNGIA
EITBKO KAZETARIA

"Eusebiorekin alderatuta, Lehenengo Mailan jokatu izanaren esperientziarekin dator; apustu interesgarria da. Badago korronte bat Emeryren alde egin duena eta Garitano gutxietsi, baina Emery Realera etortzea ez zen erreala. Halako tankerako entrenatzaileekin Reala ondo ibili izan da".

IGOR UNZURRUNZAGA
FUTBOL ENTRENATZAILEA

"Asier nahiko gertutik ezagutzen dut, eta garbi daukat oso fitxaketa ona dela. Entrenatzaile on batek arlo asko menperatu behar ditu, arlo taktikoa, jokalariekin hartu-emana... Eta ona da horretan. Entrenamenduak oso ondo prestatzen ditu, eta oso erraz ikusten du futbola".

ESTI LOITI 'TITU' LEINTZ ARIZMENDIKO ENTRENATZAILEA

"Normalean, gehiago kostatzen zaigu etxekoen lana aitortzea eta onartzea, eta Asier Garitanok oso lan ona egin du Leganesekin; isil-isilik, gainera. Zituen jokalariekin futbol erakargarria egin du. Emery? Reala ez dago etxafuegoak botatzeko eta izen handiko entrenatzaileak erakartzeko".

RAMON AZKARATE
MONDRAKO PRESIDENTEA

"Alde positiboa da gipuzkoarra dela, eta Realaren filosofiarekin lan egiteko oso pertsona aproposa. Negatiboen artean, Leganes oso ondo zuzendu badu ere Lehenengo Mailan ez duela esperientzia handirik. Hasieran emaitza txarrak badatoz, agintariek zaleen presioa izan dezakete".

EDURNE URTEAGA OÑATIKO REALZALEEN PEÑAKO KIDEA

"Egia da Garitanoren ibilbidea ez dudala askorik jarraitu, baina bistakoa da Leganesen estimu handia diotela, eta zerbaitengatik izango da. Uste dut fitxaketa aproposa dela, eta badirudi Zaldua ere ekarriko duela; hortaz, albiste onak dira. Emery proiekzio handiko talde batean zegoen".

IBON GEZALAGA
ANTZUOLAKO PRESIDENTEA

"Fitxaketa ona da, besteak beste, Reala zer den ondo ezagutzen duelako, baita jokalariak ere. Leganesekin Bigarren B mailatik Lehenengo Mailara igotzea bakarrik ez, ondoren taldea kategorian egonkortu du larritasun handirik pasatu gabe, eta ez zeukan aparteko talderik".

JABI AZPIAZU
ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

"Ez dut pertsonalki ezagutzen, baina bistakoa da Leganesen lan ona egin duela. Realeko kirol zuzendaritzak erabaki badu bere profila aproposa dela Realarendako, zerbaitengatik izango da. Halakoetan, etxekoak baztertuta izaten ditugu, eta klubek izar handiak izaten dituzte aintzat".

Martxoan Eskolarteko krosa egin zuten. IMANOL SORIANO

Atleta gazte uholdea pasako da Arrasatetik bi asteburutan

KIROL JOKOAK 3.200 gazte kirolarik jokatuko dituzte Arrasaten Euskadiko Eskolarteko Jokoetako finalak

X.U. ARRASATE

Askotariko kirol jarduerak izango dira datozen bi asteburuetan Arrasaten antolatu dituzten Euskadiko Eskolarteko 37. finaletan –kirol jarduera batzuk Bergarara, Eskoriatzara eta Aretxabaletara bideratuko dituzte–.

Hala, Kirol Jokoetako finalek zenbateko ikusgarriak utziko dituzte: "Euskal Herri osoan finaletara iritsi diren 3.200 atleta batuko dira gurean", adierazi dute antolatzaileek.

Hainbat gunetan banatuta

Kirol jarduera asko Mojategiko eta Musakolako kirol instalazioetan batuko dira, eta zapatuan, esaterako, ordutegi berean (10:30-14:00). Atletismo probak eta futbol partiduak izango dira Mojategin; tenisa, karatea, eta padela Musakolan (10:30-14:00); Iturripen saskibaloian jokatuko dute (10:15), eta baita Eskoriatzan ere, eta Uarkapen gimnasia erritmikoa egongo da goizean, eta arratsaldean (16:00-20:00) aerobika eta xakea. Igeriketa, berriz, Bergarako Agorrosin gunean izango da (goiz eta arratsalde).

Domeka goizean, berriz, areto futbolean (Musakolan) eta eskupilotan (Uarkapen) jokatuko dute.

Txirrindularitza, herri barruan

Kirol jardueretako batzuetan bereziki egin dute apustu handia; esaterako, txirrindularitzan. Hala, domekan Arrasateko kaleetan barrena jardungo dute neskamutikoek. 10:00etan hasiko da mutilen proba; eta, 11:00etan, neskena. Finean, proba bera herritarrengana gerturatzea dute helburu bultzatzaileek. Eta jakinarazi dute aldian aldiko bide mozketak eragingo dituela horrek. Lasterketa horiek bukatuta, bestetik, ginkana egingo dute Biteri plazan.

AUTOMOBILISMOA

Eslalom proba egingo dute Eskoriatzan

Zapatuan eslalom auto lasterketa egingo dute, lehenengoz, Eskoriatzan. Proba 15:00etan hasiko dute, estazio zaharrean, eta, guztira, hogei pilotu izango dira bertan erakustaldia egiten, horietako lau eskoriatzarrak: Gorka Idigoras, Gorka Urrutia, Mikel Oyarzabal eta Joseba Frutos. 19:00etan egingo dute sari banaketa ekitaldia.

ESKOLA KIROLA

Ikasturteko azken jaia, Eskoriatzan

Ikasturteari amaiera emateko, Leintz Eskola Kirolak Azken Jaia antolatu du zapaturako. 10:30etik 12:00etara gazteenek ginkana jolasak egingo dituzte, eta LHko 3. eta 4. mailetakoek herri kirol eta joko tradizionaletan jardungo dute. 12:15ean, berriz, *zumba* erakustaldia egingo dute plazan, eta 12:30ean ekitaldi nagusia izango da.

Dantzan egiteko aukera asko, Jaiki elkartearekin

Aretxabaletako elkartearen eskutik, gaur hasi eta ekainaren 1era, ikastaroak eta askotariko ikuskizunak izango dira Aretxabaletan. "Dantzan egiteko adin mugarik ez dagoelako", ikusteaz gainera dantzan egitera animatzeko gonbidapena egin dute

A. A. / M. A. ARETXABALETA

Gorputza, mugimendua eta adierazpena bateratzen dituen ekimenak bultzatzeko sortu zuten orain dela hamabost urte Jaiki elkartea –hasieran, Gozatu Ekimena izena bazuen ere–. Harrezkero, asko dira eskaini dituzten tailerrak eta bestelako ekintzak; horien artean, aurten laugarrenez, eta gaur hasita, egingo duten Dantza Astea.

"Dantza kalera ateratzea da hasieratik dugun helburu nagusia", kontatu zuen Jaiki elkarteko kide Maier Etxebarriak Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan martitzenean, eta zera gaineratu: "Bailaran dantzari asko dagoela ikusita, horiei tokia egin nahi izan diegu, euren lana erakustera etor daitezen. Era berean, Udalari eskerrak eman gura dizkiogu uzten digun lokalagatik eta ematen dizkigun laguntzengatik, herritar guztientzako aproposa den Dantza Astea antolatuta".

Gasteizko Zirkulanduz taldearen *Beldurrik ez* emanaldia. AITOR GONZALEZ DE ZARATE

Aurten, egun bat gehiago

Formatu aldetik aurreko aldietako egitura antzerakoa duela zioen elkarteko kide Zigor Lasagabasterrek: "Hala ere, urtero gauza berriak eskaintzen saiatzen gara; gaur, esaterako, zuzeneko biolin doinuak lagun dituela trapezio gainean dantzan ikusiko dugu Zirkulanduz taldeko dantzaria. Bitxikeriak erakutsi gura ditugu, baina, bereziki, dantzan egitera animatu gura dugu. Basotxo Erretiratuen Elkartekoek protagonismo handia dute aurten, baina, gazteak hurbiltzeko ere, askotariko estiloen artean, dantza urbanoak toki zabala izango du. Ikastaroetako ia toki guztiak beteta dauden arren, oraindik ez daude taldeak itxita; bidali, bada, lehenbailehen eskaera *Jaikielkartea@gmail.com* helbidera".

"Kasualitate polita"

Karmele Igartua zenaren poesiak dantzarekin uztartuta entzuteko aukera polita izango da eguenean Arkupen. "Martitzeneko taldean irakaslea aldatu dugu, eta, hain justu, Aretxabaletakoaren poesian oinarrituta dagoen *Denbora* ikuskizuna egiten du bikotekidearekin. Ezin aproposagoa iruditu zitzaigun gure asterako".

Ikuskizunak doan izango dira, eta, bat izan ezik, guztiak kalean (ikus alboko taula); eguraldi txarra eginez gero, mojatan egingo dituzte; eta gaurkoa, frontoian.

Egitaraua

Maiatzak 25, egubakoitza
- **19:00** *Beldurrik ez*, trapezioan dantza saioa, Durana kalean, Gasteizko Zirkulanduz taldearen eskutik.
- **19:30** Gasteizko Haritz&Helena dantzarien *Room 247* dantza garaikidea emanaldia, Durana kalean.

Maiatzak 26, zapatua
- **10:00-13:00** Dantza urbanoak eta Kontakids ikastaroak, Ibarra kiroldegian.
- **10:00-13:00** Tango ikastaroa, kuartelean.
- **10:00-13:00** Afrogaraikide dantza ikastaroa Arkupe kultura etxean.
- **13:30** Bergarako Musika eta Dantza Eskolaren euskal dantzen erakustaldia, Mitarte kalean.
- **14:30** Jam-Ñam.
- **18:30** Tango, dantza urbano eta Kubako dantzen erakustaldiak, Herriko Plazan.
- **22:00** Aretxabaletako DJ Gorkaren saioa, Kixkor tabernan.

Maiatzak 27, domeka
- **Egun osoan** Haur Dantzarien Eguna.
- **18:00** Erromeria, mojatan.

Maiatzak 28, astelehena
- **17:30** Leizarra musika eskolakoen emanaldia, Herriko Plazan.
- **18:30** *Sevillana* eta *Shuffle* dantza saioa, Durana kalean.

Maiatzak 29, martitzena
- **17:30** Basotxo erretiratuen elkartekoen areto dantzen emanaldia, Herriko Plazan.

Maiatzak 30, eguaztena
- **17:30** *Ludoteka dantzan* saioa, Durana kalean.
- **18:45** Plaza dantzak, Basotxo elkartearen eta Leizarra musika eskolakoen eskutik, Durana kalean.

Maiatzak 31, eguena
- **19:00** Dantza, musika eta Karmele Igartuaren olerkia uztartzen dituen *Denbora* ikuskizuna, Altraste dantza konpainiaren eskutik, Arkupe kultura etxean.

Ekainak 1, egubakoitza
- **19:00** Bergarako Candem Town akademiakoen dantza urbano eta salsa erakustaldia, Herriko Plazan.
- **19:30** Jaiki elkartearen *Danama La* izeneko ikuskizuna, Durana kalean.

KANTARI
GOIENA TELEBISTA,
ZAPATUAN, MAIATZAREN 26AN, 09:30EAN ETA 16:30EAN
DOMEKAN, MAIATZAREN 27AN, 09:30EAN ETA 16:30EAN
ARRASATEKO SAIOEN ESTREINALDIA
BABESLEA:
kutxa FUNDAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.

'Lights' lana aurkeztera dator bihar Nat Simons

